

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

<b>1. Erakundearen izena:</b>	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
<b>2. Sektorea:</b>	Administrazioa
<b>3. Langile kopurua:</b>	165
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/kultura-hizkuntza-politika-saila/">https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/kultura-hizkuntza-politika-saila/</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Gure erabilera planak lankideengan du eragina, nahiz eta erakundea euskal gizarte osora begira dagoen.

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Jabier Osés Azurmendi
<b>Helbide elektronikoa:</b>	jabizas@gmail.com
<b>Telefonoa:</b>	945118373

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Ulerrizketa- proiektua
2. Praktika onaren azalpena:  Zer da? Zertan datza?  Nondik dator?  Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Asko laburbilduz, hizkuntza-ohiturak aldatzeko proiektu bat da.</p> <p>Langile batek (ulertzailea) B2ko euskara-gaitasuna dauka; beraz, bada gai euskaraz egiteko lanean. Ohitura edo ausardia faltagatik, beti gaztelaniaz egiten du. Bi lankide (mintzatzaileak) bilatu ditugu harekin euskaraz hitz egiteko. Zortzi asteko proiektua da, eta horietan zehar ulertzailea saiatuko da euskaraz egiten mintzatzaileekin, baina aukera izango du gaztelaniaz ere egiteko. Mintzatzaileek beti egingo diote euskaraz ulertzaileari.</p> <p>Ematen du egitasmo simple bat dela, baina atzetik lan handia dago. Pello Jauregi adituak eta Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiolak asmatutako programa bat da, oso ondo garatua dagoena.</p> <p>Saileko teknikariak prestakuntza jaso du, gero ulertzaile eta mintzatzaileei helarazteko zein diren teknika egokiak elkarriketak behar bezala garatzeko eta helburua lortzeko (mintzatzaileek euren hizkera moldatu beharko dute ulertzaileak uler dezan, eta hala ez denean, beste modu batean esan).</p> <p>Oso emaitzak onak lortu ditugu. Zortzi astez iraun zuen esperientzak, eta gaztelaniaz hitz egitetik euskaraz hitz egitera pasatu zuten.</p>


## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Badaukat dokumentazioa eta txosten bat praktikaren inguruan. Bidaliko dizkizuet dokumentu erantsi moduan.

# Aldahitz IKERKETA

ULERRIZKETA  
METODOLOGIA



Pello Jauregi Etxaniz



Pablo Suberbiola Unanue

**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

**Argitaraldia:** 2019ko iraila  
**Argitaratzailea:** Soziolinguistika Klusterra  
**Egileak:** Pello Jauregi Etxaniz, Pablo Suberbiola Unanue

**Osaketa grafikoa:** Zirrimarra (Andoain)  
**ISBN:** 978-84-943708-5-4



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

#### Babesle eta partaide:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

#### Bazkide partaideak:




Alдахитз proiektuaren Garapen Taldean parte hartzen duten erakundeak (alfabetikoki zerrendatuta) ondorengo hauek dira (parentesi artean, 2019. urtean erakunde horien ordezkari gisa taldean ari diren kideak): AHIZE-AEK (Nerea Ibarluzea), Artez euskara zerbitzua (Jon Mentxakatorre), Elhuyar Aholkularitza (Ainara Ibañez), Emun (Kristina Pavo), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Sonia Isasi), Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza (Nekane Jauregi), UPV/EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila (Pello Jauregi) eta Soziolinguistika Klusterra (Pablo Suberbiola).

2019ko iraila

# Aldahitz IKERKETA

ULERRIZKETA METODOLOGIA



Pello Jauregi Etxaniz

Pablo Suberbiola Unanue



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea



# **Aldahitz** IKERKETA ULERRIZKETA METODOLOGIA

---

*Gaitasun ertaina dutenekin euskaraz  
aritzeko bide bat*



## AURKIBIDEA

<b>Aurkibidea</b> .....	5
<b>1. ULERRIZKETA METODOLOGIA ALDAHITZ IKERKETAREN ALTZOAN</b> .....	7
<b>2. OINARRI TEORIKOAK</b> .....	10
<b>2.1. Testuinguru soziolinguistikoa</b> .....	10
<b>2.2. Ulerrizketaren muina</b> .....	13
<b>2.3. Ele biko elkarrizketak</b> .....	14
2.3.1. Non-convergent discourse .....	14
2.3.2. Hizkuntza-simetriarako joera .....	15
2.3.3. Onartutako asimetria eta disonantzia kognitiboa .....	17
<b>2.4. Hizkera ulergarria</b> .....	18
2.4.1. Kode sinpleak: foreigner talk .....	18
2.4.2. Beste kode sinple batzuk: baby talk eta teacher talk .....	21
2.4.3. Hizkera ulergarria eta hizkuntza-jabekuntza .....	22
2.4.4. Komunikazio-estrategiak .....	24
2.4.5. Ulergarritasuna, kontzeptu erlatiboa: hizkuntza-sintonizazioa ...	27
<b>2.5. Egiartzatzeko jokabidea</b> .....	28
2.5.1. Kontrola, segurtasuna eta hizkuntza-konfiantza .....	28
2.5.2. Esanahiaren negoziazioa vs. Esanahiaren transmisioa .....	30
<b>3. ALDERDI METODOLOGIKOAK</b> .....	32
<b>3.1. Ulerrizketaren oinarrizko ideia</b> .....	32
<b>3.2. Euskara-gaitasun altuko hiztunen eta gaitasun ertaineko hiztunen arteko euskarazko komunikazioa</b> .....	35
<b>3.3. Ingurune naturaletan gertatzen dena</b> .....	37
<b>3.4. Ele biko elkarrizketak maiz dituenak</b> .....	38
<b>3.5. Hizkera egokitua erabiltzen duena</b> .....	43
3.5.1. Hizkera erregulatzeko beharra .....	43
3.5.2. Hizkera erregulatzeko bitartekoak .....	44
3.5.3. Kideen arteko hizkuntza-sintonizazioa .....	48
<b>3.6. Jokaera egiaztatzailea erabiltzen duena</b> .....	50
<b>3.7. Hizkera malgua erabiltzen duena</b> .....	57

<b>3.8. Komunikazio-estrategien zerrenda</b> .....	64
3.8.1. Laburpen esplikatioa .....	65
3.8.2. Laburpen eskematikoa .....	66
3.8.3. Arriskuen aurrekojokaera .....	67
3.8.4. Arriskuen aurreko jokaerak protokolo batera ekarrita .....	69
<b>3.9. Ulerrizketa bere dinamika osoan</b> .....	70
<b>4. FORMAZIO SAIOA</b> .....	72
4.1. Formazioaren beharra .....	72
4.2. Programazioa .....	73
4.3. Ariketen azalpena eta materiala .....	76
<b>5. ULERRIZKETAREN ANTOLAKETA</b> .....	98
5.1. Eredu baten bila .....	98
5.2. Eredu estandarraren hezurdura .....	100
5.3. Aurre-lanak .....	101
5.4. Formazioa .....	106
5.5. Esperientziaren ezaugarriak .....	109
5.6. Lan-mundutik kanpoko gizarte-eremuak .....	115
<b>6. AZKEN HAUSNARKETAK</b> .....	116
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b> .....	118
<b>8. ERANSKINAK</b> .....	121
8.1. BERTSIO DIDAKTIKO LABURRA .....	121
8.2. TXARTELAK .....	124
8.3. ALBISTEAK .....	137
8.4. LABURPEN ILUSTRATUAK .....	140
8.5. PROTOKOLOAK .....	142
8.6. KARTAK .....	143
8.7. JARRAIPEN FITXA .....	144
8.8. AZTERKETA KUALITATIBOA .....	145



# 1.



## ULERRIZKETA METODOLOGIA ALDAHITZ IKERKETAREN ALTZOAN

Arnas luzeko egitasmoa da Aldahitz Ikerketa, 2010. urteaz geroztik Soziolinguistika Klusterrak gidatutako ikerlerroa. Urteotan, aztergai nagusia izan ditu lan alorrean ematen diren hizkuntza-ohituren aldaketa prozesuak, eta ikerketa ekintzarekin uztartuz luze aritu izan da zeregin horretan. 2012an sortutako *Eusle metodologia*<sup>1</sup> da hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko eta ikertzeko egitasmoak garatu duen tresna nagusia. Aurrera eginda, 2016. urtean egitasmoak beste bi baliabide prestatzeari ekin zion: *Ulerrizketa metodologia* eta *Uler-saioak metodologia*.

Metodologia hauek lan munduaren inguruan sortu badira ere, beren aplikazio eremua ez da hartara mugatzen. Egokipenak egokipen, ez dago aparteko zaitasunik lan esparrutik kanpo beste gizarte eremu batzuetan ere Aldahitz metodologiak aplikatzeko. Horren erakusgarri dugu, besteak beste, azken urteotan *Eusle metodologia* hezkuntza arlora eta haur zein gazteen testuingurura egokitzeko jorratzen ari den lan ildoak. Era berean, *Ulerrizketa metodologia* lantokietan bezala aisialdian eta ingurune informaletan ere erraz aplikatu daiteke. Pentsatzekoa da, esaterako, Euskaraldiaren

markoan metodologia hauek tresna interesgarriak izan daitezkeela. *Ulerrizketa metodologiak*, adibidez, marko zehatza eskaintzen du hiztunak trebatzeko elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko euskarazko harremanak bideratzearen aldera.

*Ulerrizketa metodologiaren* aurrekariak aurkitzeko asmoz, bederatzi urte atzera egin behar genuke, Aldahitz Ikerketaren beraren abiapuntura iritsita. 2011. urtean, hain justu, oinarritzko ikerketa bat egin genuen, gerora ikerlerroaren norabidea asko markatuko zuena. Ikerketa hark helburu zuen euskara ikasi eta lantokian euskal hiztun bihurtu ziren langileen prozesu arrakastatsuak aztertzea. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako hainbat lantokitan, zortzi pertsonen prozesu arrakastatsuak aztertu genituen. Azken informean, honako pasarte hau idatzi genuen, ondorio gisa, prozesuaren gako nagusiak bildu nahian:

“Gure protagonistek, euren hizkuntza-jokaera aldatzeko egin duten ibilbidea abiatu, oso eremu txiki, babestu eta gertukoetan abiatu dute. Jokaleku nagusia, beraz, beti gertatu da hurbileko lankide euskaldun baten babesean, aurrez aurreko harreman goxoaren gerizpean. Hantxe, bikote horietan, eman da ikuspegi kualitatibotik urratsik garrantzitsuena, zeren horretan galdu baitiote beldurra benetako hiztun batekin

<sup>1</sup> Badago *Eusle metodologiari* buruzko argitalpen pare bat: Jauregi eta Suberbiola, 2015; Jauregi eta Suberbiola, 2017. Bibliografian aurki daitezke erreferentziak.

hitz egiteari, horretan konturatu baitira zailtasunak zailtasun euskaraz komunikatzeko gauza izan zitezkeela, horretan baieztatu baitute euren gaitasuna egunetik egunera aurrera zihoala. Funtsezko hizkuntza-esperientzia hauek guztiak aurrez aurreko harreman baten eremu txikian eman dira. Ondorioak, gero, lurrikara baten epizentroak bere uhinak noranahi hedatzen dituen modu bertsuan, beste harreman batzuetara ere zabaldu dira lantokian bertan, bai lankide zaharrekiko eta bai etorri berri diren lankide euskaldunekiko harremanetaraino iritsita. Uhin horietako azken astinaditxoak lantokitik kanpora ere iritsi dira kasu gehienetan, eta lagunekin, familiarekin eta abarrekin ere euskarazko harremanak hasi dituzte gure protagonistek, baina honen, oro har, indar motelagoa izan du lantokian izaniko eraginarekin alderatuta.”

Elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko harremanak zeuden esperientzia arrakastatsu horien guztien muinean. Elebidun hartzaileak eskolen bidez ari ziren euskara ikasten (kasu batean izan ezik), baina, aldi berean, bazuten den-denek lantokian gertuko lankide elebidun bana eguneroko harremanetan euskaraz egin ohi ziena (ez beti, baina gehienetan egiten zuena, erdara utzita larrialdietarako soilik, erregulazio gisa). Etengabeko praktika hari esker, elebidun hartzaileek, euskara ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna hobetzeaz batera, modu naturalean egin zuten euskaraz egiteko jauzia ere, bi kideek elkarri euskaraz egiteko ohitura sortu, eraiki eta finkatzen zutelarik. Esan genezake, orduan, euskarazko komunikazioan oinarritutako hizkuntza-sozializazio naturalaren kutsua zeriela esperientzia arrakastatsu hauei guztiei.

Urte batzuk geroago, *Ulerrizketa metodologiaren* bidez, forma operatiboa eman nahi izan diogu esperientzia arrakastatsuetan ikusitako elebidunaren eta elebidun hartzaileen arteko hizkuntza-harreman tankera horri.

Modu naturalean ikusitako hizkuntza-harremanari forma didaktiko eta praktikoa eman nahi izan diogu, pentsatuz horrek lagun diezaiokeela halako harremanetan trebe eta eroso aritzeko berezko erraztasunik agertzen ez duenari.

Hiru urteko esperimentazioaldiari ekin ondoren, eta gure lurraldeko han-hemengo lantokian 13 esperientzia egin ostean, pozarren dakartzagu orain jendearen aurrera *Ulerrizketa metodologiaren* inguruan metatu dugun ezagutza eta eskarmentu guztia.

*Ulerrizketa metodologiari* marko teorikoa ematen dioten ikerketak, ideiak eta egileak modu sistematikoan ematen saiatu gara liburuaren lehen zatian. Gero, kontu metodologikoetan barrena murgildu gara, ulerrizketan erabiltzen diren estrategiak, jokaerak eta bihurtzekoak ahalik eta zehaztasunik handienaz emateko. Hirugarrenez, ulerrizketa-trebetasunak erakusteko eta lantzeko formazio-saiorako programazio zehatza aurkeztu dugu, erabili beharreko materiala erakutsi eta guzti. Azkenik, ulerrizketa antolatzeke kontuei eman diegu arreta, antolaketa eredu estandar bat proposatuta.

Beraz, *Eusle metodologiaren* ondoren, hemen duzue Aldahitz Ikerketaren bigarren emaitza nagusia: *Ulerrizketa metodologia*. Eta, zorrionez, epe laburrean mahaiaren hirugarren hanka ere argitara emateko tenorean izango gara: *Uler-saioak metodologia*, hain zuzen. Hiru metodologia hauek argitaratuta ziklo bat itxi nahi genuke, erabileran finkatutako hiru harreman motaren inguruko zikloa, alegia. *Eusle metodologia*, elebidunen arteko harremanak gogoan izanik, hizkuntza-ohituraren inguruan dabilena. *Ulerrizketa metodologia*, elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko harremanak aintzat hartuta, hizkuntza-zailtasunak dituztenekiko euskarazko komunikazioa bultzatzeko helburuari heltzen diona. Eta, azkenik, *Uler-saioak metodologia*, elebidu-

nen eta erdal elebkarren arteko harremanei begiratuta, azken hauek denbora laburrean euskara uler dezaten (erdiko gaitasunarekin) xedeari eusten diona.

Ez genukeen lan hau egiterik izango, ondoan hainbat erakunde eta enpresaren babes eta lankidetzak izan ez bagenitu. Oso bereziki eskertu nahi genuke Aldahitz Ikerketaren partaide guztiek prozesu honetan egin duten ahalegin etengabea. Partaide horiek dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Emun Kooperatiba, Elhuyar Aholkularitza, AEK-Ahize eta Artez Euskara Zerbitzua. Era berean, gure esker ona adierazi nahi genioke EHUko unibertsitateari, ikerketaren zuzendaritza ardura hartu izanagatik. Ezin ahaztu ere Soziolinguistika Klusterreko arduradun eta teknikari guztiak, beti eskaini duten babesa eta sostengu etengabearengatik. Hango eta hemengo lantokietan esperientziak burutzeko prestutasuna erakutsi duten langile eta arduradun guztiak dira eraikin honen oinarri eta zutabeak. Ezin izango genuke eraikin hau inondik ere jaso beren parte hartzerik gabe. Agur beroa haientzat ere. Halaber, Imanol Irizar HABE liburutegiko arduradunari gorazarre egin nahi genioke errebisio bibliografikoan eman digun laguntza paregabearengatik. Denoi esker mila bihotz-bihotzez.

Beraz, irakurle estimatuak, hementxe duzue *Ulerrizketa metodologia* ulertzeko, antolatzeko eta gauzatzeko behar dituzuen osagai guzti-guztiak, maitasunez eta zehaztasunez atonduak. Zinez nahi genuke, gaizki esanak baztertuta eta ongi esanak zakuan ongi gorteta, lana zuen interesekoa gertatzea.

# 2.



## OINARRI TEORIKOAK

---

### 2.1.

#### Testuinguru soziolinguistikoa

Hizkuntza-sozializazioan jarri nahi genuke azentua oraingoan, eta hortik begiratu euskararen bizi-berritze prozesuari. Hizkuntza-sozializaziotzat ulertzen dugu, nolabait, prozesu bat non hizkuntza batek bereganatua duen gizarte eremu batean kide guztien arteko harremanak bideratzeko zeregina. Zereginaren hariak askotarikoak dira: hizkuntzazkoak, kulturalak eta gizartezkoak, besteak beste. Hala, hizkuntza batek pertsona guztien arteko komunikazio-jarioa bideratzeko baliagarritasuna bereganaturik, horrek, bizitasun horrek, berekin ohi dakar, gutxien-gutxienik, kideek hizkuntza-gaitasuna etengabe eguneratu eta berritu ahal izatea; kideek kultura erreferentziak eta pentsaera marko orokor batzuk partekatu ahal izatea; eta, orobat, kideek komunitate bateko partaide sentitu ahal izatea. Esan daiteke, laburrean, hizkuntza-sozializazioaren muina eta bihotza dela hizkuntzak eskumena edukitzea partaide orok elkar ulertzeko; hots: hizkuntzak funtzionaltasun komunikatiboa bere eskuko izatea. Funtzionaltasun komunikatiboa da hizkuntza-sozializazioa mugiarazten duen erregaia.

Fishmanek (1990) aipatu ez ezik azpimarratu ere egin zuen hizkuntza-berreskuratze prozesuetan gertuko gizarte eremuetan ematen den hizkuntza-sozializazioak izan ohi duen zentraltasuna. Azter ditzaun zertan diren hizkuntza-sozializazio-prozesuok, hiru harreman motaren argitan.

#### Erdal elebkarrekiko harremana

Diagnostiko laburrean: euskararen lurralde osoan euskarak ez du oraino eremu luze-zabaletan bere eskuko funtzionaltasun komunikatiborik. Aski da gutxi batzuek euskara ez ulertzea (baita bakar batek ere ez ulertzea) jada euskara, praktikan, “partaide orok elkar ulertzeko” zeregina bete ezinik ibiltzeko. Eta ez dira gutxi, alafede, euskararen lurraldean euskara ulertzen ez duten pertsonak: % 55,2k zehazki VI. Inkesta Soziolinguistikoaaren arabera (2016). Beraz, biztanleriaren erdiak deuseztatzen du, egitez, euskarak funtzionaltasun komunikatiboa izateko aukera bera ere. Bien

bitartean, inguruko erdarek, nork bere eremuan, frantsesak eta gaztelaniak guztiz bereganatua dute komunitatearen funtzionaltasun komunikatiboa, hutsik egin gabe gainera, partaide guztiek ulertu ez ezik, hitz egin ere egiten baitute. Estatus politikoaren ajeak, inondik ere. Ez dago parekotasunik funtzionaltasun komunikatiboa eskuratzeko lehian, gaztelaniak eta frantsesak (nork bere eremuan) delako lehia hori jokatzeko aukera duten bitartean, euskarak ez baitu aukerarik ere jokoan aritzeko. Lehiaren garbitasunaren ikuspuntutik, hizkuntza-berdintasunaren talaiatik alegia, komunitate osoa komunikatiboki uztartzea amets duten hizkuntzek gutxien-gutxieneko baldintza dute komunitateko kide guzti-guztiek hizkuntza lehiakideak ulertzea; hots, denak gutxienez elebidun hartzaile izatea. Gutxieneko puntu honetatik goraxeago izango litzateke kide guztiek delako hizkuntza horiek ulertu ez ezik, hitz egin ahal izatea ere; hots: denak elebidun aktibo izatea. Oso urruti dago euskara oraindik –aurrerapausoak eman diren arren- berdintasunetik; lekutan du, bistan denez, lehiakide gisa jokatu ahal izateko aukera bera ere. Gutxieneko baldintza (ulermen orokortua) urruti du euskarak; are urrutiago, baldintza hobetua (mintzamen orokortua).

Hizkuntza-trinkotasuna esaten badiogu eremu bateko kide guztiek delako hizkuntza hori ulertzeari, orduan trinkotasun horrek funtzionaltasun komunikatiboarekin lotura ezin estuagoa du. Euskararen kasuan, elebidunen kopurua eremu jakin batean altua izan arren, kide guztiek ulertzen ez badute eremuak jada ez du trinkotasunik: txikiak baina baditu zuloak eremuaren txalupak, eta ontzia hondoratzeko arriskua begi bistan uzten du. Euskaraz ulertzen ez duten horiek, gutxi izan arren, presente dira harreman guztietan, biko, hiruko, lauho eta enekoetan, eta horietan guztietan ezinezko egiten da euskara erabiltzea. Trinkotasunik ezean, euskarak ez du jariorik eremu osoan, eta ezin du funtzionaltasun komunikazioaz jabetu. Are gutxiago, euskara ulertzen ez duten horien hizkuntzek (erdarek) aldi berean ahalbidetzen badute kide guztiok elkarrekin ulertu ahal izatea. Beraz, gutxi batzuk izan arren, haien botere linguistikoa ikaragarria da. Horregatik, euskararen ulermen unibertsalak izan beharko luke, hutsik egin gabe, hizkuntzen arteko berdintasunaz hitz egiten hasi ahal izateko gutxieneko eskakizuna.

Hartara, ulermenari dagokionez euskarak lurralde osoan eremu trinkorik ez edukitzea da lehen mailako arazo soziolinguistikoa. Arazo honen testuinguruan kokatzen da *Uler-saioak metodologiak* egiten duen ekarpena.

## Euskaldun hartzaileekiko harremana

Beste ezpala bateko zura da, ordea, elebidun hartzaileena. Hauek ez dira oztopo, erdal elebakarrak diren bezala, haiekin euskaraz egin ahal izateko. Baina multzo honetako lagunak erdal elebakartzat hartu ohi dituzte elebidunek oso maiz. Jokaera soziolinguistikoa zabaldua da elebidunek erdara hautatzea eta erabiltzea solaskideari nolabaiteko hizkuntza-zailtasunik nabaritzean. Jakina: elebidun hartzaileek badituzte, nabarmen, halako kamustasunak eta zailtasunak. Areago: erdararako jauzia laster egin ohi dute elebidunek solaskideak erdaraz egiterakoan. Elebidun hartzaile gehienak, mintzatzeko zailtasunak edukita, ia automatikoki lerratzen dira erdararen aldera. Beraz, elebidunek, delako elebidun hartzaileekin erdaraz egiterakoan, uko egiten diote hizkuntza-sozializazioa euskararen bidez egiteari. VI. Inkesta Soziolinguistikoa araberan (2016), EAEko, Nafarroa-

ko eta Iparraldeko biztanle guztien % 16,4 da elebidun hartzailea, eta % 28,4 elebiduna. Hartara, ez dira gutxi bi multzoko kideen artean egunerokoa dauden harremanak. Erdararen aldera lerratu beharrean, lerratu ohi diren bezala, euskararen aldera makurtuko balira harremanak, nolabaiteko esparrua zabalduko litzateke euskararen erabilera handitzeko. Zabaltzea kuantitatiboki, agian, ez litzateke ikusgarri izango, baina bai ikuspuntu kualitatibotik begiratuta.

Izan ere, egun uste zabala dena gogoan hartuz; hots: eskolak ezin duela berak bakarrik eta bere indar hutsez elebidun orekatuak sortu, eta, hortaz, halako elebidun orekatuak sortuko badira, eskolaz gain eta harekin batera, gizabanakoek euskarazko sozializazioa bestelako gizarte eremutan ere bizi beharko dutela, hala nola, familian, lagunartean, kirolean, aisialdian, lantokian... Orduan, hortik berehala dator pentsatzea funtsezko garrantzi soziolinguistikoa duela, eta aurrerantzean are gehiago hartuko duela, elebidunek euskarazko hizkuntza-sozializatzailearen zeregina bere egiteak elebidun hartzaileekin harremanak izaterakoan. Errealitate hori areagotu egingo da, gainera, erdal elebakarren kopurua urritu eta elebidun hartzaileen kopurua lodituko den neurrian, espero izatekoa baita hezkuntza sistemaren berezko emaitzek horixe bera ekarriko dutela urteak pasa ahala.

Hizkuntza-zailtasunak dituztenekiko komunikazioa, eta halakoetan elebidunek hartzen duten hizkuntza-hautua oso arazo soziolinguistiko sentibera da, eta garrantzi estrategikoa duena. Galdera pare bat: Beharrezkoa al da elebidun hartzaileek euskaraz jarduteko zailtasunik ez edukitzea elebidunek euskaraz egin diezaieten? Baina nola arraio iritsiko dira elebidun hartzaileek euskaraz ongi jardutera baldin elebidunek euskaraz egiten ez badiete? Puntu estrategikoa honetan kokatzen da *Ulerrizketa* komunikazioaren estiloa. Badakar horrek kultura soziolinguistiko berri baten kimua. Kultura berri horretan, elebidunak honezkero beste begirada bat erabiltzen du elebidun hartzaileekiko. Orain, elebidun hartzailea da berari euskaraz egiteko aukera ematen dion pertsona, eta aukera hori benetan baliatzen du euskaraz egiteko. Elebidunak bere gain hartzen du hizkuntza-sozializatzailearen egitekoa. Badaki euskaraz egiterakoan, elebidun hartzaileek arian-arian hizkuntza-gaitasuna hobetuko dutela. Jakitun da ahaleginaldi bat pasa beharko dutela gerora euskaraz eroso aritu ahal izateko.

## Elebidunekiko harremana

Erdal elebakarrekiko harremanak aipatu ditugu, bai eta elebidun hartzaileekiko kontuak ere. Logika honen arabera azken puntua, beraz, elebidunen arteko hizkuntza-harremana izango litzateke. Ez gara orain barrunbe horietan barrena gehiegi sartuko, baina behintzat apuntatuta utzi nahi genuke auzia. Halako harremanetan, euskara erabiltzen ez bada ez da gaitasun faltagatik, erdal elebakarrekiko harremanetan bezala, edo zailtasunengatik, elebidun hartzaileekiko harremanetan bezala, ohitura faltagatik baizik. Ez da, hala ere, ohitura adigai ulertzea uste bezain erraza, bere baitan nahasten baitira, bateko, inertzia sozialak, eta, besteko, grina psikologikoak. Beste lan batzuetan tarte luzea eskaini diogu kontu honi (Jauregi eta Suberbiola, 2015), eta, horregatik, ez dugu gaia hemen sakonduko. Aipatzea besterik ez, testuinguru horretan sortu zela *Eusle metodologia*, hizkuntza-ohiturak iraultzea helburu zuela.

## 2.2.

## Ulerrizketaren muina

Gogoko dugu ulerrizketa hizkuntza-sozializazio esperientzia gisa ulertzea eta ikustea; hots, euskarazko komunikazioaren bidez, elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko hizkuntza-sozializazio gisa. Ikuspuntu horretatik, ulerrizketak, metodologia gisa, euskarazko komunikazioa azkar dezaketen bitartekoak eta jokabideak zehaztu egiten ditu. Harremanetan diren bi aldeek jarrera adostua bilatzen du. Oinarrizko eragiketak barneratzeko formazioa eskaintzen du. Eta hala, erraztasunak emanda, baldintza sozialak eraiki daitezkeela uste dugu gero eta jende gehiagok komunikazio estilo honen alde egin dezan.

Ulerrizketaren lehen zutabea da “*ele biko elkarriketak*”. Kide batek euskaraz egiten du, besteak ulertzen diolako. Beti ez bada ere, gehienetan egiten du euskaraz; joera nagusia, behintzat, euskaraz egitekoa da. Hala dihardu, baita solaskideak erdaraz egiten dionean ere. Euskararen erabilerari eutsi, berak eusten dio, hizkuntza-sozializatzaile gisa baitihardu. Beste kideak, ordea, euskara eta erdara tartekatzen ditu, ezin duelako elkarriketa arrunt bat euskaraz guztiz eraman, eta, are gutxiago, giroak estututa azkar eta zehatz hitz egin behar duenean. Gaitasun kontuak daude hor tarteko. Baina ez du nahi berak erdaraz egiteagatik solaskidea ere erdarara jauzteka, pasatzea edo makurtzea. Berak nahi du bere lagun kideak eutsi diezaion euskarari. Horrenbestez, badu ulerrizketak oinarrizko adostasuna: ele biko elkarriketak zilegi izatea beren arteko harremanean.

Bigarren zutabea da “*euskara ulergarria erabiltzea*”. Sozializazio prozesuek berezko ezaugarria dute kideek elkarrekin egoteko nahikunde bat, elkarrenganako hurbiltze bat, konbergentziarako joera bat. Hori dela eta, euskaraz egiteko erraztasuna duen aldeak edo pertsonak ahalegina egiten du hizkera bere kidearen hizkuntza-gaitasun mugatura sintonizatzeko (sinkronizatzeko, egokitze edo moldatzeko). Komunikazioa ahalbidetzen du horrek. Halako hizketa molde sinplifikatua edo moldatua erabiltzea guztiz ohikoa izaten da eremu naturaletako hizkuntza-sozializazio prozesuetan. Elkar ulertzeko gogo eta premia sakon horrek bultzatzen du sozializatzailea bitarteko sintaktiko, semantiko, testual eta pragmatiko ugari erabiltzera, komunikazio-helburua lortzearren. Modu batean ez bada, bestelako moduak bilatuko ditu, hizkuntza-malgutasunaz baliaturik, mezua kideari ulergarri egiteko.

Hirugarren zutabea, azkenik, “*egiaztatze jokabidea*”. Komunikazioa gertatzen ari den ala ez jakitea funtsezko zeregina da ulerrizketan. Sistema autonomo orok bere burua erregulatzeko mekanismoaren bat behar izaten du, uneoro sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa biltzeko (atzera-informazioa, feed-back). Hala, ulerrizketan kideek maiz egiaztatu behar izaten dute euskaraz esandakoa ongi ulertzen ari den ala ez. Zeren hala ez balitz, komunikazioa ziurtatzen ez duen hizkuntza-sozializazioak ezin bailuke luze iraun. Ikas-prozesuen berri duen orok ongi daki, jakin, egindakoaz atzera-informazioa jasotzea dela jardunbide arrakastatsuen giltzarrietako bat,

horrek aukera ematen baitie jarduleei okerrak zuzentzeko eta zuzenak indartzeko. Egiaztatzeak aukera ematen du jarduleek beren burua erregula dezaten, eta prozesuaren gaineko kontrola har dezaten. Honi esker, elkarrekiko hizkuntza-konfiantza eraiki dezakete. Konfiantza horrek eutsiko dio gero, modu naturalean, sozializazio-prozesu osoari.

Nahi genituzke, orain, hiru zutabe hauei lotutakoak zehatzago arakatu, soziolinguistikaren, psikolinguistikaren eta gizarte-psikologiaren aditu batzuen ekarpenak gogora ekarriz.

## 2.3.

### Ele biko elkarrizketak

#### 2.3.1.

#### Non-convergent discourse

Gilesen *Communication Accomodation* delako teoria ezagunak (Giles eta Ogay, 2007) konbergentzia eta dibergentzia terminoak ohiko bihurtu zituen psiko-soziolinguistikaren eremuan. Gilesek konbergentzia kontzeptuarekin adierazi nahi zuen elkarrizketako bi aldeek hizkuntza bera erabiltzen zutela euren arteko komunikazioan, eta, hortaz, seinale gisa har litekeela kideek hizkuntza elkarrengana hurbiltzeko erabiltzen zutela, nolabaiteko elkarrekiko erakargarritasun baten seinale. Dibergentziak, aitzitik, kideen arteko komunikazio eza erakutsiko luke, non kideek hizkuntza erabiltzen baitzuten beren arteko aldeak eta ezberdintasunak areagotzeko, nolabait elkarren arteko bereizketa edo urrutiratzea bilatuz.

Hala ere, hainbat soziolinguistikarrik ohartu zuen hainbat egoera soziolinguistikotan elkarrizketa berean kideetako bakoitzak hizkuntza bana erabiltzeak ez dela halabarrez eta ezinbestean dibergentziaren seinale, baizik eta komunikatzeko beste modu bat ere izan daitekeela eta bada, kideek elkarren hizkuntzak ulertzen dituztenean. Hitz gutxitan: kideek hizkuntza berean bat egitea (konbergentzia) ez da komunikatzeko modu bakarra. Bada ele biko elkarrizketen bidez komunikatzeko aukera ere. Bi eletako elkarrizketa mota horri “Non-convergent discourse” izena eman izan zaio (Jonkman, 1999).

Jonkmanen aburuz, ele biko elkarrizketak (“non-convergent discourse”) gertaera bereziak dira baina ez arrotzak hainbat eta hainbat egoera soziolinguistikotan. Aski arruntak dira, esaterako, kidesun handia duten hizkuntzetako hiztunen arteko harremanetan. Hala nola, Europa iparraldeko suediar, norvegiar edo daniarraren artean; edo latina oinarri duten hainbat hizkuntzetako hiztunen artean ere: esaterako, italiara, galiziera, katalanera, gaztelania, frantsesera edo errumaniera... hizkera duten hiztunen artean. Hizkuntza eslaviarrek eta germaniarrek ere norbere eremu



berezietan halako elkar ulertzeak bideratzen dituzte hiztunen arteko harremanetan. Horren ondorioz, hizkuntza-familia bakoitzaren barnean, hizkera desberdinetako kideek nork bere hizkeran hitz egin arren, elkar uler dezakete, eta, ondorioz, komunikatu.

Frisiako kasua aztertzen duela, Gortterrek (2001) dio ele biko elkarrizketak ('Everyone may speak his/her own language') aplikatzeko aukera ia erabateko dela, zeren bertako ia biztanle guztiak frisiara ulertzen dutenez, nahi duenak denbora osoan eta pertsona guztiak frasieraz hitz egin baitezake. Ohartarazten du, baina, jokamolde horri ez diola jende askok heltzen ("the rule of the right to speak their own language is only applied cautiously"). Jonkmanek Hizpide aldizkarian (1999) argitaratutako artikuluan zenbakia jartzen dio ideia horri. Hark emandako datuen arabera, % 22k erantzuten du frasieraz solaskidea nederlanderaz hitz egiten hasten zaionean. Ele biko jokamoldea, ikusten denez, ez da biztanleen artean orokortu, nahiz eta biztanle guztien % 94k frisiara ulertu. Baina ez da, horregatik, % 22ko portzentaje horren garrantzi kualitatiboa zertan gutxietsi, zeren horrek behinik behin adierazten baitu hizkuntza-sozializazioaren partida jokatzeko hasiak direla (gurean oraindik partida hasi gabeak gara, eta entrenamenduetan gabiltza), partida aurrera ateratzea zaila badute ere.

### 2.3.2.

## Hizkuntza-simetriarako joera

Badira indar handiak ele biko elkarrizketak zail bihurtzen dutenak. Haietako bat da hizkuntza-simetriarako joera. Berezko orekatze prozesu bat da, non elkarrizketako aldeek hizkuntza berean bat egitera jotzen baitute berezko indarrez, horretarako aukera izanez gero. Mundu fisikoaren analogiaz esan genezake likidoek ere ontzi komunikatuetan daudenean halako oreka puntu bat bilatzen dutela. Likido gehiago eransterakoan, ontzi guztietan barrena sakabanatuko da, berdin izanik bakoitzaren forma eta bolumena nolakoa den. Ontzi guztietan maila bera eskuratu arte likidoaren mugimendua izango da, baina behin oreka (edo simetria) puntua lortuta, mugimendua gelditu eta egoera egonkortu egiten da.

Komunikazioaren beharrak bultzatzen du orekatze prozesua, eta kalkulu energetiko pragmatiko batek (gehienetan modu ez kontzientean gertatzen dena) hautatzen ditu eskura dauden aukeren artean helburura errazen eta zuzenen garamatzaten bideak.

Agian hizkuntza-simetriarako joera horrek oinarri neurobiologikoren bat eduki lezake. Aieru gisa esan liteke ezen hizkuntza baten entzuteak lehenago eta bizkorrago kilikatzen dituela norberarengan hizkuntza horri lotutako neurona zirkuituak eta oroimen mekanismoak, barnean eduki dezakegun beste hizkuntza bati lotutako sareak baino. Hala balitz, hizkuntza batean entzundakoak errazago piztuko lituzkete hizkuntza bereko erantzunak beste hizkuntza batekoak baino. Erraztasun horrek lehentasuna emango lioke prozedura horri kalkulu energetikoa egiterakoan.

Aurrekoak aieruak besterik ez dira, baina alderdi psiko-sozialari begirada emanez gero, argi eta garbi antzematen dira nondik eta zergatik sortzen diren hizkuntza-konbergentziarako indarrak. Besteengandik onarpena edo oniritzia jasotzeko nahia izan liteke konbergentziara bultzatzeko arrazoi handienetako bat. Beteta dago psikologiaren literatura honi buruzko aipamenez. Ikuspuntu ebolutibotik, hainbat egilek (Maturana eta Dávila, 2008) defendatu izan du gure giza-linajearen sorburuan badagoela gizarte-bulkada funtsezko bat, besteak elkarbizitzan onartzera bultzatzen gaituena. Hizkuntza ere, eta hizkuntza-konbergentzia bereziki, gizarte-bulkada honen zati esanguratsua izango litzateke. Hizkuntza-konbergentzia, komunikazioaren eraginkortasuna hobetzeaz gain, hainbat faktore psiko-sozialekin izan da lotuta, hala nola, besteen jokaera iragartzeko aukerak handitzen ditu, ingurune seguru eta antsietate gutxikoa sortuz, eta, era osagarrian, elkarrekiko ulermena (ez soilik linguistikoa) hobetzen du (Gudykunst, 1995). Hizkuntza-jokaera gero eta antzekoagoa egiteak handitu egiten du jarduleek elkarrekiko duten erakargarritasuna, eta, era berean, bizkortu egiten ditu haien arteko onarpena eta elkarlana (Buller, LePoire, Aune, eta Eloy, 1992). Uste izatekoa da errazago onartzen direla hizkuntza beraren inguruan bateratzen diren jokabideak, hizkuntza-dibergentzia sortu eta hari eusten diotenak baino, kontsideraturik jokaera konbergenteak, aldeztu, komunikazioari begira eraginkorragoak direla, eta, aldeztu, jokaera sozialari begira kooperatiboagoak.

Nolanahi ere, zerrendatu berri ditugun hizkuntza-simetria edo konbergentziarako indar horiez gain, ulerrizketaren kasuan bezala, proposatzen ari garenean ele biko elkarriketa bat egitea, bi hizkuntza horietako bat hizkuntza gutxitua –edo sozialki ahula– denean (euskara), derrigor hartu behar dugu kontuan zein den gizarte horretan bi hizkuntza horien egoera.

Are gehiago, proposatzen ari garenean aldaketa bat, erdaran (alegia, sozialki nagusi den hizkuntza) finkatutako konbergentzia egoera batetik, euskara (hizkuntza gutxitua) ardatz izango duen dibergentziatzeko solas baterantz doana. Ez da ahaztu behar halakoetan, hizkuntzen balio sozialari eta posizioari dagokionean, hitz egiteko modu guztiak ez direla berdin baloratuta egoten gizarteko testuinguru jakin batean. Hitz egiteko modu batzuk hobeto baloratuta daude (ospe hobe dute, eta abar) eta beste batzuk, gutxiago (Bourdieu, 2008). Ildo beretik, hizkuntza ahularen aldeko erabileran pauso bat egitea, hobeto edo okerrago baloratua egon daiteke testuinguru eta une sozial ezberdinetan. Bitartean, hiztunok, gehienetan inkontzienteki, beti saiatzen gara, eskura dugun hizkuntzen errepertorioaren mugen barruan, ahalik eta onurarik handiena ateratzen gure komunikazioei.

Horrek esan nahi du, gorago konbergentziaren aldeko indarrez aipaturikoez gain, ulerrizketa bezalako metodologia bat egingarria izan dadin, parte hartuko duten hiztunen hautematearen arabera, haiek ez dutela, nolabait esan, “galtzen” atera behar euskarazko dibergentzia horretan aritzeko ahalegina egiteagatik. Edo beste era batera esanda, sumatu behar diotela saiakera horri nolabaiteko onura (pertsonala edo soziala). Beste hitz batzuetan, saiakera horrek izan behar duela haientzat garrantzia edo zentzua, edo/eta haien ingurune sozialean halako pauso batek izan behar duela nolabaiteko balio erantsia (sinbolikoa, praktikoa edo beste modu batekoa). Hala ez balitz, gorago aipatutako konbergentziarako indarrei batuko litzaioke jokoan dauden bi hizkuntzen balio

sozialaren aldagaia, hizkuntza ahulera (euskarara) bidean eman daitekeen dibergentzia ariketa bat, ulerrizketan proposatzen duguna, adibidez, are zailago bihurtuz.

### 2.3.3.

## Onartutako asimetria eta disonantzia kognitiboa

Energia ekarpen batek, ordea, galga lezake simetriarako berezko joera. Beherako joera duenari energia gehituz gora eraman daitekeen bezala, halaber simetriarako joera gelditu eta egoera asimetrico batera eraman ere egin daiteke sistemari energia erantsiz gero. Hainbat osagai psikologiko, ideologiko eta sozialek betetzen dute energia hornitzearen funtzioa.

Hizkuntza-ohitura aldatzea jokabide hauslea da, hizkuntza-jokaera dibergente eta asimetricoa den bezala. Hizkuntza-dibergentziak (ele biko elkarrizketak) balio baikorra edo balio ezkorra izan ditzake, hala dibergentzia-sortzailearentzat nola dibergentzia-jasotzailearentzat. Ikusi behar da zer asmo egotzen zaion kideari, zer talde-identitate daukaten kideek, zer garrantzi duen hizkuntza-sentimenduak norbere identitatean, zer mundu eta gizarte ikuskera duten kideek, zer joera pertsonala duten kideek aldaketei egokitzeko, zer nolako jarrera daukaten kideek zailtasunei aurre egiteko. Ez dira hauek aipa daitezkeen aldagai guztiak. Baina, zerrenda labur horrek bere hutsean ere adierazten du askotariko fenomeno dinamiko eta konplexu baten aurrean gaudela, eta ez direla errazak izango erantzun sinpleak. Aldagai hauek guztiak beren artean txirikordatzen dira erantzun desberdinak mamitzeko, eta txirikordatze horiek aldi berean ematen dira eremu pertsonalean, pertsonen artekoan, eta gizarte mailakoan.

Jokabide hausle eta urratzaileek –hitzek adierazi bezala- aurreko egoera sendo, eroso eta orekatuak hausten eta urratzen dituztela dirudi. Eta ez irudi soilik, benetan irauli egiten baitituzte egoera finko eta egonkorak. Horregatik, bakea aztoratzera datozelako, jokabide urratzaileak bere izatearen arrazoia azaldu beharrean izaten dira; nolabait, beren burua zurutu, eta argudioz eta azalpenez bete beharrean dira. Bien bitartean, badirudi ohiko jokabideek ez dutela halako azalpenen beharrik, jokaera “naturalak” eta “begi bistakoak” direla kontsideraturik.

Maila horretan, azpimarratzekoa da jokabide hausleek behar handiagoa izaten dutela euren arrazoiak eta zertarakoak azaltzeko. Izan ere gizartean errotuta eta egonkortuta dauden jokabideen kasuan ez da beharrezko izaten haien “zilegatasuna” eta “zentzua” azaltzea, aldez aurretik esku-ratzen baitituzte horiek jendearen buru-bihotzetan. Alde horretatik, gizarteko arau inplizituak urratzen dituzten jokaerak edo praktika sozial berriak proposatzera gatozenez (izan hizkuntza jokaeratan, edo izan bestelakoetan) jokaera aldaketa horrek arrakasta izan edo ez gako nagusietako bat haren inguruan antolatzen den “zentsugintza” da (Apodaka, 2013). Alegia, praktika berri batek gizartean arrakasta izan edo ez, praktika horren nolakoaren baitan adina egongo da praktika horri ematen zaion (edo gizarte hartzen duen) zentzuan. Ideia hau ulerrizketa metodologiara

ekarriz, beraz, halako jokaera urratzaile batek arrakasta izateko, beharrezkoa izango da esanahi sozial egoki bat ematea, edo egoerak eskatzen duen neurriko “zentsugintza” lan bat egitea.

Ulerrizketa metodologiak jokabide urratzaile ugari planteatzen dizkie jarduleei (erdatatik euskararako jokaera aldatzea, ele biko elkarrizketei eustea, hizkera moldatzea...). Eta zentsugintza abiatu gabe nekez egin lezake aurrera halako eskakizun handiak. Zentsugintzari lotutako urratsak dira, besteak beste, informazio eta azalpen prozesu guztiak, formazioa saioak, eta, ororen gainera, kideen arteko negoziazioa eta adostasuna. Ulerrizketa metodologiak kideen esku uzten du determinatzea jokabide berria (dibergentzia, urratzailea...) gauzatzeko baldintza subjektibo egokiak dauden ala ez. Adostasun horrek aldarazten dio hizkuntza-asimetriari balizko adiera ezkorra, eta jada ez da disonantziaren sortzaile, baizik eta kontsonantzia (konbergentzia, simetria) berri baterako akuilu; hots: egoera desiragarri batera iristeko ezinbestean pasa beharreko deserosotasun aldi iragankorra.

## 2.4.

### Hizkera ulergarria

Ulerrizketak parte hartzaileei eskatzen die dibergentzia moduko bat (ele biko elkarrizketetan aritzeko prest egotea) eta konbergentzia puntu bat (hizkuntza-sintonizazioan etengabe aritzea elkarri ongi ulertzeko). Hizkera ulergarria erabiltzearena ongi ikertutako jokaera izan da jakintza eremu desberdinetan.

#### 2.4.1.

### Kode sinpleak: foreigner talk

Kontzeptu honek aditzera ematen du hizkuntzaren bertsio sinplifikatu bat, zeina batzuetan jatorrizko hiztunak erabiltzen baitu ez-jatorrizko hiztunarekin komunikatu ahal izateko. Bada halakoa hizkuntza-konbergentziaren kasu nabarmena, non jatorrizko hiztunak murriztu egiten baitu bere ohiko hizkuntza-erregistroa entzulearen hizkuntza-gaitasunera egokitu nahian, ulermena erraztu ahal izateko.

Soziolinguistikaren hastapenetik ezaguna da kontzeptu hau, Charles A. Ferguson diziplina horretako aitzindarietako batek XX. mendeko 70eko hamarkadan kontzeptuari izena eta izana eman zizkionetik (Ferguson 1971, Ferguson 1975). Harrez geroztik, hizkera mota horri lotutako ikerketek ildo emankorra osatu dute hainbat diziplinetan.

Rod Ellisek (1997) honako lau puntu hauetara ekarri zituen delako atzerritar hizkera horren ezaugarri nagusiak: 1) halako hizkera batek nahita mantsotzen du hizketaren erritmoa, 2) erabile-ra zabaleko hitzak eta egitura sinpleak (menpeko esaldiak saihestuta) lehenesten ditu, 3) nahiago ditu osoki ahoskatutako hitzak kontrakzioak baino, eta 4) diskurtso “elaboratuak” egiten ditu esanahia argiago egiteko (batzuetan honek dakar diskurtsoa luzatzea, ideia bat azaltzeko ohi baino esaldi gehiago erabili behar baititu hiztunak)<sup>2</sup>.

Lehenengo ikerketek arreta gunea hizkera mota honen azterketa linguistikoari eskaini zioten, eta, oso bereziki, halako kode baten sinpletasunari eta haren deskribapenari (Gaies, 1977; Hatch, 1978; Chaudron, 1979). Geroago, Stephen Krashenek (Krashen, 1980) azpimarratu zuen kode sinpleen balioa sinpletasunean bertan baino gehiago esanahiaren ulergarritasuna errazteko zuten ahalean zetzala. Hala, Komunikazio-estrategiatzat har liteke kode sinplea erabiltzea, zeina jatorrizko hiztun batek erabiltzen baitu mezuaren ulergarritasuna ziurtatzeko. Ikuspuntu horretatik, kode sinplea korpus egonkor baten gisa baino gehiago, jarduera dinamikotzat har liteke, harremanean etengabe aldatuz doana, zeren ez-jatorrizko hiztunak ulertzeko gaitasuna hobetu ahala jatorrizko hiztunak ere gorago eramaten baitu darabilen hizkuntza-erregistroa. Nolabait, bi solaskideek batera egiten dute aurrera: batak ulermena hobetuta, eta besteak erregistro maila jasota eta altxatuta. Elkarrekiko egokitze horretan ulergarritasunak du giltza. Harrez geroztik, kode sinpleaz baino gehiago kode ulergarriaz (input ulergarriaz) hitz egiten dugu. Egun, input ulergarriaren adigai, ñabardurak ñabardura, psikolinguistika adituen artean adostasunik handienetariko biltzen duen adigai funtsezkoa da.

Gaur egungo ikerketa gehienak elkarrizketaren jardunean bertan ari dira arreta jartzen, hizkuntza-inputaren azterketan soilean baino gehiago (Long, 1983; Varonis eta Gass, 1985; Pica, 1989; Doughty, 2000; Brown, 2006; Mackey, 2007). Hau dela eta, bereziki Michael Long-ek emandako bultzadari erreparatu behar zaio. Haren aburuz, ulergarritasuna ez dagokio soilik hiztunaren mintzaldiari, baizik eta elkarrizketa kideek elkar hartuta esanahia negoziatzeko egiten duten ahaleginari. Elkarren arteko elkarrekintza horri esker, argitu egiten dira gaizki ulertutakoak, egiaztatzen dira ustez ulertutakoak, hobeto ulertzearen hainbat pasarte errepikatu egiten dira edo itzulinguruen bidez bestela adierazten dira, hizkera erregulatzeko eskaerak egiten dira, eta abar. Ez da hizkera soilik sinplifikatua, moldatua edo egokitua esanahia hobeto ulertu ahal izateko, baizik eta elkarrizketa bera gertatzen da moldatua eta egokitua. Garapen horri arreta berezia emango diogu “egiaztatzeko jokabideari” eskainitako atalean.

Rochek (Roche 1998) foreigner talk kontzeptu zaharraren ordeztan, *xenolekto* adigai berria erabili zuen. Eta ordura arteko bilakaera guztia bildu nahian, honako ezaugarri fonologiko, morfo-sintaktiko, semantiko, diskurtsibo eta interaktibo hauek zerrendatu zituen, kontzeptuaren aberastasunaren erakusgarri.

2 Guk honi ulerrizketan “esaldi laburren kateamendu luzea” deitu diogu, eta ideia konplexuak edo esaldi korapilatsuak (informazio ugari daukatenak) modu ulergarrian adierazteko lehenetsi dugun estrategietako bat da.

### • *Ezaugarri fonologikoak*

- Hitzen arteko geldiuoneak, bereziki hitzik garrantzitsuenen aurretik
- Ohi baino isilune luzeagoak esaldien artean
- Ohi baino abiadura motelagoa
- Doinua puztu
- Ozenago hitz egin
- Forma osoak maizago erabili eta uzkurdurak saihestsi
- Argiago ahoskatu

### • *Ezaugarri morfo-sintaktikoak*

- Esaldiak motzagoak (hitz gutxiago esaldiko)
- Hitzen ordena estandarizatua erabili, modu erregularrak bilatu
- Menpeko esaldien ordezkari koordinazio esaldiak nahiago
- Esaldiak hasi eta bukatu gehiagotan
- Galderak gehiagotan, eta bereziki
  - Bai-ez galderak gehiagotan/galdegaien bidezko galderak gutxiagotan
  - “Hau edo bestea” tankerako galderak gehiagotan
  - Doinu bidez soilik markaturiko galderak gehiagotan
- Aditzaren orainaldiko formak gehiagotan

### • *Ezaugarri semantiko eta lexikalak*

- Lexiko mugatua
- Edukia duten hitzak oso maiz/loturazko hitzak gutxiago
- Izen eta aditzen maiztasun handia
- Parafraseak, formulazio alternatiboak eta errepikapenak oso maiz
- Lokuzioen erabilera gutxiagotan
- Askotan osagai deiktikoak erabili (esanahia testuinguruari lotuta)
- Hizkuntza desberdinek konpartitzen dituzten hitzak erabili maiz

### • *Ezaugarri diskurtsiboak*

- Mintzagai motak murriztago
- Gai nabarmenak aukeratzeko joera
- Gaien tratamendua arinago eta motzago
- “Hemen eta orain” tankerako gaiak lehenetsi

### • *Elkarrekintzaren egitura*

- Anbiguotasuna hobeto onartu, eta baita ere mintzagaien bat-bateko aldaketak
- Maizago ez-jatorrizko hitzunen ulertzearen monitorizazioa

- Ulertutakoari buruzko galderak gehiagotan
- Egiaztatzeko saioak gehiagotan
- Argitzeko eskaerak gehiagotan
- Norbere ulermena ziurtatzeko saioak maizago
- Errepublikapena gehiagotan (norberaren edo bestearen adierazpena, zehatz edo orokor, osoki eta zatiak)
- Keinuak eta mimika gehiagotan

Zerrenda zehatz honek balio beza kode sinplea adigaiaren atzean dagoen eremu joriaz ohartzeko. Ulerrizketarako bertsio murrizt bat erabiliko dugu, gure ustez funtsezkoak diren osagaiez soilik hornituta. Zeren gauza bat baita azterketa akademikoa eta beste bat haren aplikapen praktikoa, ezinbestean osagai didaktikoa duena.

## 2.4.2.

### Beste kode sinple batzuk: baby talk eta teacher talk

Badira, izan, beste kode sinple batzuk literatura espezializatuan ongi identifikatuak izan direnak. Haietako bat da helduek haurrekin erabiltzen duten hizketa moldea: *baby talk* izenekoa; eta bestea, hizkuntza irakasleek beren ikasleekin eskola kontuak kudeatzeko erabiltzen dutena: *teacher talk*. Ugari dira atzerritar hizkerarekin bi kode hauek dituzten antzekotasunak, baina badira kontuan hartzeko alde batzuk ere.

Baby talk hizkerak ere, edozein kode sinpleren antzera, helburu du komunikazioa hobetzea solaskideetako batek hizkuntza erabiltzeko gaitasun mugatua duenean. Partekatzen ditu beste kode sinpleekin ezaugarri linguistiko eta komunikatibo gehienak, hala nola: erritmo mantsoa, doinuaren bidezko marka puztuak, ahoskera garbia, sinplifikazio morfo-sintaktikoak, eta antzekoak. Hala ere, haur hizkeran galderak eta aginduak gehiagotan erabiltzen dira atzerritar hizkeran baino. Baina hori ez da harritzekoa, zeren haur hizkeraren helburuetako bat baita haurren jokamoldea gidatzea, eta, ordea, atzerritar hizkera erabiltzerakoan nagusiki informazioa eta iritziak trukatzeko erabiltzen baita. Besterik da haur hizkerak duen murrizketa espazio-tenporala: “hemen eta orain” estiloko elkarrizketak nabarmen-nabarmen nagusitzen dira. Atzerritar hizkeraren kasuan mintzagaiek tarte zabalagoa izan ohi dute, helduen arteko komunikazioak aukerak ematen baititu iraganaz eta etorkizunaz gehiago hitz egiteko.

Irakasle hizkerak (teacher talk) aurreko bi kodeen sinplifikazio linguistikoa bera darabil, baina badu aldi berean haiekiko alderik, eskolako giro sozialak agintzen duen zereginari atxikita. Hasteko, sarriago ematen ditu irakasle hizkerak azalpenak eta argibideak aurreko hizkerak baino. Irakasleak ariketak kudeatzeko eta hizkuntza-azalpenak emateko erabiltzen duen hizkera motarekin estuki loturik ageri zaigu. Bestalde, ikerlariek antzeman dute irakasleek bere burua gehiago

estutzen dutela hizkeraren gramatikaltasuna (zuzentasuna) zaintzeko, helduek atzerritarrekin edo gurasoek haurrekin jarduterakoan baino. Ingurune naturaletan, ordea, atzerritar hizkera erabiltzerakoan ez da hain nabarmena zuzentasun gramatikalarekiko eskakizuna. Maizago antzematen dira arau gramatikalak hausten dituzten adierazpideak.

Begi bistakoa da hizkera sinpleok, aurren-aurrena, eta ororen gainetik, komunikazioa dutela zeregin eta xede. Hala, komunikazio-xedeak eskuratzeko, ezinbestean behar du mintzatzaileak ziurtatu mezua ulertuko duela ulertzaileak. Atzerritar hizkerarekin informazio-trukea bilatzen du gehien-gehienik mintzatzaileak. Haur hizkerak laguntzen dio mintzatzaileari haurren jokabidea gidatzen eta gobernatzen. Mintzatzaileak irakasle lanetan dabilenean eskolako jarduera kudeatzea izango du helburu, eta irakasle hizkera lanabes. Eta komunikazio-xedeak eskuratzeko garrantzitsua izanagatik ere, ez da horregatik txikiagoa hizkera moldatuek jasotzailearengan ere duten eragina eta duten balioa. Eta hala, hizkera moldatuek hizkuntza-elikagaiez hornitzen dituzte ulertzaileak arian-arian hizkuntzaren jabe egin daitezten. Beraz, hizkuntza-sozializatorako funtsezko tresnak dira hizkera moldatuak, haiek hitzunen eta hitzun-gaien arteko komunikazioa ziurtatzen dutelako batetik, eta hitzun-gaien hizkuntza-gaitasuna hobetzen dutelako bestetik.

### 2.4.3.

## Hizkera ulergarria eta hizkuntza-jabekuntza

Agerikoa da hizkera ulergarriak elkarrekiko egokitzapena gertatzeko duen egitekoa. Hari esker, kideek hizkuntza-gaitasun desberdina eduki arren, komunikazioan ari daitezke. Kide batek hizkuntza-gaitasun mugatua edukitzea ez da orduan oztopo elkarrekintza soziala bete-betean eman dadin.

Hala ere, azpimarratu egin dugu gizarte-egokitzea ez dela kode sinpleen onura bakarra. Bada besterik, eta ez munta txikikoa gainera. Kode sinpleen hizkera ulergarriak funtsezko egitekoa du hizkuntza-sozializazioan, eta, beraz, hizkuntza-gaitasuna garatzeko prozesuan. Eta hala gertatzen da lehen hizkuntzaren nahiz bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren joan-etorrietan. Hizkera ulergarriaren garrantzi psikolinguistikoa, oroz gain, S. Krashenek formulatu zuen aspalditxoan (Krashen, 1980; Krashen 1985). “Input hipotesia” izenarekin ezagutzen da psikolinguistika alorrean, eta, Polaten iritziz (Polat, 2016), psikolinguistika alorrean eraginik handienetakoa duen eta, seguru asko, bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesua ulertzeko osoen eta esplikatiboen den hipotesiak jarraitzen du izaten egun ere. Input hipotesia edo *comprehension* hipotesia izenekoak (Krashen, 2003) baieztatzen du bide bakarra dagoela hizkuntzaz jabetzeko eta hori da mezuak ulertzea. Hizkuntzaz jabetzen gara, beraz, entzuten edo irakurtzen duguna ulertzen dugunean. Hizkuntzaz jabetzea (*acquisition*) prozesu subkontzientea da, non hizkuntza-informazioa prozesatzen baita gehienbat gure kontrol kontzientetik kanpo. Jabekuntza prozesu hau bereizi behar da beste prozesu batetik (*learning* izenekotik), zeinaren arabera hizkuntza-informazioa modu kontzientean prozesatzen baita argudiaketa, dedukzioa eta indukzioa prozesu kognitiboen bidez. Kode sinpleek,



mezuen ulergarritasuna bilatzen duten neurrian, funtsezko funtzioa betetzen dute hizkuntza-sozializazioan, hizkuntzaz jabetzeko prozesua bizkor elikatzen baitute.

Murgiltzen garenean hizkera ulergarria duen gizarte-elkarrekintzetan, han dira beti osagai linguistiko, komunikatibo eta pragmatiko ugari laguntzen dutenak elkar ulertzea eta ulertzaileek hitz, espresio eta forma berriak jaso eta uler ditzaten. Aukera izaten da, orduan, osagai zaharren eta berrien arteko uztardura egiteko, eta jabetzaren prozesua aurrera eramateko. Krashenen ikuspegi honek antz handia du psikologian eta hezkuntza alorrean hain itzala handia eskuratu duen ikuspuntu kontruktivistarekin (Vygostky, 1962). Giza ikaskuntzaz orokorrean hitz egiten zuela, Vygostkyk zioen ikastea funtsean prozesu soziala dela (sozializazioa), non gaitasun txikiko eta gaitasun handiko kide batzuek elkarrekintzan baitihardute, azken hauen gidaritzapean eta laguntzarekin (sozializatzailearen egitekoa hartuta). Horren arabera, bi osagaien arteko elkarreaginak esplikatu luke giza ikaskuntza: gaitasun txikiko batek ulertzeko egiten duen ahaleginaren eta gaitasun handiko batek laguntza edo sostengu egitura<sup>3</sup> baten bidez ulertarazteko egiten duen ahaleginaren arteko joan-etorria, hain zuzen.

Beste inork baino hobeto, Jerome Bruner psikologo kognitibista handiak (Bruner, 1990) garatu zuen sostengu egituraren ideia vygostkiarra, lehen hizkuntzaren jabetzaren prozesuari aplikatuta. Chomskyren ekarpena bere eginda, onartu zuen haurrek badutela hizkuntzaz jabetzeko berezko mekanismo biologikoa (ingelesez LAD akronimoarekin ezagutzen dena, eta euskaraz “Hizkuntzaz Jabetzeko Mekanismoa” esan dezakeguna). Hori emanda, Brunerrekin azpimarratu zuen berezko mekanismo horrek ez lukeela funtzionatuko, aldamenen izango ez balu sostengu egitura sozial bat, helduek prestatuta eta gidatuta, hizkuntzaren jabetzari testuinguru komunikatiboa emateko. Egitura horri deitu zion Hizkuntzaz Jabetzeko Mekanismoaren Sostengu Sistema (ingelesez LASS akronimoarekin ezagututa). Sostengu egitura horren osagaitzat har zitezkeen, besteak beste, eguneroko elkarbizitzaren errutinak, funtzio komunikatiboa duten soinuak hitz eta esaldi bihurtzeko laguntzak, jolasen errutina errepikakorrak, eta, azkenik, kode sinpleen erabilera.

Halako Sostengu Sistema baten azterketan, bigarren hizkuntzaren jabetzari aplikatuta, aritu da azken urteotan aditu ugari. Lehenengo ikerketek bereziki kode sinpleen azterketa linguistikoari heldu bazioten ere, azken garapenak alderdi interaktiboak azpimarratu dituzte bereziki; hau da: elkarriketaren beraren egitura aztertzea izan dute helburu, ezagutzeko jarduleak elkarri nola moldatzen eta egokitzen zaizkion elkar uler dezaten. Ulertzea ez baita gaitasunaren emaitza hutsa (ulertu den edo ez den ulertu), ulertzea bada jarduleek elkarrekin eraikitzen duten prozesu bat ere, prozesu bat non esanahia elkarrekin negoziatzen duten. Parte hartzaileek elkar hartuta egiten dute ulermenaren bidaia. Gaitasun handiko kideak gaitasun txikiko kideari sostengu egitura komunikatibo bat ehuntzen dio, honek uler dezan, gero eta gehiago uler dezan. Gaitasun txikiko

3 Laguntza edo sostengu egitura kontzeptuarekin adierazi nahi dugu gaztelaniazko literaturan “andamiaje” hitzarekin adierazten dena, edo haren kidea den “scaffolding” ingelezko literaturan. *Scaffolding* kontzeptua, egun, oso ohikoa da psikolinguistika argitalpenetan, bereziki elkarrekintza eta esanahiaren negoziazioa hizpide hartzen duten egileen eskutik.

kideak, bere aldetik, aktiboki dihardu, ulermena egiaztatzen eta argitzen duelarik, bai eta bere burua linguistikoki adierazten ere.

Mezuak ulertzea da, orduan, hizkuntzaz jabetzeko mekanismo nagusia (bakarra Krashenen aburuz). Hortaz, komunikazioa eta hizkuntzaren jabeakuntza batera doaz. Komunikazio fenomenoak, ordea, ez dira normalean elkarrekintza sozialetatik aparte gertatzen. Komunikazioa pertsonen arteko elkarrekintza da, usu elkarrizketa formatuan ematen dena. Halakoetan, gaitasun handiko kideek hizkera ulergarria erabiliz bizkortu ohi dute gaitasun txikikoen hizkuntza-jabeakuntza prozesua.

#### 2.4.4.

---

## Komunikazio-estrategiak

Komunikazio-estrategiarena psikolinguistikaren alorrean ongi finkatutako ikerketa eremua da. 80ko hamarkadan bizi abiatu eta 90koan bere onena eman zuen. Harrez geroztik, ez dugu ekarpen esanguratsurik sumatu.

Bereziki zentratzen da komunikazio-arazoak kudeatzeko, gainditzeko edo konpontzeko gaitasun txikiko hiztunek erabiltzen dituzten estrategien azterketan. Fokua oso nabarmen jarrita egon da urteak joan eta urteak etorri ikasleen hizkuntza-ekoizpenean (mintzamenean), trebetasun hartzaileen azterketa (ulermenarena) gutxi garatua izan den bitartean. Kontzeptuak presentzia handia eskuratu zuen Canalek eta Swainek (1980) konpetentzia estrategikoa konpetentzia komunikatiboaren osagaietako bat zela aldarrikatu zutenean, konpetentzia gramatikarekin, konpetentzia diskurtsiboarekin eta konpetentzia soziolinguistikoarekin batera. Beranduago, Bachmanek (1990) azpi-konpetentziok banan bana hartu beharrean are gehiago uztartu zituen beren artean. Haren arabera, orduan, konpetentzia estrategikoa litzateke pertsona batek daukan gaitasuna komunikazio-helburu bat erdietsi nahi duenean bitartekorik eraginkorrenak aukeratzeko. Beste hitz batzuetan esanda: konpetentzia estrategikoa litzateke hiztun batek modu malgu eta sortzailean erabiltzea eskura dituen bitarteko linguistiko, diskurtsibo, soziolinguistiko eta ez-linguistikoak (ez hitzezko komunikazioaren bitartekoak, alegia) komunikazio-helburu jakin batzuk lortzeko. Komunikazioaren plastikotasuna edo malgutasuna zuen oinarrian ikusmolde honek.

Definizio hau ez zaigu iruditzen hizkuntza ikasleei baizik aplikatu dakiekeenik, zeren konpetentzia komunikatiboa edozein hiztunari baitagokio, gaitasun txikikoa izan edo gaitasun handikoa izan. Hizkuntzaren eta komunikazioaren erabilera malgu eta estrategikoa mota guztietako hiztunei dagoen konpetentzia da. Areago, konpetentzia estrategikoa ez da, berez, komunikaziori ez besteri aplikatzen zaion konturik. Besterik da, eta orokorragoa den “arazoak konpontzeko gaitasunaren” kasu partikulartzat har daiteke.

Kontuak horrela, lizentzia hartuko dugu literatura espezializatuan gaitasun txikiko ikasleen Komunikazio-estrategiei buruz esaten direnak gaitasun handiko hiztunei aplikatzeko, alderaketak

behintzat horretarako aukera ematen duenean. Izan ere, antzekoak izan baitaitezke ikuspuntu kualitatibotik gaitasun txikiko hiztun batek adierazpen egokiak bilatzeko duen eta gaitasun handiko hiztun batek gaitasun txikiko batekin aritzean adierazpen egoki eta ulergarriak aurkitzeko dituen zailtasunen artean. Bestalde, azterketa sakon batek agerian utziko luke antzekotasun handiak daudela jatorrizko hiztunek kode sinpleak hartuta (*foreigner talk*, *baby talk*, *teacher talk*) egiten duten moldaketa estrategikoaren eta ikasleek beren burua adierazteko erabiltzen dituzten jokaera estrategikoen artean.

Halako komunikazio-estrategien zerrenda asko eman izan dira, eta denak ez dira beti konbergenteak izan. Taronek (1980) estrategia kooperatiboetan zentratutako sailkapen interesgarria eskaini zuen. Færchek eta Kasperrek (1983), beren aldetik, arreta handiagoa eman zieten arazoak konpontzeko jokabide indibidualei. Jakina, agerikoak dira sailkapen hauen arteko aldeak.

Váradiren ikuspuntua (1983), ordea, hartu nahi genuke hizpide hemen, aztertutako eredu guztien artean berorri antzeman diogulako edozein hiztun motari aplikatu dakiokkeen planteamendu bat, hiztun hori gaitasun altukoa izan edo gaitasun txikikoa izan. Horrek, bide batez, lagunduko liguke mintzagaia ulerrizketaren testuinguruan hobeto kokatzen.

Váradiren aburuz, muinean zera dago: komunikazio-arazoak suertatzen direnean nola aurkitu forma egokiak (hitzak, esaldiak...) nahi dugun esanahia komunikatzeko. Ez da aski norberak ontzat ematea formaren eta esanahiaren arteko doikuntza (norberak ulertzea, alegia), baizik eta besterentzat ulergarri izatea da kontua: esanahia adierazteko aurkitu dugun adierazpide formalak besterentzat izan behar du ulergarri. Eta hori lortzen ez duenean, hiztunak bestelako adierazpideak bilatzen jarraitu behar du, arazoa konpondu arte. Váradik hainbat egoera aurkezten digu.

Batetik, hiztunak uste badu bitarteko formalak aski dituela eta entzuleak ere halakoak badituela, orduan eutsi egingo lioke esanahia bere osotasunean adierazteari, eta arreta emango lioke formaren doikuntzari (alegia, esanahia bera adierazteko bestelako adierazpen formalak bilatzeari). Formaren doikuntza bi prozeduren bidez egin daiteke: *ordezkatzeta* eta *murriztea*, hurrenez hurren.

Adierazpen formalak ordezkatzekoan, esaldiak berregitera jotzen dugu. Batzuetan modu azkarrean eta esaldi bakarrarekin-edo egiten dugu (parafraseatu, esaten dio egileak), baina, beste batzuetan, prozesu mantsoago da eta esaldi kateamendu luzea behar izaten dugu (itzulinguruak egin, esaten dio egileak: adibideak eman, analogiak jarri, egoerak deskribatu, esaldi laburren kateamendu luzea egin...).

Adierazpen formalak murrizterakoan, adierazpenak sinplifikatzera jotzen dugu. Batzuetan, enbarrazu egiten dizkiguten formak baztertu egiten ditugu, eta, beste batzuetan, sinonimoen barietatea murriztu egiten dugu (adiera orokorrago eta egoera askotarako balio duten hitzak lehenetsiz, aberastasunaren kaltean). Estrategia honen bidez, hiztunak ohar daitezke murrizketa formalak

ez duela kaltetzen esanahiaren transmisioa, eta horrek hauspoa eman diezaioke komunikazioari, jariotasuna handitzen eta erritmoa bizkortzen duen neurrian.

Bestetik, hiztunak ikusten duenean esan nahi duena esateko biderik ez duela –esaterako, adierazi nahi duen ideia edo sentimenduak zailak direlako; agian bere edo entzulearen hizkuntza-bitartekoek ez dutelako horretarako ematen– orduan esanahia bera moldatzeari, murrizteari, egokitzeari, eta are aldatzeari ekin diezaioke hiztunak –ez badu nahi, behintzat, isilik gelditu, edo beste hizkuntza batera pasa, nola gerta daitekeen gurea bezalako egoera elebidunetan–. Nolabait, mintzatzailearen eta ulertzailearen hizkuntza-gaitasunak mugatzen du zer komunika dezaketen eta zer ez. Esanahiaren doikuntza egiterakoan bi dira prozedurak: *ordezkatzea* eta *murriztea*, aurrekoan bezalaxe.

Esanahia murrizterakoan, hiztuna konturatzen da berak edo entzuleak dituzten hizkuntza-baliabideak edukita ezin dituela adierazi zinez esan nahi duen guztia, eta, beraz, esanahiaren zerbaiti uko egin behar diola, edo, agian, ulermen orokorrarekin (ulermen zehatzari uko eginda) konformatu behar duela.

Esanahia ordezkatzekoan, hiztunak gaia aldatzen du edo uko egiten dio esanahia adierazteari zuzenean. Agian gertuko gai edo ideia bati hel diezaioke jatorrizko ideia bazterrean utzita.

Ulerrizketaren testuinguruan, formen doikuntza bilatzen dugu oroz gain. Horrek bide batez adieraziko digu non dagoen ulerrizketaren muga. Horrek jakinaraziko digu euskarazko komunikazioa zein punturaino iritsi daitekeen uneoro. Esanahiaren doikuntzari heldu behar izaten denean, hau da, ideia konplexuen edo informazio zehatzen transmisioa arazo bihurtzen denean, ulerrizketak jada bitarteko eraginkorra izateari uzten dio. Horregatik, hain zuzen ere, ulerrizketak “larrialdietarako” irteera eskaintzen die parte hartzaileei, halako egoerak gertatzen direnean euskarazko komunikazioa bertan behera utzi eta erdaraz balia daitezten. Esanahia doitzeko beharra desageritzen denean, itzul daitezke kideak ulerrizketaren euskarazko komunikaziora.

Erdarara pasa gabe ere, badira tarteko estrategiak bi hizkuntzen baliabideak aldi berean nahasten dituztenak. Halakoetan ikusten da hiztunaren lehen hizkuntzak nola eragiten dion zuzenean edo zeharka bigarren hizkuntzaren ekoizpenari. Halakoak “lehen hizkuntzan oinarritutako estrategiak” kategorian sailkatu zituen Ellen Bialystokek (1990), hizkuntza ikasleen ikuspegitik ari baitzen fenomeno aztertzen. Baina, egia esan, hiztun elebidunen kasuan ere, hizkuntzen arteko interferentziak lehen hizkuntzatik bigarrenean eta bigarrenetik lehenera antzematen errazak dira. Halakoetan, 1) hizkuntza bateko hitzak edo esaldiak erabiltzen dira beste hizkuntzan hitz egiterakoan inongo aldaketarik gabe (*code switch*), 2) hizkuntza batean arrotzak diren hitzak beste hizkuntzatik hartu eta moldaketa morfologiko eta fonologikoak eraginez bertako hizkuntzaren kutsua ematen zaie (prozedura honek batzuetan hitz berriak dakartzkio hizkuntza bati; beste batzuetan, bi hizkuntzetako hitzak sinonimotzat hartzen dira hizkuntza berean; eta, maiz ere, hitz berriak guztiz ordezkutzen du jatorrizko hitza), eta 3) hizkuntza bateko adierazpideak eta moldeak oinarri gisa erabiltzen dira beste hizkuntzaren hitzez eta sintaxiaz adierazita (*transliteration*: itzulpen literalek askotan

sorrarazten duten arrotasuna eta ulertezintasuna). Nahasketa hauek guztiak daude *pidgnization* prozesuen oinarrian. Ukutuan eta harremanean dauden hizkuntzek ezin dituzte halako elkar eraginak baztertu. Eraginak beti dira hor nahitaez. Elkarreagina bera baino gehiago haren neurria eta proportzioa izan daiteke benetako arazoa, hizkuntza baten korpusaren desitxuratzeari begira.

Ulerrizketaren testuinguruan, era desberdinetako hautuak hartu ditugu jardun errealistak eta eramangarriak gerta daitezten. Honako bi hauek azpimarratu behar dira nagusiki:

Aurrena, eskakizun zehatza egiten zaio mintzatzaileari komunikazio-arazoak erdarara pasa gabe gainditzeko, baina horri “larraldietarako” klausula bat eransten zaio: kode aldaketa onartzen da kideek egoera jakin bat “larritzat” jotzen dutenean. Hala, esaterako, komunikazio-arazoak konpondu gabe luze jarraitzen duenean; hainbat ideia edo gai konplexu adierazteko hizkuntza-bitarteko nahikorik ez dutela sumatzen dutenean; euren arteko elkarrekintzan jende arrotza agertzen denean; elkarrekintza urduritasun handiko egoera batean gertatzen denean, eta abarretan.

Bigarrena, ulertzaileari berariaz onartzen zaio erdaraz egiteko aukera, euskaraz adierazteko zailtasunak dituenen. Neurri horrek helburu du elkarriketari jarriotasun eta bizitasuna ematea. Gogoan hartu behar da ulerrizketa ingurune naturaletan gertatzen dela (lan eremuetan nagusiki), eta, ondorioz, elkarriketak ezinbestean halako bizitasun bat behar duela, eraginkorra izango bada.

#### 2.4.5.

### Ulergarritasuna, kontzeptu erlatiboa: hizkuntza-sintonizazioa

Ulergarritasuna, funtsean, kontzeptu erlatiboa da. Ulergarria da pertsona batek ulertzen duena eta ez besterik. Oso definizio tautologiko edo begi bistakoa da, baina, badu fenomenoaren muina adierazteko indarra. Mintzatzaile batek ulertarazteko egiten dituen ahalegin guztiak eginda ere, eta erabiltzen dituen bitarteko guztiak erabiltzen dituela ere, finean ulergarritasuna ulertzailearen belarritan datza. Hark behar du ulertu. Hark ulertzen duena da beretzat ulergarri. Hark ulertzen ez duena ez da beretzat ulergarri.

Aurrez aurreko harremanari gagozkiolarik, ulergarritasunak eskatzen du kideen arteko hizkuntza-sintonizazioa, mintzatzaileak jakin dezan zer eta nola ulertzen duen ulertzaileak, eta ulertzaileak eska diezazkion mintzatzaileari zer behar duen ongi ulertzeko. Joan-etorri horretan mamitzen dute parte hartzaileek haientzat egoki eta ulergarri denaren definizioa. Mintzatzaileak hainbat eta hainbat ahalegin egin ditzake hizkera errazteko, baina egoki suertatzen al zaio hori guztia ulertzaileari? Aldez edo moldez, baieztatu behar luke mintzatzaileak bere ahaleginaren egokitasuna. Era berean, ulertzaileak irizpide zehatzak eta pertsonalizatuak ezagutarazi behar lizkioke mintzatzaileari, honek jakin dezan zer funtzionatzen duen eta zer ez bera ulergintzan dabilenean.

Hizkuntza-sintonizazioa, orduan, elkarren artean egiten den prozesu eraikitzailea da, kideen jarduera aktiboa eta elkarlana eskatzen dituen. Bestalde, ez da kontu estatikoa, behin eginda aski dena. Aitzitik, izaera dinamikoa du, eta denboran zehar tarteka egin beharreko jarduera ere bada. Une batean dagoen sintonizazioa denboraren joan-etorrian kamusten baita, edo kamuts daiteke behintzat, gutxien uste denean. Hizkuntza-sintonizazioa konpara daiteke musika tresna baten gozatzearekin edo afinatzearekin. Hura ongi afinatu gabe nekez entzuten da musika gozo: han dira berehala zaratak eta nahi gabeko disonantziak. Baina, musika tresna behin gozatuagatik ere, ez da betiko hala geratzen. Musika tresnek galtzen dute afinazioa tarteka, eta berriz gozatu behar dira. Era berean, hizkuntza-sintonizazioa ezinbestekotzat jo beharko genuke komunikazioa edo elkar ulertzea eman dadin elkarrizketaren barruan. Eta hasieran oso funtsezkoa bada ere, ez da garrantzi gutxiagokoa behin abiatuta tarteka afinazio saioei kasu egitea ere.

## 2.5.

### Egiaztatzeko jokabidea

#### 2.5.1.

### Kontrola, segurtasuna eta hizkuntza-konfiantza

Elkarrekiko konfiantza da, seguru asko, gizarte-gertakari gehien atzean dagoen oinarri edo zutabe nagusietako bat. Hizkuntza-konfiantza bera da fenomeno orokor horren adibide esanguratsua. Izan ere, komunikazioaren oinarritzko ustea da hitzak eta horiek transmititzen dituzten esanahiak solaskideek ulertzen dituztela. Uste horretan oinarrituta lotzen gatzazkio elkarrizketari konfiantzaz beterik. Eta alderantziz, halako konfiantzarik ez denean, ulertuak garen ala ez ziur ez garenean, huts egiten du komunikazioak.

Ez da seguru, ordea, hitzak ulertzeak zuzenean eta hutsik gabe mezua ulertzea dakarrenik. Uste hori erdi ustela gertatzen da maiz. Horretan datza gaizki ulertze eta eztabaida bukaezin askoren jatorria, eta, ondorioz, giza eta gizarte arazo askoren muina. Komunikazio fenomenoak aztertzen dituzten aditu askok behin baino gehiagotan ohartarazi digute honetaz (Watzlawick, Bavelas eta Jackson, 2011). Hitz bera modu desberdinetan interpreta daitekeenez, ez datoz beti bat, batetik, esatariak adierazi nahi duena, eta, bestetik, entzuleak ulertzen edo interpretatzen duena. Uler-tzeak asko baitu interpretatzetik. Psikologiaren adar garrantzitsu batek (Rogers, 2011 ; Gendlin, 2008) puntu honetantxe funtsatu du jarduera terapeutikoa. Izan ere, entzuleak esatariaren adierazpenak nola ulertzen dituen esplizitatzen duenean, orduan esatariak berak egiazta dezake bat ote datozen berak esan nahi zuena eta entzuleak ulertu diona. Komunikazioak gainditu egiten du alderdi linguistikoa eta alor psikologikora iristen da. Esatariak antzematen du benetan ulertua izan dela, eta horrek kideen arteko distantzia psikologikoa urritzen du. Esatariak, orduan, ongi entzun-

da eta ulertua sentitzen denean, kemena eta konfiantza biltzen ditu bere barne munduaren azterketan jarraitzeko. Entzundako adierazpenen egiaztatze jarduerari “erreflexuaren teknika” esaten zaio Psikologia Humanistan, eta ildo horretako teknika terapeutikorik garrantzitsuenetarikoa da.

Gure aztergaia ez dagokio zehazki alderdi psikologikoari (gizakien arteko komunikazio emozionalari), baizik eta oinarrizkoagoa den alderdi linguistikoari. Arazoa alderdi linguistikoan kokatzen denean, hitzak beraiek dira batzuetan arrotzak eta ulertezinak. Baina, hemen ere, zailtasun linguistikoak gainditzeko biderik emankorrena gaizki ulertutakoa argitu eta ulertutakoa egiaztatzeko jardunari modu interaktiboan heldzea izan ohi da. Beraz, badirudi esanahia egiaztatzeak egiteko nagusi eta zentrala betetzen duela batean zein bestean, bai alderdi psikologikoan bai alderdi linguistiko hutsean ere.

Elkar ulertzea baldin bada komunikazioa aurrera daraman erregaia, egiaztatzea da erregaiaren kontrol-monitoreo. Egiaztatzeak, kontrol sistema gisa, atzera-informazioa (*feed back*) ematen dio sistemari (elkarrizketa kideei), erregulazio negatiboa ala positiboa egin dezan. Erregulazio positiboak baimenduko luke elkarrizketak bere horretan jarraitzea, funtzio komunikatiboa ongi gauzatzaren ari delako. Erregulazio negatiboak, ordea, etena ekarriko lioke elkarrizketari, komunikazioan sorturiko arazoak konpondu ahal izateko. Kontrol jarduerak, orduan, informazio esanguratsua ematen du solaskideek komunikazio jokaera molda dezaten. Erregulazio positiboak kideen arteko hizkuntza-konfiantza bizkortzen du, eta erregulazio negatiboak hizkuntza-konfiantza berreskuratzeko aukera ematen du. Bata zein bestea kontrol sistemaren parte ezinbestekoak dira. Aitzitik, kontrol sistema aktibaturik ez dagoenean, zalantzak nagusi izan daitezke, konfiantza ezak ostatu har dezake, eta komunikazioak berak porrot egin dezake (komunikazio-sistemaren hondoratzea). Komunikazio-sistema batean ulertzeko gaitasunari buruzko zalantzak errotzen direnean, gertu da sistemaren hondamendia. Zalantzak uxatzeko modurik eraginkorrena, orduan, kontrol sistema erabiltzea izan ohi da, ulertutakoa egiaztatzeko jokabidearen bidez.

Komunikazio-sistemak halako kontrol mekanismoak behar baditu ere, praktika sozialean izaten dira arazoak. Ulertutakoa egiaztatzearen jokabidea irakurketa negatiboak izan ditzake hainbat marko kulturaletan. Gaizki ikusia izan daiteke hainbatetan, esaterako, hiztunari eskatzea hizkera moldatzeko (polikiago hitz egiteko, argiago ahoskatzeko...). Itsusi edo sozialki desegokia kontsidera daiteke errepikatzea edo laburtzea baten batek esan duena, ziur egotearren bada ere. Edukazio txarreko zatik jo daiteke norbaiti galdetzea ea benetan ulertu digun eta esateko zer ulertu digun. Faktore kulturalok traba handia ekar diezaiokete egiaztatzearen jokabideari. Arazo hau zentrala da ulerrizketarako. Ulerrizketak mikro-klima sozial bat eraiki behar du, aurrera egingo badu, parte hartzaileek egoki eta zilegi ikus dezaten egiaztatzearen jokabidea. Hori dela eta, formazio-saioa planteatzen du ulerrizketak. Formazio-saio batean aukera dago parte hartzaileek egiaztatzearen zergatia ulertzeko eta onartzeko. Horregatik, formazio-saioak dira ulerrizketa metodologiaren tresna nagusietako bat.

Csikszentmihalyik (1997) hiru ezaugarrietara ekarri zituen jarduera jariotsu eta arrakastatsuen gakoak. Lehenengo ezaugarria, helburua argia izatea: ongi zehaztuta, argi definituta, eta artez

mugatuta. Bigarren ezaugarria, erronkaren eta gaitasunen arteko oreka nabarmen ematea. Nolabait esanda: erronkak eskatzen duen ahalegin maila eramangarri suertatzea parte hartzaileen gaitasunak aintzat hartuta, ez erronka oso erraza delako, baizik eta erronka gainditzea aukera erreala delako parte hartzaileen gaitasunak gogoan hartuta. Hirugarren ezaugarria, berehalako atzera-informazioa eskura izatea. Puntu hau zuzenean dagokio, hain zuzen, ulertutakoaren egiaztatze-jokabideari.

## 2.5.2.

---

### Esanahiaren negoziazioa vs. Esanahiaren transmisioa

Ulertzearen lana trebetasun hartzailetzat hartua izan da behiala. Hartzaile eta pasibo hitzak, era berean, kidetzat hartu izan ditugu maiz askotan. Baina, benetan pasibotzat jo daiteke ulermena? Datu asko ditugu, egun, baieztatzeko ulermena uste baino askoz ere jardun aktiboagoa dela, bai prozesu kognitiboak, bai prozesu sozio-interaktiboak kontuan hartzen ditugunean.

Ulermenaren prozesu kognitiboak oso intentsuak dira. Gaitasun mugatua dutenek ulergintzari ekiterakoan biziki aktibatzen dituzte arreta prozesuak. Aurrena, entzuten duten soinu andana semantikoki segmentatu behar dute, hitzak eta esaldiak identifikatu eta bereizi ahal izateko. Baina, bigarrenik, maiz ez dute ulertzeko lana informazio osoarekin egiten, informazio partzialarekin baizik: hitz batzuk ulertzen dituzte eta beste batzuk ez, eta, hala ere, esanahia jaso behar dute. Behartuta daude askotan iturri desberdinak erabiltzera (testuinguruaren seinaleak, gaiarekiko ezagutza, solaskidearen ezagutza, eta abarrekoak) hizkuntza-hutsuneak berdintzeko eta orekatzeko. Irudimena ere baliatu behar izaten dute maiz hizkuntza-hutsuneak gainditzeko, hipotesiak edo aieruak sortzen dituztelarik. Arreta prozesu hauek oso prozesu aktiboak dira, estresa eta ziurgabetasun handiko egoeretan emateagatik are gehiago bizkortzen direnak.

Ulgintzak dakartzan edo ekar ditzakeen jarduera sozialak ez dira intentsitate gutxiagokoak. Elkarrekintza aurrez aurrekoa denean, aukera izaten dute parte hartzaileek zalantzak uxatzeko, gaizki ulertutakoak argitzeko, eta, oro har, ulertutakoa egiaztatzeko, solaskideari galdetuz edo erregulazio eskaerak eginez. Elkarrekintza hauek aztertuz, ikerketa eta argitalpen asko agertu dira azken urteotan (Long, 1983, 1996; Pica, 1994; Oliver, 2002; Gass, 2003; Mackey, 2007; Ellis, 2008). Gehienek “esanahiaren negoziazioa” kontzeptua erabiltzen dute jatorrizko hiztunaren eta ez-jatorrizko hiztunaren arteko elkarrekintzaz hitz egiteko. Hasiera batean, kontzeptua inputa ulergarriago egiteko parte hartzaileek hartzen dituzten jokaerak aztertzeko erabili bazen ere, urteen poderioz “elkarrekintza hipotesiaren” alderdi zentrala izatera iritsi da (Long, 1996). Hipotesi honen arabera, hizkuntza-gaitasuna eskuratzeko funtsezkoa da input ulergarriaz gain, input hori ulergarri egiteko behar den prozesu sozial eta elkarrekintzazkoa kontuan hartzea, zein baita elkarrekintzetan parte hartzea, esanahia negoziatzea, sostengu egitura eskaintzea/edukitzea edota atzera-informazioa ematea/jasotzea.



Jatorrizko eta ez-jatorrizko hiztunen arteko harremanetan kodea sinplifikatzeaz gain (foreigner talk), elkarrekintzaren beraren moldea ere eraldatzen dute parte hartzaileek, adierazpenak ulergarriago egiteko asmoz. Gassek (2003) elkarrekintzaren honako moldaketa hauek azpimarratu zituen:

- 1) Maizago gertatzen dira *egiaztatze*ko eskaerak; hau da, galderak edo eskariak egiten dituzte ziur egoteko beren kideek esan dutena ea ongi ulertu duten.
- 2) Maizago egiten dituzte *ustez ulertutakoari buruzko galderak*, esatariak gainetik jakin dezan entzulea ulertzen ari den ala ez. “Ulertu al duzu?” moduko galderak, esaterako.
- 3) Maizago gertatzen dira ulermen-hutsunez ohartu ondoren haiek *argitze*ko saioak.
- 4) Maizago agertzen dira *aukerazko galderak*. Esatariak sumatzen duenean entzuleak ez duela galdera bat ulertu, orduan, errazteko asmoz, aukeran eman ditzake irtenbide batzuk entzuleak hauta dezan (“hau edo hau” estilokoak).
- 5) Maizago egiten dituzte *gaiari buruzko galderak*.
- 6) Maizago erabiltzen dituzte *adibideak eta egoeren deskribapenak*, esatariak hitzaren batekin ulertzeko zailtasunak sumatzen dituenean.
- 7) Maizago egiten dituzte *zuzenketak*, ez-jatorrizko hiztunak esaldi ez-gramatikalak egiterakoan jatorrizko hiztunak esaldi hura berresaten du formatu gramatikal zuzenean.

Oso nabarmena da elkarrekintzaren moldaketa hauetan zer garrantzi duen kontrol funtzioak, edo, kutsu psikologikoa emanda, segurtasunaren beharrak. Izan ere, funtsezkoa da parte hartzaileentzat jakitea eta ziurtasuna edukitzea solaskideek ulertu egin dietela. Ulergintzak zutarri ematen dio komunikazioari ziurtasunez eta konfiantzaz gara dadin. Segurtasunaren beharra hiru egoeretan ager daiteke oso nabarmen:

- 1) Jatorrizko hiztunak seguru egon nahi duenean ez-jatorrizko hiztunak ongi ulertu diola.
- 2) Ez-jatorrizko hiztunak seguru egon nahi duenean ongi ulertu diola jatorrizko hiztunari.
- 3) Ez-jatorrizko hiztunak nahi duenean jatorrizko hiztunak jakitea ongi ulertzen ari dela.

Aipatuta gelditzen dira, beraz, esanahia negoziatzeko oinarritzko eragiketak. Eta azpimarratuta, esanahiaren negoziazioak nola laguntzen duen mezuak ulergarri bihurtzen, eta elkarrekiko hizkuntza-konfiantza sendotzen. Hurrengo ataletan honi guztioni formatu zehatz eta praktikoa eman beharko diogu metodologia didaktiko batean bilduta.

# 3.



## ALDERDI METODOLOGIKOAK

---

### 3.1.

#### Ulerrizketaren oinarrizko ideia

*Ulerrizketa* ingurune naturaletan euskaraz aritzeko komunikazio estilo bat da, kideren batek euskaraz egiteko eta ulertzeko hizkuntza-gaitasun mugatua duenean. Ulerrizketan parte hartzen dutenentzat euskaraz komunikatzeak balio berezi eta positiboa du, harremanari zerbait berria eransten dio, eta, finean, jarduera desiragarriaren ezaugarriak ditu. Halakoetan, komunikazio-arazoak etorriko direla aurreikus daitekeenez gero, solaskideek elkar ulertzeko estrategia multzo bat erabiltzen dute. Hala, esaterako, kideek hizkera moldatzen, egokitzen eta doitzen dute, eta, hala eginda, ulermena errazten dute. Era berean, kideek etengabe egiaztatzen dute ea mezuak ulertzen ari ote diren. Azkenik, komunikazio-arazoak sortzerakoan, hizkuntza modu malguan erabiltzen dute, mezua bestelako adierazpideen bidez adieraziz euskaratik atera gabe.

Beraz, ulerrizketak bere baitan biltzen du jokaera (estrategia, teknika, jarduera...) multzo koherente bat, euskara luze eta zabal erabilia izan dadin jatorrizko hiztunen eta ez-jatorrizko hiztunen arteko elkarrizketetan.

Jatorrizko hiztuna esaterakoan, aintzat hartzen dugu euskaraz mintzatzeko gaitasun altua duen pertsona bat, eta, beraz, ez duena eguneroko edozein elkarrizketari erraztasunez heltzeko arazo aipagarriarik. Baliteke pertsona horrek hizkera tekniko erabili behar izaten duenean lexiko mailako hutsuneak izatea, baina, hala eta guztiz ere, ongi moldatzen da eskura dituen hizkuntza-baliabideekin balizko zailtasunak gainditzeko eta ideiak era ulergarrian adierazteko. Baliteke, era berean, pertsona horrek ahazkoan duen erraztasuna idatzizko komunikazioan hain garatua ez izatea, praktika faltagatik agian. Pertsona horri ***mintzatzailea (M)*** esaten diogu, eta euskarari ahal den guztietan eusten dio ulerrizketan ari delarik.

Ez-jatorrizko hiztuna aipatzen dugunean, gogoan daukagu hizkuntza-gaitasun mugatua duen pertsona bat. Euskaraz ulertzeko tarteko gaitasuna du (B1, erreferentzia estandarra erabilia). Euska-

raz hitz egiteko zailtasunak ditu. Baliteke esaldi laburrak eta ideia sinpleak esateko gauza izatea, baina erritmo mantsoan adierazita eta pentsatzeko denbora edukita izan behar luke, izatekotan. Halakoari **ulertzailea (U)** esaten diogu ulerrizketan, eta, aski ulertzen duenez gero, mintzatzaileak harekin euskaraz egin dezake eta egiten du. Hala ere, hitz egiterakoan, berak euskara eta erdara tartekatzen ditu. Hainbat adierazpen labur egingo ditu euskaraz, baina azkar hitz egin behar duenean, edo ideia konplexuak adierazi behar dituenean erdarara joko du gehienetan (gogoan hartu behar da ulerrizketa eguneroko ingurune naturaletan gauzatzen dela: lantokietan, esaterako, non tentsioa askotan handia baita).

Hortaz, oso ohikoa izaten da ulerrizketan ele biko elkarrizketak gertatzea mintzatzailearen eta ulertzailearen artean.

Ulerrizketan ongi ari direnean, nabarmena da **uler-jarioa**. Elkarrizketa, bi hizkuntzetan bada ere, bizkor eta arazorik gabe doa aurrera. Ulertzailea gehienetan erdarazko iruzkinak eginez lotzen zaio elkarrizketari, mintzatzaileak iruzkinak euskaraz egiten dituen bitartean. Elkar ulertzen dute arazorik gabe. Komunikazioa arin eta emankor gauzatzen denez gero, ulerrizketa-estiloa finka daiteke beren arteko harremanean.

Elkar ulertze hori ez litzateke izango, baldin eta mintzatzaileak ulertzailearen hizkuntza-gaitasunera sintonizatu (egokitu, doitu, erregulatu...) egingo ez balu bere hizkera. Hartara, uler-jarioa **uler-sintoniaren** zuzeneko emaitza da.

Ulerrizketan gaizki ari direnean, **uler-trabak** nagusitzen dira. Komunikazio-arazoak pilatzen dira bata bestearen gainetik. Mintzatzailearen hizkera mota eta ulertzailearen ulermen maila ez daude sintonizatuak. Ulertzaileak ez dio ongi ulertzen mintzatzaileari. Mintzatzaileak ez du modurik aurkitzen bere hizkera egokitzeko, moldatzeko edo malgutzeko. Uler-sintonia galdu eta uler-trabak nagusitzen direnean, ez du ulerrizketak aurrerabiderik, eta bideraezina da euskarazko komunikazioa.

Ulerrizketak uler-jariora ala uler-trabara joko ote duen, bada aldagai benetan erabakigarria: **uler-kontrola**. Uler-kontrola esango genioke ulermen mailaren etengabeko monitorizazioari, egiaztatzeari eta aztertzeari. Mintzatzaileak informazioa behar du jakiteko ulertzaileak zehazki zer ulertu dion, eta ulertzaileak ere informazioa behar du ziur sentitzeko mintzatzaileari ongi ulertzen ari zaiola. Kontrola positiboa denean (“ulermena funtzionatzen ari da”), hitzunen arteko hizkuntza-konfiantza handitzen da, eta berehala egiten du uler-jariora ulerrizketak. Kontrola negatiboa gertatzen denean (“ulermena ez da funtzionatzen ari”), jarduleak ohartzen dira beren arteko hizkera are gehiago sintonizatu, erregulatu edo doitu behar dutela, eta, hori egitean, uler-trabak gainditzeko bidea jorratzen dute, edo jorra dezakete behintzat. Kontrol negatiboak garaiz ohartarazten ditu jarduleak balizko hizkuntza-arazoez. Garaiz helduta, irtenbide egokiak aurkitzeko aukerak handitzen dira. Ordea, uler-trabak ongi eta garaiz antzematen ez direnean, euskarazko komunikazioak hondoa jotzeko arrisku argia du.

Hori dela eta, nabarmena da ulerrizketak ulermena egiaztatzeari ematen dion zentraltasuna. Ulertutakoa egiaztatzea jokaera sistematikoa da ulerrizketan, hasieran bereziki, eta hiztunek hari serio heldu behar diote, harik eta beren artean hizkuntza-sintonizazio egokia eskuratu arte, edo hizkuntza-konfiantza handia sentitu arte. Behin puntu horretara iritsita, laxatu eta tartekatu egiten da egiaztatzeko jokaera, eta modu selektibo eta puntualean baizik ez da erabiltzen, beti ere beharren arabera erabilia (esaterako, tarteka komunikazio-oztoporen bat sortzen denean, ideia konplikatuta samarra denean, egoera sozialak ulertutakoaz erabat seguru egotea eskatzen duenen, eta abar).

Uler-kontrola gako nagusia da. Nori dagokio, ordea, zeregina kudeatzea? Ulertzaileari dagokio? Mintzatzaileari? Bioi? Hiru aukeretako bakoitza ona da berez. Kideen nortasunak markatuko du zein aukera hezurmamitzen den azkenean. Baina, edozein izanda ere, zinez garrantzitsua zera da: uler-kontrolaren zeregina ulerrizketan alde edo moldez ziurtatuta egotea. Hona hemen zeregina betetzeko balizko hiru modu:

- 1) Ulertzaileak eusten dio bereziki uler-kontrolari, serio eutsi ere. Bere gain hartzen du ardura. Sistematikoki egiaztatzen du zer ulertzen ari den, eta ulertzen ez duenean erregulazio eskaera zuzen eta zehatza egiten dio mintzatzaileari. Hala, esaterako, eskatuko dio polikiago hitz egiteko, hitz errazagoak erabiltzeko edo esaldi sinpleagoak egiteko.
- 2) Mintzatzaileak hartzen du bere gain zeregina. Aurrez antzematen ditu hitz edo espresio zailak, eta lehen unetik hizkera ulergarria egiten saiatzen da. Isildu egiten da tarteka nahita, eta tartea uzten du ulertzailearen erantzuna jasotzeko. Ulertzaileak ulertu ote duen zalantzak dituenean, zuzenean galdetzen dio zer ulertu duen, bai eta ulertzailearen erantzunak oso zehaztugabeak direnean ere (bai, ez, ahhh!, kontxo!!...). Ulertzaileak zerbait ulertu ez duenean, malgutasuna erakusten du esaldia berregin eta beste modu desberdin batez esateko.
- 3) Biek ala biek elkar hartuta eta intentsitate desberdinez eusten diote uler-kontrolari. Batzuetan, ulertzaileak hartzen du egiaztatzeko ekimena, baina egiten ez duenean mintzatzaileak galdetzen dio, edo eskatzen dio ulertutakoa laburrean esateko. Batzuetan, mintzatzaileak artez egokitzen du hizkera, baina asmatu ezinik dabilenean, ulertzaileak eskaera zehatzak egiten dizkio: esaldi laburragoak egiteko, tarteka isiltzeko eta antzekoak.

Hiru egoera hauetako batean ez gaudenean, eta, hortaz, uler-kontrolaren funtzioa ziurtatuta ez dagoenean, oso nabarmen jaisten dira ulerrizketa emankorra izateko probabilitateak.

Aforismo batera ekar genezake uler-kontrolaren garrantzia:

Ulertzailearen ikuspegitik...

“Baldin nire esku badago solaskideak esandakoa eta nik ulertutakoa negoziatzea (egiaztatzea, argitzea eta hizkera sintonizatzeko eskatzea), orduan ia edozer uler dezaket”.

Idea bera, baina mintzatzailearen ikuspegitik...

“Baldin nire esku badago nik esandakoa eta solaskideak ulertutakoa negoziatzea (egiaztatzea, argitzea eta hizkera sintonizatzea), orduan ia edozer ulertaraz dezaket”.

Hitz gutxitan, honako hauek dira Ulerrizketa metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- 1) *Euskara-gaitasun altuko hiztunen eta gaitasun ertaineko hiztunen arteko euskarazko komunikazioa.*
- 2) *Ingurune naturaletan ematen den komunikazioa.*
- 3) *Ele biko elkarrizketak maiz dituen (uler-jarioan jardun).*
- 4) *Hizkera egokitua erabiltzen duena (uler-sintonia erregulatu)*
- 5) *Jokaera egiaztatzailea erabiltzen duena (uler-kontrola eduki).*
- 6) *Hizkera malgua erabiltzen duena (uler-trabak gainditu).*

Gakook garatzeari emango diogu tarte datazoen orrialdeetan.

## 3.2.

### Euskara-gaitasun altuko hiztunen eta gaitasun ertaineko hiztunen arteko euskarazko komunikazioa

Ulerrizketa metodologian gutxienez bi lagun behar ditugu, baina gehiago ere izan litezke. Hala ere, metodologiaren funtzionamenduaz jabetzeko, egoerarik errazenetik abiatzea komeni zaigu, hau da: mintzatzaile batek eta ulertzaile batek osatutako bikotea.

Kide bakoitzari hizkuntza-soslai bana eskatzen zaio. Ahozko gaitasuna besterik ez da gogoan hartzen; hots: entzumena<sup>4</sup> eta mintzamina. Idatzizko komunikazioa eta hari lotutako trebetasunak: irakurmena eta idazmena, ez dira aintzat hartzen.

Zer hizkuntza-soslai eskatzen zaio ***mintzatzaileari***? Euskaraz jarduteko gaitasun altua mintzamenari dagokionez. Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren terminologia erabiliz, CI mailaren parean kokatuko genuke gutxienez mintzatzailearen euskara-gaitasuna. Esan daiteke delako maila honetan mintzatzailea hiztun aditua dela, gaitasun altua duela eta ez duela arazorik elkarrizketa arrunt bati heltzeko. Honako hitz hauekin deskribatzen du Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumak halakoaren mintzatzeko gaitasuna: “*Lagunar-*

4 Entzumena, glotodidaktikaren hizkera zehatzean, entzundakoaren ulermena adierazteko erabiltzen da. Lan honetan, ordea, entzumena eta ulermena sinonimotzat hartuko ditugu, ulerrizketan ahozko komunikaziora mugatzen baikara, eta, hortaz, ez dago arriskurik ulermena irakurmenarekin nahasteko.

teko elkarreraginean jariatasunez eta zehazt jarduteko gai izango da, eta, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak zehaztasunez eta eraginkortasunez adierazteko.” (HABE, 2015, 200 orr.). **Hortaz, ulerrizketan ari den mintzatzaile batek gauza izan behar luke gutxienez euskaraz elkarrizketa arrunt bat erraztasunez eramateko, beti ere mintzamenari gagozkiolarik.** Gutxi gorabehera, C1 mailari dagokion gaitasun-deskribapena.

Eta **ulertzaileari?** Ulermenari dagokionez, gutxienez ertaineko gaitasuna eskatzen zaio. B1 mailaren pareko gaitasuna funtsean. Ikusi nola deskribatzen duen HEOC-ek<sup>5</sup> halako baten ulertzeko gaitasuna: “*Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana ) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, instrukzioak eta elkarrizketak ulertzeko gai izango da, baldin eta gaiak orokorrak badira eta xedea informazioa trukatzea bada. Horrez gain, komunikazio-asmoa atzemango du, ideia nagusiak jasoko ditu eta, zenbait testuingurutan, baita ñabardurak ere (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erreduantzia, ikusizko lagungarriak ), betiere azalpenen bat izateko aukera bada.*” (HABE, 2015, 126 orr.). Informazio egiazaturik ez dugun kasuetan, frogarik (B1 mailako entzumen frogarik) egingo zaio ulertzaileari, erabakitzeko ulerrizketarako hizkuntza-soslai gutxienez duen ala ez. **Hortaz, ulerrizketan ari den ulertzaile batek gauza izan behar luke gutxienez euskaraz B1 mailako ulermena edo entzumena edukitzeko.** Azpimarra dezagun ulertzaileari ez zaiola mintzamenaren aldetik inolako eskakizunik egiten. Euskaraz oso gutxi hitz egiten duten pertsonak ere ez lukete arazorik izango ulerrizketari heltzeko, baldin B1 mailako ulermena badute. B1 mailako entzumen atalasetik behera dauden pertsonak, *Ulerriketa metodologiara* gabe, bestelako metodologietara bideratuko genituzke. Haietako bat da *Uler-saioak metodologia*<sup>6</sup>.

Laburrean:

<b>Jarduleak</b>	<b>Hizkuntza-soslai</b>
MINTZATZAILEA	Gutxienez C1 maila mintzamenean
ULERTZAILEA	Gutxienez B1 maila ulermenean
ULERRIZKETATIK KANPO	A1 edo A2 maila ulermenean

5 HEOC, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren akrononimoa.

6 *Uler-saioak metodologia* aurki iritsiko da plazara: ondo bidean, aurten bertan. Ulermen maila A1 eta A2 ataletan duten pertsonak gogoan hartuta diseinaturiko metodologia da. Testuinguru babestuetan garatzen da, eta ulermena hobetzea du helburu. Aldahitz egitasmoaren barruan Soziolinguistika Klusterrak garatutako metodologia da.

## 3.3.

**Ingurune naturaletan gertatzen dena**

Aurreko ezaugarriari erreparatuta, esan dezakegu Ulerrizketa metodologiak euskarazko komunikazioa bideratzen duela maila altuko mintzatzaile baten eta maila ertaineko ulertzaile baten artean. Horri bigarren ezaugarri bat erantsi behar zaio: ***komunikazioa ingurune naturaletan ematen da eta ez ingurune babestuetan.***

Mintzatzailea eta ulertzailea ez dira nahita biltzen toki berezitan, finkatutako ordutegi batean, hizkuntza-soslai bera duten beste pertsona batzuekin, dinamizatzaile edo irakasle baten laguntzaz, eta hizkuntza-praktika bideratua egiteko asmoz. Alegia, Ulerrizketa metodologia ez da ingurune babestuetan egiten, hala nola, eskola batean, saio prestatu batean, praktikarako aktibitate antolatut batean.

Ulerrizketa metodologia ingurune naturaletan egiten da, hala nola, lantoki batean, erakunde batean, familia batean, lagunarte batean... Egunerokoari dagokionez, solaskideak ez dira aldatzen, funtzionamendu errutinak ez dira aldatzen, komunikazio gaiak ez dira aldatzen, taldearen dinamika ez da aldatzen. *Aldatzen den bakarra –eta ez da gutxi, alajaina- mintzatzailearen eta ulertzailearen arteko hizkuntza-jokaera da. Jokaera hori ulerrizketa-kompetentzien bueltan gauzatu behar da. Eguneroko ingurune naturalean jardun behar dute, baina hizkuntza-eskakizun jakin batzuk betez.*

Hizkuntza-eskakizuna mintzatzailearen eta ulertzailearen aurrez aurreko harremanari besterik ez zaio aplikatzen. Haiez besteko kiderik eurekin batera komunikazio-jardunean balego, jarduleen esku geldituko litzateke ulerrizketari atxikitzea ala ez. Metodologiak behinik behin ez ditu horretara lotzen.

Ulerrizketaren aplikazioa, beraz, ingurune naturaletan egiten da. Hala ere, eguneroko dinamika naturalari heldu aurretik, *beharrezkoa ikusten dugu ulerrizketa-kompetentzien inguruko formazioa bat ematea jarduleei ingurune babestu batean.* Aurrerago, atal oso bat emango diogu formazioaren gaiari. Orain, ideia orokorra ematea aski izan daiteke.

Formazioa ikastaroak mintzatzailea(k) eta ulertzailea(k) bilduko lituzke trebatzaile baten gidaritzapean. Espazio horretan, jarduleek aukera izango lukete ulerrizketa-trebetasunak ezagutzeko eta zuzenean beren artean esperimintatzeko. Ulerrizketaren probatze edo dastatze horrek erreferentzia errealista eman beharko lieke jarduleei metodologiari. Halako metodologia batean parte hartzea ez da nolana hiko erabakia, eta erabakia oinarri errealistan hartu ezean, prozesua ez da ez luze ez oso sakon izaten. Hori dela eta, ikastaroak laguntza eman diezaikeke jarduleei ikusteko ulerrizketak zehazki zer eskatzen dien, eta baloratzeko beren burua horretarako gauza ikusten duten.

Ulerrizketa-trebetasunen mamia ematera goaz hurrengo puntutan.

### 3.4.

## Ele biko elkarrizketak maiz dituen

### ELE BIKO ELKARRIZKETAK (ULER-JARIOAN JARDUN)

MINTZATZAILEA → Euskaraz jardun

ULERTZAILEA → Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz

**Ulerrizketa metodologiak mintzatzaileari ulertzailearekin nagusiki “euskaraz jarduteko” eskatzen dio. Ez beti, baina bai nagusiki.**

Ez da erraza eginkizuna taxuz betetzea. Zailtasunak aurreikus daitezke bereziki bi egoeretan, honako hauetan alegia:

Erne egoteko lehen unea: *ulertzaileak erdaraz erantzun, eta, hala ere, atzera mintzatzailea euskarari eutsi beharrean dagoenean (ulerrizketaren eskakizunari kasu eginda)*. Hala egitean, mintzatzaileak ele biko elkarrizketak, euskaraz-erdarazko elkarrizketak alegia, sorrarazten ditu. Ordea, oso litekeena da mintzatzaileak gogo handia sentitzea erdarara makurtzeko. Gogo hori sentitzean, mintzatzaileak honako burubide hauek edukitzea lagungarri izan liteke:

- 1) Erantzukizunaren argudioa: “Ulertzaileak erdaraz egiten du ezin duelako euskaraz erraztasunez aritu. Baina, ulertzen duenez, nik egin dezaket euskaraz. Hauta dezaket: euskaraz aritu ala erdaraz jardun. Ardura nirea da. Erabakia nire esku dago. Erdaraz erosoagoa da, bistan da. Benetan nahi dut euskaraz egin? Zailtasunak bezainbestekoa ote da nire gogo? Erdaraz egiten badut, ezin diot kontua ulertzaileari egotzi, ezpada neure buruari, finean nik nahi dudalako honelako egoeretan erdaraz aritu. Eta euskaraz egiten badut, orduan ere nirea da gogo, nirea da beharra, eta nirea ardura.”
- 2) Emaitzaren argudioa: “Gaurko lana, biharko emaitza. Ulertzaileak etengabe behar du euskara entzun eta ulertu hizkuntza-gaitasuna hobetzeko. Eta, gaitasuna hobetzearekin batera, hizketan hasteko konfiantza ere halaxe dator. Beraz, gaur berari euskaraz egitea da bihar berarekin euskaraz eroso aritzeko biderik azkarrena. Gaur euskaraz egiten ez badiot: Nola hobetuko du berak gaitasuna? Nola iritsiko da euskaraz erraz egitea? Nola sentituko naiz inoiz berarekin eroso euskaraz hitz egitean?”

Burubideok formazioa-saioetan ulertarazi behar ditu trebatzaileak. Argudiook argi eta garbi entzun behar ditu mintzatzaileak ulerrizketaren erronkari baietza eman aurretik.



Erne egoteko bigarren unea: *mintzatzailea komunikazio-arazoak ezin bideratuz dabilenean*. Euskaraz ezin aurrera egin, eta erdarara jotzeko gogoia handia senti dezake mintzatzaileak. Komunikazio-arazook iturri desberdinetatik etor litezke: izan daiteke mintzatzaileak hizkera malgutzeko duen zailtasuna; izan daiteke irudimenez kamuts dabilela modu ulergarriagoak aurkitzeko; izan daiteke ulertzaileak oso pasibo jokaturik ez duela esanahiaren negoziazioan askotxo laguntzen. Edonola ere, arrazoa bata izan ala bestea izan, kontua da, komunikazio-arazoen irauten dutenean, euskaratik euskararako jokaera ezbaian jarri eta arazoa erdararen bidez konpontzeko gogoak gogor jotzen duela. Arazoak gainditzeko erdaraz baliatzea oso noizean behin bada, ez da ezer larririk gertatzen (gero zabalago komentatuko dugun bezala). Baina jokaera ohiko bihurtzen bada, edozein komunikazio-arazo agertu bezain laster erdarara joz, orduan ulerrizketa ez da zuzen eta egoki gauzatzen ari. Ulerrizketaren funtsezko printzipioa da komunikazioa euskaraz egitea, eta sor daitezkeen komunikazio-arazoak euskaratik euskarara konpontzea. Erdarara etengabe pasa beharra, bestalde, beste kontu larri baten zantzua izan daiteke: uler-trabak bata bestearen atzetik pilatzen ari direla, jarduleen arteko hizkuntza-sintonizazioa ona ez delako. Mintzatzaileak darabilen hizkera mota eta ulertzaileak duen ulermen maila ez datoz bat. Komunikazio-arazoak etengabe ematen direnean, gogaiturik erdarara jotzeko beharra sor dakioko mintzatzaileari. Hartara, irtenbidea izatekotan, arreta hizkuntza-sintonizazioari eman beharko litzaioke, hizkera egokitze bitartekoak zabalduz eta praktikatu.

Hasieran genionez, Ulerrizketa metodologiak eskatzen du mintzatzaileak ulertzailearekin *nagusiki euskaraz jardutea*. Nagusiki bai, baina ez beti. Beraz, “baimendu” egiten du metodologiak mintzatzaileak *noizean behin* erdaraz egitea. Irizpidea neurritz eta ongi aplikatzea, ordea, ez da erraza. Arrisku handia dago erdararako atea zabalik utzita, erdaraz egiteko ohiturak indar osoz hartzea harremana. Arriskuei eutsi nahian bi adigai berri ekarri behar ditugu plazara: autoerregulazioa eta elastikotasuna adigaiak. Egin dezagun, bada, bi kontzeptuoi buruzko hitz pare bat.

*Autoerregulazioari* esker, mintzatzaileak presioa arintzeko badaezpadako bitarteko bat dauka eskura. Hala, euskaraz egiteagatik egoerak neurritz kanpoko ahalegina eskatuko duela uste duenean, badauka erdara erabiltzea larrialdietarako irtenbide gisa. Egoera ugaritan izan daiteke beharrezkoa presioa arintzea, are gehiago komunikazio-egoera ingurune naturaletan gertatzen denean. Egoerak egoera, bi datozkigu gogora nagusiki:

- 1) Harreman sare naturalean (bertan ari da Ulerrizketa metodologia aplikatzen), badira tartean euskaraz ulertzen ez duten kideak, mintzatzaile-ulertzaileaz gain hirukote, laukote edo talde osoan kide guztiak biltzen direnean. Halakoetan, ez dirudi giro lasaia dagoenik ulerrizketari heltzeko. Ulerrizketak, ordea, ongi funtzionatzen du giro lasaia, konfiantzazkoa eta larritasun gutxikoa denean. Hori eman ezean, hobe lukete ulerrizketa jarduleek erdaraz aritzea, giro soziolinguistiko orokorrera egokitze.
- 2) Batzuetan taldearen dinamikak berak puntu beroak izaten ditu. Hala nola, lagunarte batean eztabaida uneak izaten dira, edo lantoki batean estutasun handiko uneak gertatzen dira. Esan daiteke urduritasuna eta estutasuna handiak direnean ez dagoela ulerrizketa

egiteko baldintza egokirik (patxada, lasaitasuna, hanka sartzeko aukerarik...). Halakoe-tan, erdara erabiltzea egokia izan liteke.

Hala ere, hizkuntza-autoerregulazioa guztiz lagungarria izan daitekeen bezala, zeharo kaltegarria ere izan daiteke, baldin, behin egoera zaila pasa ondoren, euskarazko jokaerara itzultzeko elastikotasunik erakusten ez badu mintzatzaileak. *Elastikotasuna* hainbat materialen ezaugarri fisikoa da, zeinaren arabera luzatu eta forma aldatzen baitute indar batek tenk egiten duenean, baina, indarra bukatutakoan, materiala bere lehengo egoerara itzultzen baita. Beraz, elastikotasunak badu, batetik, gaitasun estrategikoa indar baten eraginari egokitzeko baina, bestetik, badu indar hori bukatutakoan bere lehenera itzultzeko joera.

Elastikotasunik ez duen autoerregulaziorik ezin liteke zinez autoerregulaziotzat jo. Autoerregulazioak esan nahi du bitarteko desberdinak edukitzea (euskara eta erdara), eta bitartekorik egokiena hautatzea egoera bakoitzean. Abiapuntuko egoera, ulerrizketan, mintzatzailea ulertzailearekin euskaraz aritzea izanik ere, zailtasunen bat gainditzeko erdara erabili eta zailtasuna gainditu ondoren, abiapuntuko egoerara (euskaraz hitz egitera) itzuli behar luke mintzatzaileak, autoerregulazioaz hitz egingo bagenu. Halako hautaketa eta elastikotasunik ez badago, hots, erdara erabili ondoren euskarara itzultzeko mekanismorik ez badago, ez gara autoerregulazioaz ari. Orduan autoerregulazioa bertan behera utzi eta ohiko jokaera baten zirkuitu hertsietan harrapatuta geldituko litzateke halakoa (kasu honetan, erdaraz egiteko ohituraren inertzietan azpiratuta). Hizkuntza-ohitura baten hertsidura eta zurruntasuna nagusitzen direnean, jada ezin dugu autoerregulazioaz hitz egin. Autoerregulazioak esan nahi du, gure kasuan, erdararen erabilera salbuespena dela, egoera berezi eta larrietan erabiltzeko balio duena, baina ez da araua, eta ez da jokaera nagusia.

Luze hitz egin dugu mintzatzaileak Ulerrizketa metodologian eduki beharreko hizkuntza jokaeraz, baina zer esan ulertzaileari buruz? Zein izan beharko luke haren hizkuntza jokaerak metodologia honen testuinguruan?

Ez da erraza erantzun bakarra aurkitzea hain kasuistika zabala duen egoeraren aurrean. Izan ere, ulertzaileari zehazki entzumen mailako eskakizuna egiten zaio (gutxienez BI mailako entzumen-gaitasuna izatea), baina ez mintzamenari dagokionik. Uste izatekoa da, orduan, bestelako hizkuntza-gaitasun mailak aurkituko ditugula ulertzaileen mintzamenari erreparatzen diogunean. Ulertzaile batzuek, adibidez, euskaraz egiteko nolabaiteko gaitasuna edukiko dute, kamustua bada ere. Ordea, beste ulertzaile batzuk ez dira hitz erdirik ere esateko gauza sentituko. Izan daitezke ulertzaile batzuk esaldi eta hitz solteak euskaraz esateko gai izanik ere, ideiak modu luzean adierazteko ezinik ikusten dutenak beren burua. Izan daitezke, azkenik, ulertzaile batzuk ideiak modu egituratuan adierazteko gauza direnak, denbora asko eta pentsatzeko tartea ematearen truke (egoera natural askotan oso eskura ez dagoen ezaugarria, esan dezagun). Izango da ulertzaile berritsurik, eta izango da ulertzaile isilik. Nabardurak ñabardura, zer eskatu ulertzaileei hizkuntza-jokaera gisa?

**Ulerrizketak, funtsean, ulertzaileari eskatzen dio elkarrekintzan aktibo jardutea, euskaraz zein erdaraz, bere esku dagoelarik aukeratzea noiz hizkuntza bat eta noiz bestea erabiliko duen. Laburrean: “Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz”** Hala, ulertzaileak berak erregulatuko du bere hizkuntza-ekoizpena. Baliteke ulertzaile batzuk asko saiatzea euskaraz, eta beste batzuk labur eta uzkur antzean aritzea. Ez dago horretan arazorik: onargarri dira aukera guztiak. Ulertzaileak hizkuntza-simetriarako berezko presioa nabarituko du mintzatzaileak euskarari eusten dionean. Euskaraz aritzeko “beharra” sumatuko du intuitiboki. Barnean sentitzen duen grina, ordea, berak kudeatuko du, berak ikusiko du noiz hasi euskaraz eta zenbat egin euskaraz. Hizkuntza-konfiantza eskuratu ahala, errazago suerta dakioket urrats ausartagoak egitea. Ulertzaileak euskaraz egiteko “beharra” sumatzen du, baina ez du bere burua “behartuta” sentitzen. Ulerrizketak aurrera egin ahala, ulertzaileak hizkuntza-gaitasuna garatzen du (mezuak ulertzea omen da hizkuntza-gaitasuna garatzeko osagai nagusia: Krashen, 1987), eta hizkuntza-konfiantza indartzen. Psikologikoki, sozialki zein linguistikoki baldintza egokiak sortzen ari zaizkio ulertzaileari modu naturalean hel diezaion euskaraz egiteko bideari:

- 1) Mintzatzaileak euskaraz egitearen ondorioz, ulertzaileari premia sozial nabari eta berezkoa sortzen zaio euskaraz egiteko (alderdi soziala)
- 2) Komunikazioa ulergarri gertatzearen ondorioz, etengabe hobetzen du hizkuntza-gaitasuna (alderdi linguistikoa)
- 3) Hitz egiteko behartuta sentitzen ez denez gero, ulertzaileak ireki eta konfiantzaz jokatzen du, eta gero eta errazago suerta dakioket euskaraz egiteko kemena eta ziurtasuna erdiestea (alderdi psikologikoa)

Oso baldintza egokiak daude jarrita ulertzaileek modu naturalean urratsak eman ditzaten hizkuntza-ekoizpenean ere. Baina gertaera soziologiko eta psikologikoetan joerak ikusten ditugu, ez modu zehatz eta matematikoan ematen diren prozesu zurrun eta hertsia. Horregatik, ez litzateke harrigarri izango ere, baldintza egokiak eman arren, ulertzaileek ez ematea urrats esanguratsurik.

Ukertzaileen euskarazko ekoizpena ulerrizketaren berezko ondorioa izan daitekeela garbi ikusten dugu, baina ez da berori ulerrizketaren helburu esplizitua. Helburu esplizitua da komunikazio estilo bat barneratzea, non euskaraz egin nahi duenak euskaraz egin baitezake solaskideak euskaraz ulertzen duelako, nahiz eta tarteka elkarriketa ele bitan gertatzen den. Gutxi gorabehera, honako itxura hau har lezake ulerrizketa-saio batek:

- (Mintz.) Bihar lantokiko afaria dugu Usurbilgo jatetxe batean.  
 (Ukertz.) A zer ongi!, Beno, edo ez. ¿Tienes ganas de ir?  
 (Mintz.) Egia esan, ez nago gogo handiarekin. Azken bolada honetan giro txarra daukagu lantokian.  
 (Ukertz.) ¿pero el mal ambiente es general o sólo con algunas personas en concreto?  
 (Mintz.) Pertsona bakar batek sortu du giro txarra, baina ardura handia du lantokian

- eta jende askori eragiten dio.
- (Ulertz.) Ahh, pertsona bat da baina garrantzitsua. Zergatik giro txarra?
- (Mintz.) Orain dela gutxi sartu da, eta lan egiteko oso modu zorrotzak ditu. Jendearekin hitz egin baino gehiago, agindu egiten du.
- (Ulertz.) Ya, a la gente no le gusta ese modo autoritario. Pues nada, chica, animo eta ondo pasa!!
- (Mintz.) Saiatuko gara bai, eskerrik asko zure animoengatik.
- (Ulertz.) Ez horregatik!!


Ulerrizketa uler-jario bihurtzen denean, ulertzaileak **“komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz”** estrategia erabiltzen du gehien-gehienik, mintzatzaileak **“euskaraz jardun”** diharduen bitartean. Elkarrizketa bizkor doa aurrera orduan. Geldiune eta traba gutxi izaten dira. Ulertzaileak erdaraz eta euskaraz egindako iruzkinak tartekatzen ditu, bere hizkuntza-konfiantzaren arabera. Uler-jarioan dihardutenean, jada ez dira hain maiz gertatzen gaizki ulertzeak eta haiek konpondu beharra. Jada ez dute hain maiz ulertutakoa egiaztatu beharrik. Ulerrizketak gero eta gehiago hartzen du elkarrizketa arrunt baten tankera, baina bi eletan eginda askotan. Euskarazko eta erdarazko esanak elkarri lotzen zaizkio erraztasunez.

Ez da automatikoa, ordea, jarduleak ulerrizketa erraztasunez eta jario batean egitera iristea. Aurretik behar izan dute prozesu intentsua bizi, hizkuntzaren aldetik elkarri egokitzeko (hizkuntza-sintonizazioa), komunikazio-trabak agertzerakoan beroiek gainditzeko trebe bihurtzeko (uler-trabak gainditzea), eta, oro har, komunikazioaren egoera etengabe monitorizatzeko (uler-kontrola edukitzea). Urrats hauek ongi burutzean ondorio izaten da ulerrizketa uler-jario egoerara iristea.

Ataltxo hau bukatzeko, uler-jario itxura duen baina egiazki uler-jarriotik gutxi duen arrisku bat aipatu nahi genuke. Halako arriskuari **“bakarrizketan aritzea”** esaten diogu. Bakarrizketak deuseztatzen du eta hondoratzen elkarrizketa. Halakoetan, mintzatzaileak luze hitz egiten du, eta berak bakarrik hitz egiten du gainera. Bien bitartean, ulertzailea erabat isilik egoten da. Zergatik da bakarrizketa ulerrizketarako arriskua? Bakarrizketan ez dago uler-kontrolik. Ez kide batek ez besteak ez dute egiaztatzen ulermenaren zer-nolakoa. Ez dago kideen artean elkarrekintzarik jakiteko elkar ulertzen ari diren ala ez. Maiz gertatzen da ulertzailea isilik gelditzea benetan ulertzen ari ez delako. Edo ulertze-itxurak egiten ditu, komunikazioaren haria galduta duen arren. Bere aldetik, mintzatzaileak luze hitz eginda, pentsa dezake ulertzen ari zaiola, hori egia ez denean: ustea erdi ustel. Hizkuntza-konfiantza eraikitzeke hain garrantzitsua den uler-kontrolaren zeregina erasaten du bakarrizketak. Egoera honek kalte handia dakarkio ulerrizketari. Halakoa ez da bideragarria inondik inora ere.

## 3.5.

## Hizkera egokitua erabiltzen duena



## 3.5.1.

### Hizkera erregulatzeko beharra

Musika tresnak gozatu edo afinatu behar dira, musikak ongi jo dezan belarrira. Halaxe, era berean, hizkera afinatu (sintonizatu, egokitu, erregulatu, doitu...) egin behar da, komunikazioa eraginkor eta jariotsua izango bada. Sintonizazioak ongi jo behar du ulertzailearen belarrira, hitzen musika zarata bihur ez dadin.

Hizkera egokitzea mintzatzaileari dagokio funtsean. **“Euskara ulergarria erabiltzea”** esaten diogu horri. Berari dagokio hizkuntza-bitartekoak ulertzailearen hizkuntza-gaitasunera moldatzea. Baina zeregin horretan huts egiten duenean, ulertzaileak berak hartu behar luke lema, eta argi eta garbi eskatu mintzatzaileari hizkeran zer moldaketak behar dituen hobeto ulertu ahal izateko. Hala, esaterako, sentitzen duenean mintzatzailea azkarregi mintzo dela, edo hitzak argi ahoskatzen ez dituela, edo oso esaldi luze eta konplikatuak erabiltzen dituela, edo euskalki bateko hitz asko erabiltzen dituela, edo hitz jasoak maizegi erabiltzen dituela... ekimena hartu behar luke eta mintzatzaileari **“eskatu zer behar duen hobeto ulertzeko”**.

***Dela mintzatzailearen ekimen gisa, dela ulertzailearen eskariz, benetan axola duena zera da: bi aldeek kezka eta ardura izatea hizkera behar bezala sintonizatzeko, horrek ekarriko baitu komunikazioaren jariora.***

Sintonizazioak huts egin eta kideek hori konpontzeko ekimenik hartu ezean, gertu da komunikazioaren porrota. Komunikaziorako gaitz hilgarria da berori. **“Ezin ulertzea”** esaten diogu guk.

### 3.5.2.

## Hizkera erregulatzeko bitartekoak

Ez dira denak, baina gure helbururako egoki diren bost bitarteko mota azpimarratu nahi ditugu. Bitarteko hauek baliatuta, aukera asko lituzke mintzatzaileak bere hizkera erregulatu (egokitu, erraztu, doitu, sintonizatu...), eta, laburrean, bere hizkera ulergarri egiteko. Era berean, bitarteko hauen berri izatea ez da hutsala ulertzailearentzat ere. Sintonizazioak huts egiten duenean, jakin behar bailuke zer nolako neurri zuzentzaileak eskatzen ahal dizkion mintzatzaileari.

### *Polikiago hitz egin*

Ulertzaileak hizkuntza-gaitasun mugatua duenez, denbora behar izaten du mintzatzailearen esana prozesatu, deskodifikatu eta ulertzeko. Hartara, mintzatzaileak ulertzaileari hizkuntza-informazioa prozesatzeko denbora tartea ematea guztiz komenigarria da.

Mintzatzaileak *poliki hitz egiten* duenean, aski tartea ematen dio ulertzaileari hitzak identifikatu eta esanahia ulertzeko. Beraz, bitarteko interesgarria. Erritmo azkarregiek, aitzitik, berekin dakarte hitza hitzari ziztu batez metatzea, eta ulertzaileak hitzak baino gehiago esanahirik gabeko zaratak entzuten ditu. Ahal dela baztertu beharrekoa.

Hala ere, poliki edo azkar kontzeptuak erlatiboak dira, beste hainbat alderdi bezala. Ikusi behar da zein den ulertzailearen hizkuntza-gaitasuna. Ulertzaileak zenbat eta gaitasun altuagoa izan, orduan eta hobeto onartzen ditu erritmo azkarrak. Berriz, gaitasun baxuagoko ulertzaileek erritmo mantsoak gehiago estimatzen dituzte erritmo azkarrak baino. Erlatibotasun puntu horrek are beharrezkoagoa egingo luke kideen arteko hizkuntza-sintonizazioa txukun burutzea. Hala ere, azkarregi hitz egiteari jarritako mugak ez gintuzke beste muturrera eraman behar, hots, mantsoegi hitz egitera. Silabaz silaba egiten den modua ere (“bi-har e-to-rrri-ko ga-ra”), gehiegikeriatzat joko genuke. Batetik, halako modua urruntzen delako komunikazio erritmo naturaletik (gogoan hartu behar da Ulerrizketa metodologia ingurune naturaletan gauzatzen dela). Baina bestetik, halako moduak kontuan hartzen ez duelako esanahiaren gutxieneko unitatea hitza dela, eta ez silaba.

Era berean, interesgarria da mintzatzaileak *esalditik esaldira eten txiki batzuk egitea*, ideiaaren hasiera eta bukaera argiago erakustearren. Honek, argitasuna ekartzea ez ezik, informazioa prozesatzeko denbora pixka bat ere eman egiten dio ulertzaileari. Beraz, oso gomendagarria.

### *Argiago ahoskatu*

Mintzatzaileak *argi ahoskatzen* duenean, erraztu egiten dio ulertzaileari soinu-kateamendutik hitzak identifikatzeko lana, eta, ondorioz, esanahia hobeto eta azkarrago deskodifika de-

zake. Aitzitik, ahoskera iluna izateak (esaterako, letra asko jan izanaren ondorioz), hitzaren nortasuna lanbrotzen du, eta ulertzaileak hura identifikatzeko zailtasun handiagoak izaten ditu. Hitzak laburtzearen beste ondorioetako bat da mintzaldiaren erritmoa azkartzea. Azkartze horrek laburtzen du ulertzaileak hizkuntza-informazioa prozesatzeko duen denbora, aurreko puntuan aipatu bezala.

### *Hitz errazagoak erabili*

*Sinonimoen bidez* adierazten dugu, besteak beste, hizkuntzaren aberastasuna. Ideia edo esanahi bera adierazteko hitz bat baino gehiago izaten dituzte hizkuntzek. Hitz horietako batzuek hedadura handia dute, eta beste batzuek, txikia. Hitz batzuk antzekoak izan arren, haietako bakoitzak izan ohi du maiz adieratxo bereziren bat. Hitz batzuk hizkera formaletan erabiltzeko egokiak izan daitezke, eta beste batzuk lagunarteko erregistro informalean dira zuzenagoak.

Mezuak ulertarazteko ahalegina egin behar duenean, mintzatzaille batek lehenetsi ditzake hedadura handiko hitzak, hedadura murriztekoak ordezkatzuz. Bitarteko interesgarria da hau.

Hala esaterako:

---

- “Galanta” ordez, “polita” esan dezake.
- “Aditu” ordez, “entzun” esan dezake.
- “Gogoeta egin” ordez, “pentsatu” esan dezake.
- “Ebatzi” ordez, “erabaki” esan dezake.
- “Muzin” ordez, “haserre” esan dezake.

*Inguruko erdaretatik etorriak eta euskararen finkatu diren hitzak* ere oso lagungarriak ditu mintzatzailleak mezua ulertzaileari ulergarriago egiteko.

Hala esaterako:

---

- “Azaldu” ordez, “espikatu” esan dezake.
- “Azterketa” ordez, “analisia” esan dezake.
- “Oinetakoa” ordez, “zapata” esan dezake.
- “Iritsi” ordez, “ailegatu” esan dezake.
- “Adi egon” ordez, “fijatu” esan dezake.

Estrategia hau ez luke mintzatzailleak urrutiegira eraman behar. Bere inguruko euskaldunek erabiltzen dituzten hitzak baizik ez lituzke erabiliko. Ez luke asmaketan ibili behar. “Sueloa”, “Bebitu” edo “Manoa” bezalako hitz arrotzak asmatzeak ez luke zentzurik. Kontua ez da erdal hitzak euskalduntzea, baizik eta egun arte geure egin ditugun hitzak erabiltzea.

Hitz hautemangarriak erabiltzeko aukera dagoenean, bitarteko egokia da mintzatzailearentzat. Hitz hautemangarriak dira keinu baten bidez irudika daitezkeenak, marrazki bat egin da edo irudi bat erakutsita ulertzen direnak, hatzez seinala daitezkeenak. Horiek guztiak hitz hautemangarriak dira, ikusi egiten ditugulako. Baina ikusmena ez ezik, gainerako hauteman-organuen bidez, hots, usaimenaren, dastamenaren, ukimenaren eta entzumenaren bidez, antzeman daitezkeen hitzak ere hitz hautemangarriak dira. Hona hemen zerrenda bat: mahaia, mendia, kotxea, lurra, zakurra, burua, ordenagailua, abestia, negarra, puzkerra, ahotsa, gazia, goxoa, mikatza, gogorra, leuna... Hitz hauek guztiak modu zehatz eta zuzenean hautematen ahal izateak ematen die ulertuak izateko erraztasuna.

Hitz abstraktuek, aitzitik, ez dute ia loturarik hautematearekin, eta, haiek ulertzekotan, definizio edo azalpen batera jo behar izaten da. Hitz abstraktuak dira, besteak beste: programa, prestaketa, azterketa, prestutasuna, eginkizuna, erabilera, batzordea, azalpena, laguntza, sukaldaritza... Hitz hauek ulergarriago egiteko, *hobe luke mintzatzaileak hitzaren ordeaz aditza erabiltzea*. Hona hemen adibide batzuk:

Hitz abstraktuaren ordeaz...

---

*“Zein da zure eginkizuna lantoki honetan?”*

... ulergarriago da aditza erabiltzea.

*“Zer egiten duzu lantoki honetan?”*

Hitz abstraktuaren ordeaz...

---

*“Zuri dagokizu aste honetan bulegoko garbiketa egitea”*

... ulergarriago da aditza erabiltzea.

*“Aste honetan zuk garbitu behar duzu bulegoa”*

Hitz abstraktuaren ordeaz...

---

*“Gaur 8etan bizilagunen bilera dugu sotoan”*

... ulergarriago da aditza erabiltzea.

*“Gaur 8etan bilduko gara bizilagunak sotoan”*

## **Esaldi laburragoak egin**

Idea ona izan daiteke murriztea esaldi bakar batean sartu nahi dugun informazioa. Zenbat eta informazio gehiago sartu esaldi batean, orduan eta nekezagoa informazioaren prozesatzea. Aitzitik, informazio gutxiago duten esaldiek errazago eta azkarrago adierazten dute esanahia. Era berean, informazio asko emateak tarteka lausotzen du zein den mamia eta zein



den azala. Informazio gutxi baina hautatua emateak argiago adieraz dezake askotan ideiarik garrantzitsuena. Prest egon beharko luke mintzatzaileak hainbat informazio galtzeko, modu laburrean ari denean. Edo bestela, esaldi laburren kateamendu luzera jo beharko luke, baldin eta informazio guzti-guztiari toki egin nahi izango balio.

Esaldi luze hau baino...

---

*“ETB1ean ostegun gauetan ematen duten “Ur handitan” programa ikusteko asmoa daukat, etxera garaiz iristen banaiz noski.”*

...ulergarriago izan daiteke esaldi labur hau (informazioa galdu arren):

*“Ur handitan” programa ikusi nahi dut.*

Esaldi luze hau baino...

---

*“Arazo handirik ez baduzu, nahiago dut zuk berarekin hitz egitea, gauzak gozo-gozo esango dizkiozulako.”*

...ulergarriago izan daiteke esaldi labur hau (informazioa galdu arren):

*“Hitz egingo duzu zuk berarekin?”*

Esaldi luze hau baino...

---

*“Uste baino diru gutxiago ordainduko digute lehengo egunean aseguruako perituak begiratu zuen matxurarengatik.”*

...ulergarriago izan daiteke esaldi labur hau (informazioa galdu arren):

*“Aseguruak diru gutxi ordainduko digu.”*

## **Sinpleago esan**

Esaldi sinple eta motzak egitea hobetsi beharko luke mintzatzaileak esaldi luze, konplexu eta menpekoak egin ordez. Mezua esaldi luze konplexu bakar batean ematea baino ulergarriago izan daiteke ulertzailearentzat mezua hiruzpalau esaldi motzetan ematea. Beraz, *esaldi motzen kateamendu luzea* egiteak lagunduko lioke mintzatzaileari ideia korapilatsuak era ulergarrian adierazten.

Esaldi luze eta konplexu hau baino...

---

*“Bezeroek eskatutako produktuari ezin izango genioke irtenbiderik eman, daukagun azpiegitura ez baita egokia”*

... ulergarriago izan daiteke esaldi motz eta sinpleak kateatzea:

*“Bezeroak produktu hau eskatzen ari dira.*

*Baina guk ezin diegu eman.*

*Ez daukagu horretarako ez makinarik, ez jende prestaturik.”*

Esaldi luze eta konplexu hau baino...

---

*“Nahiz eta berarekin ados ez egon, esan nion hitz egin behar genuela eta kontuak konpondu”*

... ulergarriago izan daiteke esaldi motz eta sinpleak kateatzea:

*“Ni ez nago ados berarekin.*

*Baina hobe dugu hitz egin eta kontuak konpontzea.*

*Hori esan nion.”*

Esaldi luze eta konplexu hau baino...

---

*“Galdetu zidan ea lagunduko nion abendurako entregatu behar zuen txostena bukatzen”*

... ulergarriago izan daiteke esaldi motz eta sinpleak kateatzea:

*“Presaka dabil gure laguna.*

*Txostena abenduan bukatu behar du.*

*Eta oraindik ez du bukatu.*

*Laguntza eskatu dit.”*

Esaldi motz eta sinpleak kateatzea estrategia ona izan daiteke bereziki menpeko esaldiak (konple-tiboak, erlatibozkoak, kontzesiboak, kausalak...) dituzten adierazpideak arintzeko.

### 3.5.3.

---

## Kideen arteko hizkuntza-sintonizazioa

Bitarteko asko eta asko ditu mintzatzaileak hizkera ulergarri egiteko. Baina zer da zehazki “eus-kara ulergarria”? Ez dago hori modu absolutuan definitzerik. Ikuspegi erlatibora jo beharko ge-nuke ezinbestean. Ulergarritasunaren neurria ulertzaileak ematen du ororen gainetik. Hizkera ulergarria da, horrenbestez, ulertzaileak ulertzen duen hizkera. Beraz, ulertzaile adinako hizkera ulergarri daude.

Praktikan, ordea, ulergarritasuna oso gauza zehatza da jarduleentzat, ez da kontu erlatiboa. Ko-munikazioa gertatzen bada, ulergarritasuna dago. Komunikazioak huts egiten badu, ez dago uler-garritasunik. Jarduleek elkarrekintzari lotzen zaizkionean, hizkera elkarrekiko doitu behar izaten dute, komunikaziorik izango bada. Bataren hitz egiteko modua eta bestearen ulertzeko gaitasuna elkartu behar dira. Prozesu interaktiboa da. Guk sintonizazioa esaten diogu.

Ulerrizketaren hasieran funtsezkoa izan ohi da sintonizazio prozesua. Joan-etorrian, saiatu eta erratu prozesu batean, finkatzen dute mintzatzaileak eta ulertzaileak komunikaziorako egoki izango duten erregistro mota. Biek ala biek dute horretan egiteko azpimarragarria. Batetik, mintzatzaileak hizkeraren sinpletzeko bitartekoak erabiltzen saiatzen delako. Bestetik, ulertzaileak mintzatzaileari orientabide zehatzak helarazten dizkiolako ulergintza hobetzeko. Hona hemen adibide batzuk adierazten dutenak ulertzaile batek zer nolako hizkuntza-erregulazioak eska ditzakeen:

#### ***Eskatu polikiago hitz egiteko***

“Estás hablando muy rápido y no te pillo. Mesedez, polikiago hitz egin!”

#### ***Eskatu argiago ahoskatzeko***

“¿Puedes pronunciar más claro? Te comes muchas letras, y no te entiendo”

#### ***Eskatu hitz errazagoak egiteko***

“Hay muchas palabras que no te entiendo, ¿puedes usar otras?”

#### ***Eskatu esaldi laburragoak***

“Es una frase tan larga que me pierdo, ¿cuál es el meollo en pocas palabras?”

#### ***Eskatu sinpleago esateko***

“Puedes repetirme esa frase, baina sinpleago?”

### 3.6.

## Jokaera egiaztatzailea erabiltzen duena

### **JOKAERA EGIAZTATZAILEA ERABILI** (ULER-KONTROLA EDUKI)

**MINTZATZAILEA** → Galdetu besteari zuzenean zer ulertu duen  
**ULERTZAILEA** → Konprobatu berak zer ulertu duen

*“No es suficiente que yo sepa que te he entendido, sino que tú estés seguro que yo te he entendido.”*

Modu ezin zuzenago honetaz laburtu zuen Arrasaten egindako formazio-saio batean ulertzaile batek bere egitekoa, trebatzaileak eskatu zionean isilik ez gelditzeko eta entzundakoa egiaztatzeko. Solaskideak elkarrekiko hizkuntza-konfiantza eraikitzen ari diren bitartean, ulertzaileak ulertzea adinako garrantzia du mintzatzailea ziur egoteak ulertzailea ulertzen ari zaiola. Ulertzearen gaineko kontrolak onura handiak baititu jarduleen jokaeran. Batetik, mintzatzaileak hizkera sintonizatzeko (erregulatzeko, doitzeko, egokitze...) beharrezkoa duelako halako informazioa, baina, baita ere, bere konfiantza sendotzeko, eta euskaraz egiteko ahaleginari zentzua aurkitzeko. Bigarrenik, ulertzaileak bere entzumenari buruzko atzera-informazioa (feed-back) jasotzen duenean, indartzen dituelako bere buruarekiko hizkuntza-konfiantza, eta euskarazko komunikazioari ematen dion balioa. Eta hirugarrenik, bi solaskideek gero eta zentzu handiagoa aurkitzen diotela ulerrizketari, beren arteko komunikazioak arin eta eraginkor funtzionatzen duenez gero.

Esan daiteke uler-kontrolak onurak dituela alderdi “teknikoan” (hizkuntza erregulatzeko argibideak, norbere jardunaren gaineko atzera-informazioa, estrategia egokiak erabiltzeko irizpideak ematea...), baina era berean alderdi “afektiboan” ere bai (norbere ahaleginari zentzua ikustea, norbere hizkuntza-gaitasunean konfiantza irabaztea, elkarrekiko hizkuntza-konfiantza sendotzea...).

Komunikazioak elkar ulertzea du berezko helburua. Zerbait ulertarazteko mintzatzen da mintzatzailea, eta zerbait ulertu nahian entzuten du ulertzaileak. Helburu hori aurrean edukita, hizkera errazten, egokitzen edo moldatzen du mintzatzaileak, solaskidearengan hizkuntza-gaitasun mugatua antzematen duenean. Horretaz luze aritu gara aurreko ataltxoan. Hala ere, zuhurtziak eta eskarmentuak eskatzen digute aurrekoaz ez konformatzeko. Ahaleginak ahalegin, komunikazio-helburua ez da beti guk uste bezain ongi gauzatzen. Maiz ageri zaizkigu gaizki ulertzeak, ustez besteko interpretazioak, erdizkako ulertzeak eta antzekoak. Hala bada gaitasun altuko kideen ar-

teko komunikazioan, zer ez da izango ba solaskideren batek hizkuntza-gaitasun ertaina duenean? ***Estrategia ona da, beraz, jarduleek tarteka ziurtatzea elkarri ongi ulertzen ari ote zaizkion. Ongi ulertzen ari direla egiaztatuz gero, komunikazioak aurrera jarrai dezake sendotasunez, jarduleek elkarrekiko konfiantza bildu dutelako, komunikazioan bat eginda sumatuta. Gaizki ulertzen ari direla konturatuz gero, aukera dute komunikazio-arazoak konpontzeko, eta berriz komunikazio hariari ziurtasunez heltzeko.***

Egiaztatzeko jokabidea, ordea, ez da erraza gure kultura eremuetan. Iruditzen zaigu bestearen inimitatea bortxatzea dela ea ulertu duen edo ea zer ulertu duen galdetzea. Elkar ulertzen dugula oinarrizko suposizioa izanik, iruditzen zaigu denbora galtzea edo alferrikako jokabidea dela ustez ulertu duguna egiaztatzea. Ulerrizketan, ordea, funtsezkoa da ulertutakoa egiaztatzea, hasieran batez ere.

Ulerrizketa metodologiaren hasieran oso maiz heldu beharko liokete mintzatzaileak eta ulertzaileak egiaztatze jokaerari. Hasiera horretan, hain zuzen ere, elkarrekiko konfiantza komunikatiboa ari dira eraikitzen jarduleak, probatzen ari dira zer gauzez hitz egin dezaketen, zein sakontasunez, zein ulermen maila duen ulertzaileak, zertan egokitu behar duen hizkera mintzatzaileak, eta beste hainbat kontu. Hori guztia, gainera, beren arteko hizkuntza-ohitura urratzen ari diren une batean ematen ari da, eta horrek, nahitaez, zalantzak, ezinegona, eta ziurgabetasuna sortzen dizkie. Elkarrekiko konfiantza komunikatiboa eraikitzeak esan nahi du, besteak beste, zalantzak uxatu behar dituztela. Nekez egingo du aurrera euskarazko komunikazioak, baldin mintzatzaileak zalantzak badiu ulertzailearen ulertzeko gaitasunaz, edota, atzekoz aurrera ere, ulertzaileak zalantzak badiu bere ulertzeko gaitasunaz mintzatzailearekin jarduterakoan. Zalantza horiek guztiak uxatzeko ez dago ulertutakoa egiaztatzea bezalakorik. Komunikazio-egoeraren diagnostiko errealista egiten laguntzen du. Agerian uzten du euskarazko komunikazioa noraino eraman daitekeen eta noraino eramatea ez den komeni. Argibideak ematen dizkie jarduleei beren hizkera erregulatu, egokitu edo moldatzeko. Horregatik, hasieran egiaztatzeari emandako denbora guztia ez litzateke zertan hartu denbora galdutzat, baizik eta etorkizunerako inbertsioztat edo etxearen zutabeak jartzeko alditzat.

Behin komunikazioaren etxearen zutabeak finkatuz gero, saretu edo tartekatu egin daiteke egiaztatze jokaera, inoiz guztiz desagertuko ez den arren. Egiaztatze jokaera, orduan, une zehatzetan baizik ez dute erabiliko jarduleek, beharrak hala eskatuta.

Ulertzaileak uler-kontrola edukitzeko erabiltzen duen estrategiari **“Konprobatu zer ulertu duzun”** esaten diogu. Hartan, laburrean itzultzen dio mintzatzaileari, egiaztza dezan, berak ulertutakoa. Honako tankera hau har lezake:

(Mintz.) Gaur arratsalderako eguraldi kaxkarra iragarri dute.

(Ulertz.) Ah, que a la tarde viene mal tiempo, ¿no?

(Mintz.) Bai, txarra baino txarragoa. Haize bolada handiak etorriko dira.

- (Ulertz.) O sea, haize asko...
- (Mintz.) Bai. Pentsa! Alarma laranja jarri dutela entzun dut albistegian.
- (Ulertz.) ¿Benetan? ¿que han anunciado alarma naranja?
- (Mintz.) Bai, bai, alarma naranja. Baina tira, nik behintzat gaur ez dut etxetik ateratzeko asmorik.
- (Ulertz.) Vamos, que tú tranquilo sin salir de casa.
- (Mintz.) Hala da. Eta zuk zer? arratsaldean kalean ibili behar duzu?
- (Ulertz.) ¿A ver si voy a salir a la calle a la tarde?
- (Mintz.) Bai
- (Ulertz.) Ez, ni ez naiz kalera aterako.

Formatu honetan, elkarrizketa bizi-bizi doa, eta txanda bakoitza laburra da. Mintzatzailea eta ulertzailea txandaka dabilta, bata bestearen ondoan. Ulertu uste duena itzultzen dio ulertzaileak mintzatzaileari, laburrean eta ez beti oso literalki, baina horrek ez du garrantzi handirik testuinguru honetan. Mintzatzaileak, lehendabizi, ulertzailearen interpretazioa egiaztatzen du, eta, ondoren, informazio gehiago ematen du.

Hala ere, irudika genezake beste formatu bat, non mintzatzaileak aurrekoan baino txanda luzeagoak hartzen dituen. Formatu hau egokia izan liteke mintzatzaileak, esaterako, ideia bat garatu behar duenean. Ikus dezagun adibide bat:

- (Mintz.) Urteko balantzeak esaten du bezero batzuk galdu ditugula. Eta ez dira bezero berriak. Bezero zaharrak dira, gurekin urte asko egin dituztenak. Oso kezkatuta nago.
- (Ulertz.) Dices que hemos perdido algunos clientes viejos, ¿no?
- (Mintz.) Bai, hala da. Nire ustez, bilera bat egin behar dugu lehenbailehen departamentu guztietako arduradunekin. Eta bertan aztertu behar dugu zein den arrazoia, eta zer irtenbide dauden.
- (Ulertz.) Ya te entiendo: hacer una reunión para analizar la situación.
- (Mintz.) Bai ongi ulertu duzu. Egoera aztertu, baina gero irtenbideak bilatu.
- (Ulertz.) Claro, y buscar soluciones también.

Adibide honetan, mintzatzaileak txanda luzeagoak hartzen ditu (hiruzpalau esaldietakoa). Ulertzaileak modu laburrean biltzen du ulertutakoa. Mintzatzaileak egiaztatzen du ulertzaileak laburtu duena. Laburpenetan detaile batzuk galtzea ez da harrizkekoa, baina mintzatzaileak halakoei garrantzirik ematen ez badie, laburpena ontzat eman eta aurrera jarraitzen du elkarrizketarekin. Ordea, laburpenean detaile bat agertu ez eta mintzatzaileak horri garrantzia ematen badio, orduan arreta hari eman diezaioke ulertzea ziurtatzeko (adibidearen azken bi txandatan ikusten da halako zati bat, non arreta detaile bati eman dion mintzatzaileak).

Puntu honetara iritsita, norbaitek galde lezake: ulertzaileak ongi ulertzen badu, zergatik itzuli behar du ulertutakoa etengabe? Ez al da hori denbora galtzea? Bai eta ez, ikusi behar da zein den prozesuaren unea. Hizkuntza-sintonizazioa eta hizkuntza-konfiantza ongi eraikita direnean, bai, alferrikakoa da estrategia halako maiztasunez erabiltzea. Baina prozesuaren hasieran, euskarazko komunikazioa oraindik arrotz, ahul eta ziurtatu gabea denean, ez dago estrategia hau baino hoberik jarduleen arteko hizkuntza-konfiantza eraikitzeke. Agian, modu honek pixka bat mantsotu dezake komunikazioaren abiadura, baina ez gehiegi ere. Aurreko adibideetan ikusi dugun bezala, elkarrizketa aski bizi eta naturala izaten da. Abiaduran gal daitekeena, batetik, “zutabegintzan” irabazten da, bestetik. Komunikazioaren zutabeak ari dira jarduleak jartzen hasierako une horretan, eta haien gainean finkatuko da gerora komunikazioaren eraikin osoa. Ez da hutsala, beraz, zutabeok sendo-sendo gertatzea. Gaude Ulerrizketa metodologiaren hasieran tokirik garrantzitsuena estrategia berorri eman beharko liokeela ulertzaileak.

Elkarrekiko hizkuntza-konfiantza eraiki horretan, bidea ez da beti zuzena izaten. Modu laburrean itzultzeari esker, mintzatzailea ere konturatu egiten da tarteka ulertzaileak ez duela dena ongi ulertzen. Baina, konturatze horrek izugarri laguntzen dio mintzatzaileari jakiteko bere hizkera zertan eta nola erregulatu edo egokitu behar duen, eta, baita ere, jakiteko hizkera nola malgutu behar duen komunikazio-hutsuneak behin agertuz gero gainditzeko. Ikusi hurrengo adibidea:

- (Mintz.) Uste dut kotxea tailerrera eraman behar dudala.
- (Ulertz.) Ahh, el coche al taller.
- (Mintz.) Bai. Azken boladan oso zarata arraroa ateratzen du motorrak.
- (Ulertz.) Y la moto también!!! ¿También vas a llevar la moto al taller?
- (Mintz.) Ez. Motoa ez. Esaten ari naiz, kotxea arrankatzen dudanean pluff-pluff bat entzuten dudala.
- (Ulertz.) Ahh, vale, que al arrancar el coche escuchas un ruido, ¿no?
- (Mintz.) Bai, hala da. Kotxea ona atera zait, baina ja zaharra da.
- (Ulertz.) Bai, zaharra dago kotxea.
- (Mintz.) Hori da. Baina beldurrez nago. Kotxea tailerrera eraman gauza bat konpontzera eta azkenean gauza pila ateratzen dituzte.
- (Ulertz.) ¿dices que tienes miedo que no te arreglen bien el coche?
- (Mintz.) Ez, hori ez. Begira: kotxea tailerrera eramango dut.
- (Ulertz.) Sí, que llevas el coche al taller.
- (Mintz.) Nik uste dut arrankea dela.
- (Ulertz.) Sí, que piensas que el arranque está mal.
- (Mintz.) Horixe. Baina gero mekanikoak begiratu eta... bujia gaizki, argia gaizki, gurpilak gaizki. Gauza pila gaizki.
- (Ulertz.) Ahh!! Y luego el mecánico te encuentra de todo, ¿no?
- (Mintz.) Bai jauna. Hori da nire beldurra.

Aurreko adibidean, ikus daiteke nola ulertzaileak, “konprobatu zer ulertu duzun” estrategia erabilizten duenean, mintzatzaileari aukera ematen dion ulertzailearen esana baieztatzeko edo ezeztatzeke. Ezetza gertatzerakoan, mintzatzaileak gaizki ulertzea zuzentzen du bestelako adierazpideak bilatuz. Adibidean, gaizki ulertzea txanda bakarrean zuzendu da. Ordea, bigarren gaizki ulertzea konpontzeko sei txanda erabili dituzte. Gaizki ulertzeak konpontzeko moduak eta estrategiak ez dira berez atal honetako gaia, hurrengoarena baizik. Hala ere, ez da kaltegarri ikustea nola estrategia desberdinak beren artean kateatzen diren funtzionamendu bizi eta dinamiko batean.

Ukertzaileak ulertu duena konprobatu ahal izateko, tokia eta une aproposak beharko lituzke. Eta mintza-txanda hartzeko borroketan ibili behar ez izatea eskertzekoa litzateke. Aurreko batean jada hitz eginda geunden zer arrisku dituen mintzatzaileak etengabe hitz egiten jarduteak, ulertzaileari tokirik utzi gabe. Orain, berriz, aipatu nahi genuke mintzatzaileak luze hitz egiteak egiaztatzeren funtzioari dakarkion kaltea. Izan ere, ulertzaile askok atzera egiten dute ulertutakoa egiaztatzearen egitekoari dagokionez, ausartzen ez direlako mintzatzaileari mintzaldia eteten, pentsatuz agian heziketa txarreko jardunean ari direla horrela jokatuta. Ulertzaile asko uzkurto egiten dira euskarazko komunikazioaren aurrean, beren burua hizkuntza-bitartekoei dagokienez mugatuta ikusten dutelako, eta, maiz, mintzatzailearen parean sentitu ordez haren azpian-edo sentitzen baitira. Halako bizipenak dituen ulertzaile batek nekez etengo du mintzatzailearen mintzaldia egiaztatze estrategia erabiltzeko. Beraz, urrearen balioa du mintzatzaileak berak tarteka isiluneak egitea. Isiluneotan aukera ematen dio ulertzaileari uler-kontrol funtzioa erabil dezan. Eta ulertzaileak egingo ez balu, orduan mintzatzaileak berak ekimena har lezake. Mintzatzailearen jokabide honi **“galdetu besteari zuzenean zer ulertu duen”** esaten diogu.

Demagun egoera bat non mintzatzaileak zalantzak dituen ulertzaileak ongi ulertu ote dion, eta, hala ere, ez dio ekimenik ikusten ulertua egiaztatzeko (egiaztatu ordez isilik gelditzen da edo hitz/soinu zehaztugabeak esaten ditu). Halakoetan, mintzatzaileak zuzenean galde diezaioke ulertzaileari ulertutakoaz:

- (Mintz.) Pilik deitu zidan aurreko egunean eta esan zidan Aintzane gaixo dagoela.  
 (Ukertz.) ..... (Isilik dago, txintik esan gabe. Mintzatzaileak, ordea, zalantzak ditu ulertu ote dion)
- (Mintz.) Ulertu al didazu?... Norekin hitz egin dut ba?  
 (Ukertz.) Piliberekin, ¿no?
- (Mintz.) Bai, eta zer esan dit?  
 (Ukertz.) Algo de Aintzane, pero no te he pillado muy bien.
- (Mintz.) Aintzane gaixo dagoela.  
 (Ukertz.) Ondo, ahora sí, que está enferma. ¿Y qué tiene?
- (Mintz.) Gripeak jota dago.  
 (Ukertz.) Beno, pues a ver si vamos a hacerle una visita.



Mintzatzaileak ere, ulertzaileak ulertu ote dion zalantzak dituenen, eskaera egin diezaioke, laburrean itzuli diezaiola ulertu duena, hurrengo adibidean bezala:

- (Mintz.) Pasa den astean eskatu genuen materiala gaur arratsaldean iritsiko zaigu SEUR-ren bidez. Transportistak telefonoz deitu digu hori esateko.
- (Ulertz.) Ahh, bai.
- (Mintz.) Ulertu al duzu?
- (Ulertz.) Bai
- (Mintz.) Seguru? Esan mesedez zer ulertu duzun.
- (Ulertz.) Que tenemos que mandar el material por SEUR, ¿no?
- (Mintz.) Ez, ez da hori. Materiala GUK eskatu dugu.
- (Ulertz.) Sí, que nosotros hemos pedido el material.
- (Mintz.) Hori. Eta SEUR-koek ekarriko dute gaur arratsaldean.
- (Ulertz.) Ahh, vale, y que hoy a la tarde lo trae SEUR. Perfecto.

Aurreko bi adibideetan ikusten da nola mintzatzaileak ez dituen onartzen ulertzailearen isiluneak (lehenengo adibidean), edo hitz labur zehaztugabeak (bigarren adibidean), haiek ez baitiote ulertutakoaren egiaztatzeari laguntzen. Halakoen ordez ulertzaileari eskatzen dio bere ahotik esan dezan zehazki zer ulertu duen.

Egiaztatze aldiko arriskurik handiena **“orokorregi ibiltzea”** da. Hau da, ulertzaileak ez zehaztea zer ulertu duen eta zer ez duen ulertu. Ez du nahiko informaziorik ematen. Hitz eta soinu orokorretan gelditzen da. Mintzatzaileak, bere aldetik, onartu egiten du edo balekotzat ematen du orokortasun hori.

Ikus ditzagun lau egoera non ulertzaileak orokorretik jotzeko bidea hartzen duen, eta mintzatzaileak erantzuten dion zehaztasunaren eske, egiaztatzearen zeregina betetzeko asmoz.

- 1) Ulertzailea, askotan, **isilik gelditzen da**, eta mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.
  - Laguntza: Mintzatzaileak egiaztatu beharko luke zer ulertu duen, **zuzenean galdetuz**.  
*Ulertu duzu?*  
*Bai*  
*Baina zer ulertu duzu?*
- 2) Ulertzaileak **“Ahhh!, Ummm!”** bezalako soinuak edo **“Aiba!!, Kontxo!!!”** bezalako hitz orokorrak erabiltzen ditu, eta mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.
  - Laguntza: Mintzatzaileak egiaztatu beharko luke zer ulertu duen, **zuzenean galdetuz**.

*Ulertu duzu?*

*Bai*

*Baina zer ulertu duzu?*

- 3) “**Sí, he entendido**” bezalako esaldi orokorrak esaten ditu ulertzaileak, baina mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.

- Laguntza: Mintzatzaileak egiaztatu beharko luke zer ulertu duen, **zuzenean galdetuz**.

*Ulertu duzu?*

*Sí, ya he entendido*

*Baina zer ulertu duzu?*

- 4) Zerbait ulertu du ulertzaileak baina ez dena, eta, hala ere, erosokeriagatik, orokorretik jotzen du, esaten duela: “**No he entendido, ¿qué has dicho?**”.

- Laguntza: Mintzatzaileak egiaztatu beharko luke zer ulertu duen, **zuzenean galdetuz**.

*No he entendido, ¿qué has dicho?*

*Ez duzu EZER ulertu?*

*Bueno, algo sí he entendido*

*Zer ulertu duzu ba?*

*Pues que...*

## 3.7.

## Hizkera malgua erabiltzen duena

### HIZKERA MALGUA ERABILI (ULER-TRABAK GAINDITU)

**MINTZATZAILEA** → Berregin esaldia, beste modu desberdin batez esanda, erdarara pasa gabe

**ULERTZAILEA** → Argitu zer ez duzun ulertu

Nahiz eta hizkera egokitua, erraztua eta moldatua erabili, tarteka sortzen dira gaizki-ulertuak, komunikazio-hutsuneak, edo erdizkako ulertzeak. Ahalegin guztiak eginda ere, halakoak ez dira sekulan guztiz desagertzen. Komunikazio-hutsuneak komunikazioaren beraren ifrentzua baitira. Hizkera egokituak laguntzen du komunikazio-hutsuneen kopurua gutxieneko mailara eramaten, halako moldez non elkarrizketaren jario nagusia ez baita auzitan jartzen, baina trabak desagertu ez dira sekulan desagertuko. Horrenbestez, komunikazio-hutsuneak noiz edo noiz agertuko direnez gero, haiek gainditzeko estrategiaren bat behar luke ulerrizketak prest eduki.

Uler-trabak erraz identifika daitezke egiaztatze saiotik bertatik etorrira. **Ulertzaileak zehazki esaten duenean zer ulertu duen, orduan mintzatzaileak badaki zer duen ongi ulertu eta zer gaizki ulertu. Aukera du, orduan, gaizki ulertutakoa argitzeko. Baina, bestela ere, ulertzaileak berak har dezake ekimena, eta zuzenean galde dezake ulertu ez duenari buruz.** Estrategia horri honako izen hau eman diogu: **“Argitu zer ez duzun ulertu”**.

Argitzeko eskaera zuzen egin daiteke:

(Mintz.) Esan ziguten paketea iristerakoan deitzeko.

(Ulertz.) Espera... ¿quién le tenía que llamar a quién?

(Mintz.) Utzi arropa pasilloa bukatzean dagoen gelan

(Ulertz.) ¿En qué habitación quieres que deje la ropa?

Halaber, oso modu interesgarria da aldi berean esatea zer ulertu dugun eta zer ez. Ulertutakoaren adierazpenak marrazten du, nolabait, testuinguru komunikatiboa, eta, hartan, oso ongi kokatzen da ulertu ez dena. Ikusi honako adibide hauek hobeto ulertzeko:

(Mintz.) Lantegietan gero eta robot gehiago sartuko dira hemendik aurrera.  
(Ulertz.) Sé que estás hablando de robots en el currelo, pero ¿qué quieres decir exactamente?

(Mintz.) Taulan irakurri dut bihar bilera dugula, ERE kontuaz hitz egiteko. Sindikatu guztiek batera egin dute deia.

(Ulertz.) Si, reunión para los del ERE. Pero ¿quién convoca? Eso no me ha quedado claro.

Uler-trabak gainditzeko, mintzatzaileak hizkuntzaren malgutasunean oinarritu behar du, modu batean ezin esan dezakeena beste modu batez esan ahal izateko. Hizkuntza modu malguan erabil-tzeak esan nahi du ideia bera hamaika modu ezberdinetan adieraz daitekeela; hau da: ez dagoela modu bat eta bakarra zerbaiz komunikatzeko. Malgutasuna da jakitun izatea modu bat erabilita komunikatzea lortzen ez dugunean, aldamenen beste hamaika modu desberdin ditugula komuni-kazioa berriz saiatzeko. Modu batek kale egiten duenean, beste modu bat bila dezakegu, eta beste bat behar izanez gero, harik eta modu egokia aurkitu arte. Horri esaten diogu hizkuntza-malguta-suna. Malgutasunez jardutea da mintzatzaileari komunikazio-hutsuneen aurrean eskatzen diogun jokaera nagusia, ulerrizketan.

Demagun: zenbat modu daude “norbaiti esateko atea itxi dezala”? Modu bakarra? Modu asko? Ariketari ekin diogu, eta zerrenda luzea atera zaigu azkar batean. Ez dira horiek, jakina, guztiak izango, baina balio beza ariketak hizkuntzaren malgutasuna irudikatzeko.

- Itxi atea, mesedez!
- Itxi ezazu atea!
- Zarratu atea!
- Itxiko al duzu atea?
- Itxiko al zenuke atea, arren?
- Begiratu niri (eta mugimendu batez atea ixten du). Orain zuk berdina egin.
- Nork ireki du atea? Zuk? Ba utzi lehen zegoen bezala.
- Ate horretatik haize pila sartzen ari da. Mesedez... (eta atea ixteko keinu bat egiten dio aldamenekoari)

Eta ugari badira esateko moduak aurrekoa bezalako mezu sinpleak hartuta, zer ez den izango mezu edo ideia konplexuak aintzat hartzen ditugunean: biderkatu egiten dira aukerak, eta esaldiak berregiteko bideak.

Demagun, honako ideia konplexu hau adierazi nahi dugula: “Susmoa daukat ez zaizula gustatu nik lehen esandakoa”. Ikus ditzagun modu desberdinak ideia hori adierazteko, edo behinik behin esanahiaren muinera hurbiltzeko.

- Iruditzen zait ez dituzula ongi hartu nire hitzak
- Molestatu bazaitu nik lehen esandakoak, mesedez esadazu
- Ez nago ziur, baina uste dut moskeatu zarela
- Zer? Haserre zaude, ezta? Nire hitzak al dira arazoa?
- Nik hori esan eta aurpegi arraroa jarri duzu
- Ez al zaizu gustatu nire hitz egiteko modua?

**Hizkuntza-malgutasuna dugu tresnarik indartsuenetarikoa uler-trabak gainditzeko. Zer-bait modu batean ezin dugunean ulertarazi, orduan aukera daukagu esaldia goitik behera aldatu eta berregituratzeko, eta beste modu desberdin batez esateko.** Jokaera mota honi gaitasun estrategikoa esaten zaio psikolinguistikaren bibliografia espezializatuan. Gaitasun estrategikoa defini daiteke era honetara: komunikazio-helburuak lortzeko, norberak dituen bitartekoak modu sortzaile eta malguan erabiltzea. Malgutasuna oinarri duen strategiari ulerrizketan **“berregin esaldia, beste modu desberdin batez esanda, erdarara pasa gabe”** esango diogu.

Komunikazio-hutsuneak gainditzeko erdaraz baliatzea estrategia egokitzat joko al genuke ulerrizketan? Erantzuna, funtsean, emanda dago aurreko atal batean mintzatzailearen hizkuntza-jokaeraz hitz egin dugunean. Hartan esaten genuen mintzatzaileak nagusiki euskaraz egin behar duela, eta joera horri behar diola tinko eutsi. Baina, autoerregulaziorako tarterik ere ezagutzen genion arauari. Hala, mintzatzaileak erdara baliatzeko aukera izango luke bere ustez egoeraren larriak hala eskatzen duenean. Oraingo hizpidera ekarrita, beraz, esan genezake mintzatzaileak komunikazio-hutsuneak gehienbat eta nagusiki euskaratik euskarara gainditu behar dituela. Hauxe da arau nagusia, estrategia lehenetsia, joera argia. Erdara erabiltzea, ordea, salbuespentzat hartu beharko genuke, egoeraren larriak (tentsioa, presa, gaiaren garrantzia, blokeoaren intentsitate handia...) eskatzen duenerako soilik gordeta. Metodologiari arau argia eman nahi diogu, baina ez itogarria.

Ulerrizketa proposamen bat da egoera soziolinguistiko jakin/berezi baterako: bi hiztunek badute kode komun bat (erdara); biak ala biak ongi moldatzen dira kode horretan, eta badute errotuta hura erabiltzeko ohitura. Posizio ahulean dagoen kode bati (euskarari) aukera zabaltzeko bidea da ulerrizketa; beraz oinarrizko kontuetako bat da erdararako balizko bidea mugatzea, eta, bide batez, euskarazko baliabideak lehenestea.

Atal honetan aintzat hartu behar den arriskurik handiena honako hau da: **“zehatzegi ibiltzea”**. Zehatzegi esaterakoan, esan nahi dugu komunikazioaren plano arrunta utzita beheko plano batera igaro garela, hots: gaiaren eremutik hitzen eremura mugitu garela. Halakoetan, kideak gehiegi korapilatzen dira hitz zailen inguruan, arreta hitzon esanahiaren argitzeari emanda; eta, hori egin bitartean, elkarrizketaren gaitik dezente aldentzen eta desbideratzen dira.

Denboraren afera funtsezkoa da komunikazioan, batez ere ingurune naturaletan ematen den komunikazioan. *Komunikazio errealean denboraren erabilera errearen pare izanik, esan genezake, ez dela komeni gaiaren hari nagusitik gehiegi aldentzea.* Ulerrizketa ingurune naturaletan garatzen da.

Bizitasuna edo azkartasuna da halako inguruetan ematen den komunikazioaren ezaugarri nabarmenetakoa. Egia da: komunikazioak halako jario etengabea behar du. Ezin du etenez beterik egon. Jasangaitza litzateke komunikazio-hutsuneak etengabe konpontzen ibili behar izango bage-nu. Eta zerbait argitzekotan (hizkuntza-kontuez soilik ari gara hemen), ezin zaio halakoari denbora askorik eskaini. Komunikazio naturalak halako jarraitasun, dinamismo eta bizkortasuna behar ditu, eta, ondorioz, ezin dio tarte handiegirik eskaini komunikazio bizkor horren haritik desbideratzen den edozein jardunari. Beraz, “denboraren” irizpidearen iragaitzatik pasa beharko genituzke delako estrategiok, egokienak hautatzekotan. Denboraren irizpideak dio ezen estrategia egokiek ahalik eta denbora tarterik gutxiena kendu beharko lioketela komunikazioaren hari nagusiari.

Agian, komeniko litzateke adibide batzuk ematea kontua hobeto ulertzeko. Hasteko, jabe gaitezen, jarduleek arreta hizkuntza-forma zehatzei ematen dietenean, zein arrisku handia dagoen arreta komunikazioaren haritik desbideratzeko. Hala ikus daiteke, esaterako, hurrengo elkarrizketan:

- (Mintz.) Nork antolatu du jaialdi hori?  
(Ulertz.) Zer da antolatu?  
(Mintz.) Ba zuk jaialdi bat egin nahi baduzu, ez da bakarrik ateratzen, prestatu behar duzu, artistekin hitz egin behar duzu, publizitatea egin behar duzu. Hori da jaialdi bat antolatzea.  
(Ulertz.) ¿Programar?  
(Mintz.) Beno, antzekoa... zerbait antolatzen duzunean programatu behar duzu bai, baina gauza gehiago egin behar dituzu: presupuestoak egin behar dituzu, ebaluazioa egin, ikusi gauzak ongi egiten ari direla...  
(Ulertz.) ¿Supervisar?  
(Mintz.) Ez....

“Antolatu” hitza argitu nahian denbora asko (gehiegi) hartu dute jarduleek adibidean. Bideanabar, komunikazio nagusiaren haria galdu egin dute, halako tarte “esplikatiiboari” bide emateko. Hemen elkarrizketaren gai nagusia baztertu egin da, jarduna hizkuntzaren aldera zuzenean bideratuz (“antolatu” hitzak hartu du arreta guztia). Jardun mota hau, nolabait, oso interesgarria izan liteke ingurune babestuetan (hizkuntza eskoletan, trebatze saioetan, eta antzekoetan), non arreta hizkuntzari eta hizkuntza-formei ematea beharrezkoa den, hizkuntza-gaitasuna garatzea helburu esplizitua duten neurrian. Baina jardun mota hori desegoki eta baztertu beharrezkoa da ulerrizketan, zeren ingurune naturaletan garatzen baita, eta arreta nagusia komunikazioaren jario biziari emana baitago.

Hona hemen aholku edo irizpide batzuk aplikatu daitezkeenak ulertzaileak “zehatzegi” ibiltzeko joera duenean.

Aurrena, aitortuko genuke badagoela hitzen mailako eskaerei kasu egitea, baldin eta erantzunek

oso denbora gutxi eskatzen badute. Hala, esaterako, sinonimo erabiltzea aski izan daiteke batzuetan uler-traba gainditzeko. Ikusi:

(Mintz.) Giro zoragarria dago hemen!!

(Ulertz.) ¿Qué es zoragarria?

(Mintz.) Oso ona

(Mintz.) Badaukazu astirik?

(Ulertz.) ¿Astirik?

(Mintz.) Denborarik

Baina, azalpenak korapilatzen direnean, bestelako bidea hartzea lehenetsiko genuke. Protokoloa hauxe izango litzateke: 1) “ahaztu” arazoa sortzen duen hitza, 2) aldatu arreta hitzaren mailatik esaldiaren mailara, eta 3) berregin esaldi osoa hitz hura bertan behera utzita. Ikusi ondorengo adibideak hobeto ulertzeko:

(Mintz.) Nork antolatu du jaialdi hori?

(Ulertz.) Zer da antolatu?

(Mintz.) Lasai, beste modu batez esango dizut: nork prestatu du jaialdia?

(Ulertz.) ¿Preguntas que quién ha preparado el jaialdi?

(Mintz.) Bai.

(Mintz.) Garaiz iritsi behar, bestela trena galduko dugu

(Ulertz.) ¿Garaiz? ¿Qué es eso?

(Mintz.) Itxoin. Ea horrela esanda: Trena 12etan daukagu. 11etan jada han egon behar dugu.

(Ulertz.) O sea, que tenemos que estar una hora antes.

(Mintz.) Bai.

(Mintz.) Liburu hau 2015.ean argitaratu zuten.

(Ulertz.) No te he entendido, ¿qué es argitaratu?

(Mintz.) Ea, entzun beste forma honetan: Liburu hau dendetara iritsi zen 2015. urtean.

(Ulertz.) Sí, que el libro estaba en las tiendas ese año, ¿no?

(Mintz.) Bai, hala da.

Adibide hauetan guztietan, mintzatzaileak ihes egiten dio ulertzaileak egindako galderari (hitz baten esanahiari arreta ematen ziona), eta arreta bideratzen du esaldi osoaren esanahira, baina

oraingoan esaldia berreginda edo egokituta. Jokaera honi esker, ez dute jarduleek elkarrizketaren gaia galtzen, eta oso denbora gutxi hartzen dute komunikazio-hutsunea gainditzeko.

Esaldia zuzenean berregiteaz gain, badu mintzatzaileak beste bide bat arreta hitzetatik esaldira aldatzeko, eta da “besteari zuzenean galdetzea zer ulertu duen”. Ulertzailea dugu hitz bati buruz galdezka, baina mintzatzaileak esaldiaz galdetzen dio. Horrela eginda, ulertutakoa egiaztatzen edota ulertugabea argitzera bideratzen du ulertzailea. Ikus ditzagun aurreko adibide berberak beste formatu honetan:

- (Mintz.) Nork antolatu du jaialdi hori?  
(Ulertz.) Zer da antolatu?  
(Mintz.) Nola ulertu duzu esaldia?  
(Ulertz.) Has preguntado que quién el festival quién quién va a actuar?  
(Mintz.) Ez. Nork prestatu duen. Udalak prestatu du? Gaztetxeak? Nork?  
(Ulertz.) Ahh, creo que lo ha organizado la comisión de fiestas  
(Mintz.) Primeran.

Ukertzailea ari da hipotesi bat egiten, ulertu duena eta ez duena uztartu nahian. Ulertu ez duena gainditzeko ahalegina egiten ari da: logika erabiltzen du, irudimena erabiltzen du, gaiaren ezagutza baliatzen du. Guztiz onuragarri zaio ulertzaileari ulertzeko ahalegin hori egitea.

- (Mintz.) Garaiz iritsi behar, bestela trena galduko dugu  
(Ulertz.) ¿Garaiz? ¿Qué es eso?  
(Mintz.) Zer ulertu duzu esaldian?  
(Ulertz.) ¿...que perdemos el tren?  
(Mintz.) Bai, berandu bagoaz bai.  
(Ulertz.) Claro, si vamos tarde...  
(Mintz.) Horregatik, goiz joan behar dugu, badaezpada ere.

Ukertzaileak ulertu duena hipotesi gisa mintzatzaileari laburrean itzultzen dihonean, elkarrizketak askoz ere kutsu naturalagoa bereganatzen du.

- (Mintz.) Liburu hau 2015.ean argitaratu zuten.  
(Ulertz.) No te he entendido, ¿qué es argitaratu?  
(Mintz.) Ez duzu ezer ulertu esaldian?  
(Ulertz.) Sí, que el libro es del año 2015.  
(Mintz.) Bai. Ba hori, urte horretan atera zen kalera liburua



Bukatze aldera goaz. Amaitu aurretik, ordea, azken kontu bati erreparatu nahi genioke. Orain artean, adibide guztiak *esaldiaren mailan* kokatu ditugu (hots, esaldiak transmititzen duen esanahia-  
ren mailan), baina, komunikazioari begira, esaldiaren mailak bezainbesteko garrantzia du *testuaren mailak*.

Testua esaten dugunean, labur esateagatik, adierazten ari gara esaldi ugariren kateamendu bat behar izaten dugula ideia bat adierazteko, argumentu bat emateko, edo kontakizun bat egiteko. Testuaren mailari erreparatzen diogunean, konturatzen gara hierarkia batzuk sortzen direla esaldien artean, eta, hala, ideia batzuk funtsezkoak izan daitezke eta beste batzuk osagarriak, are beste batzuk zeharo apaingarriak ere. Badago mamia eta badago azala. Badago muina eta badago detailea. Badago orokorra eta badago zehatza. Horren arabera, ez dute garrantzi komunikatibo bera esaldi eta informazio guztiek testu baten barruan.

Honek pentsarazi beharko liguke komunikazio-hutsune guztiek ez dutela garrantzi komunikatibo bera. Hala, hutsune batzuk argitzeak eta konpontzeak egundoko garrantzia izan lezake, baldin eta testuak adierazi nahi duenaren muinari berari zuzenean badagokio. Berriz, premia ez litzateke hainbestekoa baldin hutsuneak testuaren pasarte azalekoetan kokatuta baleude. Denbora urrea denean, komeni da argi edukitzea lehentasunak zeintzuk diren: zer ulertarazi behar den nahitaez, eta zer utz daitekeen bazterrean behar izanez gero.

Trebatzaileak halako aholkuak helaraziko dizkie jarduleei formazio-saioan. Baina, aplikazioa guztiz dago haien senaren baitan.

## 3.8.

### **Komunikazio-estrategien zerrenda**

Testuan zehar aipaturiko estrategia nagusiak bildu ditugu atal honetan. Zehaztuta daude ulerrizketaren lau atal nagusiak, batetik, eta bakoitzean mintzatzaileari eta ulertzaileari dagozkien estrategiak, bestetik. Era berean, atal bakoitzean aintzat hartu beharreko arriskuak ere aipatu dira. Bi bertsio eman ditugu. Lehenengoan, azalpenak eta deskribapenak eskainiz. Bigarreanean, berriz, modu eskematiko batera jo dugu.

## 3.8.1.

## LABURPEN ESPLIKATIBOA

## ULERRIZKETAREN ATAL NAGUSIAK, KIDEEN FUNTZIOAK ETA ARRISKUAK

**1) JARDUTEA** – (Ulertzaileak ongi ulertzen duenean)Mintzatzailea → **Euskaraz jardun nagusiki**Ulertzailea → **Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz****Arriskua: Bakarrizketan aritzea**

Kide batek luze hitz egiten du eta besteak oso isilik dihardu

**2) SINTONIZATZEA** – (Ulertzaileak gutxi edo oso gutxi ulertzen dionean mintzatzaileari)Mintzatzailea → **Euskara ulergarria erabili**Ulertzailea → **Eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko****Arriskua: Ezin ulertzea**

Kide batek ez du hizkera egokitzen besteren mailara (hizkera itxia, tokiko hizkera, hizkera jasoa), eta besteak oso isilik dihardu.

**3) ZIURTATZEA** – (Ulertzaileak edo mintzatzaileak seguru egon nahi dutenean)Mintzatzailea → **Galdetu besteari zer ulertu duen**Ulertzailea → **Konprobatu zer ulertu duzun****Arriskua: Orokorregi ibiltzea**

Kide batek ez du zehazten zer ulertu duen eta zer ez duen ulertu, ez du nahiko informaziorik ematen, eta hitz edo soinu orokorretan gelditzen da, eta besteak onartu edo balekostat ematen dio orokortasun hori.

**4) ARGITZEA** – (Ulertzaileak zerbait ulertzen ez duenean)Mintzatzailea → **Berregin esaldia, beste modu desberdin batez esanda, erdarara pasa gabe**Ulertzailea → **Argitu zer ez duzun ulertu****Arriskua: Zehatzegi ibiltzea**

Kideak gehiegi korapilatzen dira hitz zailen inguruan, arreta jarrita hitz horien esanahian, baina ahaztu egiten dute elkarrizketaren gaia edo komunikazioaren haria.

## 3.8.2.

# LABURPEN ESKEMATIKOA

### ULERRIZKETAREN ATALAK, FUNTZIOAK ETA ARRISKUAK

#### 1) JARDUTEA

Mintzatzailea → Euskaraz jardun nagusiki

Ulertzailea → Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz

**Arriskua: Bakarrizketan aritzea**

---

#### 2) SINTONIZATZEA

Mintzatzailea → Euskara ulergarria erabili

Ulertzailea → Eskatu zer behar duzun

**Arriskua: Ezin ulertzea**

---

#### 3) ZIURTATZEA

Mintzatzailea → Galdetu besteari zer ulertu duen

Ulertzailea → Konprobatu zer ulertu duzun

**Arriskua: Orokorregi ibiltzea**

---

#### 4) ARGITZEA

Mintzatzailea → Berregin esaldia erdarara pasa gabe

Ulertzailea → Argitu zer ez duzun ulertu

**Arriskua: Zehatzegi ibiltzea**

## 3.8.3.

## ARRISKUEN AURREKO JOKAERA

**Mintzatzailea bakarrizketan aritzen da**

- › Batzuetan **luze hitz egiten du** berak bakarrik, eta ulertzaileak zalantzak dauzka elkarrizketaren haria galtzen ari ote den.
  - Laguntza: Ulertzaileak gelditu behar du kidea, eta **konprobatu zer ulertu duen**.  
*Espera un poco. Creo que me estoy perdiendo. Has dicho que ..... , ¿no?*

**Mintzatzaileari ez zaio ongi ulertzen**

- › Batzuetan mintzatzaileak **ez du euskara ulergarria erabiltzen**, oso azkar hitz egiten duelako, edo hitz arrotz asko erabiltzen dituelako, eta ulertzailea galduta sentitzen da, edo asko kostatzen zaio ulertzea, edo zuzenean ez du ulertzen.
  - Laguntza: Ulertzaileak gelditu behar du kidea, eta zehazki **eskatu zer behar duen hobeto ulertzeko**.  
*Para un momento, para... no te entiendo nada, ¿puedes decírmelo más despacio y con otras palabras?*

**Ukertzailea orokorregi dabil erantzunetan**

- › Askotan **isilik gelditzen da**, eta mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.
  - Laguntza: Mintzatzaileak ez du halakorik ontzat eman behar, eta behar du zuzenean **galdetu besteari zer ulertu duen**.  
*Ulertu duzu?*  
*Bai*  
*Baina zer ulertu duzu?*
- › **“Ahhh!, Ummm!”**, bezalako soinuak edo **“Aiba!., Kontxo!!!”** bezalako hitz orokorrak erabiltzen ditu askotan, eta mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.
  - Laguntza: Mintzatzaileak ez du halakorik ontzat eman behar, eta behar du zuzenean **galdetu besteari zer ulertu duen**.  
*Ulertu duzu?*  
*Bai*  
*Baina zer ulertu duzu?*
- › **“Sí, he entendido”** bezalako esaldi orokorrak esaten ditu, baina mintzatzaileak zalantzak dauzka ongi ulertu ote duen.

- Laguntza: Mintzatzaileak ez du halakorik ontzat eman behar, eta behar du zuzenean **galdetu besteari zer ulertu duen**.  
*Uleritu duzu?*  
*Sí, ya he entendido*  
*Baina zer ulertu duzu?*
- › Zerbait ulertu du baina ez dena, eta, hala ere, erosokeriagatik, normalean esaten du: **“No he entendido, ¿qué has dicho?”**.
  - Laguntza: Mintzatzaileak ez du halakorik ontzat eman behar, eta behar du zuzenean **galdetu besteari zer ulertu duen**.  
*No he entendido, ¿qué has dicho?*  
*Ez duzu EZER ulertu?*  
*Bueno, algo sí he entendido*  
*Zer ulertu duzu ba?*  
*Pues que...*


### ***Ulerzailea zehatzegi dabil galderetan***

- › Ulerzaileak ez tarteka, baizik **askotan galdetzen du hitz zehatzei buruz**, eta mintzatzaileak haiek azaldu nahian denbora asko hartzen du, elkarrizketa maiz geldituz eta haria galduz.
  - Laguntza: Mintzatzaileak ez die halako eskaerei bide eman behar, eskaera horiek oso maiz gertatzen direnean edota azaltzeko zailak direnean, eta behar du arreta aldatu eta **esaldia osoki berregin, beste modu desberdin batez esanda**.  
*Oso programa polita antolatu dute kultur etxean*  
*... antolatu? ¿qué es antolatu?*  
*Lasai, beste modu batez esango dizut... kultur etxean oso programa interesgarria dago*


3.8.4.

ARRISKUEN AURREKO JOKAERAK PROTOKOLO BATERA EKARRITA


**PROTOKOLOA 1**



**PROTOKOLOA 2**



**PROTOKOLOA 3**



### 3.9.


## Ulerrizketa bere dinamika osoan

Banan bana aurkeztu ditugu ulerrizketaren lau atalak orain artean, honako lau atal hauek alegia:

- › Elkarrizketan jardutea
- › Hizkera sintonizatzea
- › Mezua ziurtatzea
- › Mezua argitzea

Ez dira, ordea, elkarren artean bereizita dauden jarduerak. Aitzitik, bata bestearekin txirikordatzen dira elkarrizketa prozesu bizi eta konplexua hezurmamituz. Harreman eta lotura horiei buruz hitz egin nahi genuke orain, ulerrizketa atalka landu ondoren prozesuaren osotasuna berreskuratzen nahian.

### ULERRIZKETAREN ATAL NAGUSIAK



Elkarrizketa naturalean jardutea da ulerrizketaren muina. Horregatik, denbora gehiena horretan txer eman behar lukete jarduleek. Gainerako hiru egoerak (sintonizatzea, ziurtatzea eta argitzea), funtzio funtsezkoak izan arren, tarteka baino ez dira ematen, arazo puntualak gainditzeko. Proporzio horietan ibilitzea ulerrizketa ongi doalako zantzua litzateke.

Elkarrizketa naturalaren pisua jaisten denean, zantzua izan liteke hizkuntza-sintonizazioa ez dagoela txukun doitu, eta komunikazioak arazo “egiturazkoak” dituela, ez soilik puntualak. Era be-



rean, zantzua izan liteke mezuak argitzen eta ziurtatzen tarte handiegia hartzen dutela kideek, eta halako kutsu “didaktikoa” dariola ulerrizketa modu horri. Azken modu hau guztiz interesgarria da eremu babestuetan egiteko, baina eremu naturaletan gabiltzala ez da hain eraginkorra (lan egoera batean, esaterako, halako funtzionamenduak traba ekarriko luke eguneroko dinamikan).

Sintonizazio saioek funtsezko zeregina dute ulerrizketaren hastapenean, orduan eraikitzen ari baitira komunikazioaren zutabeak. Baten mintzamena eta bestearen ulermena doitu behar dira mezuak ulergarri gerta daitezen. Hasieran, oso ohikoak dira elkarrekiko erregulazio (sintonizazio, egokitze, doitze...) eskaerak, eta hala behar luke. Baina, denborak aurrera egin ahala, eta ondo bidean, nabarmen jaitsi beharko lukete eskaerok, eta oso egoera puntualetan baino ez lirateke agertuko. Jaitsiko ez balira, sintonizazio arazoek jarraitzen dutelako seinale izango litzateke, eta oso seinale txarra gainera, ulerrizketaren iraupena bera ere kolokan jartzerainokoa.

Ziurtatze (egiaztatze, konprobatze...) saioek erdiko kokapena dute dinamika osoan. Eta analogia bat erabiliz gero, futbol jokoan erdilariak betetzen duten lanarekin aldera liteke. Futbolean erdilariak atzea eta aurrea lotzen dituzte, eta joko batzuei eta bestei banatuz taldeari kohesioa ematen diote. Era antzekoan, ziurtatze saioek “lan banatze” moduko bat egiten dute ulerrizketan. Ulertutakoa egiaztatze tarte hartutakoan, emaitzek erakusten dute zein den egoera eta zein den hurrengo urratsa: banatu egiten dute jokoak. Ongi ulertu bada, elkarriketak jarraitzen du bere formatu naturalean. Erdizka ulertu bada, argitze saio batek konpondu behar litzuzke komunikazio-hutsuneak. Oso gutxi ulertu bada, edo batere ez, seguru asko, sintonizatze saio baten beharra eskatuko luke horrek.

Baina, atzekoz aurrera, argitze saio bat edo sintonizatze saio bat abiatzen dutenean jarduleek, ziurtatze saio bat behar izaten da halakoak bukatzeko eta ixteko. Izan ere, gaizki ulertutako zerbaiten argitze lanetan ibili ondoren, ziurtatu (egiaztatu, konprobatu) behar dute bukaeran ulertzerira iritsi diren ala ez. Era berean, sintonizatze saioek mintzatzaileari eskatzen diote hizkera berriz “formateatzeko”: formateatzearen lanak arrakasta izan duen ala ez jakiteko, ziurtatze saio bati ekin behar zaio.

Ziurtatzearen funtzioak gainerako funtzioak bateratzen ditu, eta hizkuntza-konfiantza areagotzen du kideen artean.

Argitzeko saioek komunikazio-hutsuneak gainditzea dute eginkizun nagusia, baina, atzera, hizkuntza-sintonizazioa gozatzen, fintzen eta hobetzen dute. Argitze saioek agerian uzten dute zailtasunak non dauden. Halakoak aintzat hartuta mintzatzaileak hobetu lezake hizkuntza-sintonizazioa, harrez gero baitaki, jakin, zein zailtasun saihesti behar dituen. Argitze saio arrakastatsuek oinarria jartzen dute sintonizazioa hobetzeko. Sintonizazioa hobetuta murrizten dira komunikazio-arazoak eta argitze saioak. Joan-etorriko mugimendua dago argitze eta sintonizatze saioen artean. Argitze saioak ugaltzen direnean, sintonizazio arazo baten aurrean egon gaitzke seguru asko.

# 4.



## FORMAZIO-SAIOA

### 4.1.

#### Formazioaren beharra

Jabetzen gara formazioaren beharrak zailtzen duela esku-hartzea. Formazio batek orduak eskatzen ditu. Jarduleak bildu egin behar dira. Hori ez da beti erraza izaten. Formazioak, bestalde, prestatzaile edo trebatzaileak behar ditu. Esku-hartzeak bolumen handia hartuz gero, handitu egiten da trebatzaileen kopurua. Horrek hainbat eta hainbat kontu dakartza berekin: erakunde baten antolamendua eta giza eta diru baliabideak, besteak beste. Formazio orduetaz eta trebatzaileez hitz egiten hasi eta han dira berehala kostu ekonomikoak. Hauek guztiek ez dute, ez, esku-hartzea errazten.

Eta, hala ere, beharrezkotzat jotzen dugu jarduleak prestatzea Ulerrizketa metodologiari heldu ahal izateko. Zergatik?

Ulerrizketa-konpetentziak<sup>7</sup> kontrakulturalak dira alderdi askotatik begiratuta. Badira pertsona batzuk, ez asko hala ere, konpetentziok erraz burutzen dituztenak. Jende gehienarentzat, ordea, oso arrotzak dira konpetentziok. Azken hauei lagunduko lieke formazio-saiorik jasotzeak.

Hona hemen ulerrizketak gaingitu behar dituen zenbait inertzia soziolinguistiko indartsuren zerrenda:

- 1) Ele biko elkarrizketak saihestea; hots, euskaraz ez jarraitzea, solaskideak euskara ulertu arren erdaraz egiten duenean.
- 2) Gaitasun ertainekoekin aritzerakoan, hizkeraren erregistroa eta abiadura

<sup>7</sup> Ulerrizketa-konpetentzia kontzeptuaren bidez ulerrizketarako mintzatzaileek eta ulertzaileek behar dituzten trebetasun guztiak biltzen ditugu. Testuan zehar, xehetasunez agertuta daude zein trebetasun behar diren ele biko elkarrizketa jardunari eusteko, hizkera sintonizatzeke, ulertutakoa egiaztatzeke eta komunikazio-arazoak gaingitzeke.

solaskidearen mailara ez egokitzea.

- 3) Jatorrizko hitzuneekin aritzerakoan, hizkuntza maila ertainekoek isilik, pasibo, lotsati eta uzkurtua bezala jokatzea.
- 4) Ulertutakoaren egiaztatzea ez-ohiko jokaeratzat hartzea (agian alferrikakotzat, apika inbaditzailatzat...)
- 5) Hizkuntzaren alderdi formalei (gramatikari, lexikoari...) arreta gehiago ematea komunikazioari baino.
- 6) Euskaraz aritzerakoan sortzen zaizkigun komunikazio-zailtasunak erdarara pasata konpontzea.

Sei jokabideok oso zabaldua daude gure kultura soziolinguistikoan. Inertziok osatzen dute humus kultural bat, gizarte “habitus” bat. Ez da samurra indar hori gelditu eta kontrako norabidean jartzea. Ez da zentzuzkoa pentsatzea jende gehienak berez eta erraz irauliko dituenik inertziak. Zerbait egin behar da. Gure proposamena formazio-saio bat egitea da.

Formazio-saioa esperientzia labur eta intentsua da, ingurune babestu batean eta trebatzaile baten gidaritzapean eginda. Espazio horretan, jarduleek aukera dute ulerrizketak eskatzen dituen trebetasun eta jokabide “arrotzak” ezagutzeko, ulertzeko eta praktikatzeko. Ondo bidean, jarduleek ehundu dezakete elkarrekiko konplizitate giro bat, jokabide berriei babes eta zentzua emango lizkiekeena. Esperientzia horretan, jarduleak kontura daitezke ezen ustez hain “arrotzak” ziren jokabideak ez zaizkiela bukaeran hain “arrotz” gertatzen. Formazio-saioa giltza da jarduleek inertzia sozial batzuk gelditu eta beste jokamolde batzuei aukera emateko.

Formazio-saioak baditu alderdi tekniko bat, alderdi sozial bat eta alderdi psikologiko bat. Alderdi teknikoak ematen du komunikazio-estrategien ezagutza, eta estrategiak aplikatzeko praktika, erraztasuna eta trebetasuna. Alderdi sozialak berekin dakar elkarrekiko adostasuna eraikitzea jokaera berriak onartzeko eta gauzatzeko. Alderdi psikologikoak, azkenik, ekarpena egiten dio erabakitze prozesuari, zeren uste izatekoa da formazioaren ondoren jarduleek askoz ere erabaki errealistago eta kontzienteagoa har dezaketela metodologia egunerokoan aplikatzeari buruz.

## 4.2.

### Programazioa

Ulerrizketa-kompetentziaz jabetzeko garaian, lehenetsiko dugu ikuspuntu pedagogiko globala. Alegia, metodologia pedagogikoaren ardatza izango da ulerrizketaren eredu erreal eta egokiak ikustea. Ulerrizketan ikasi nahi duenak batez ere ikusi behar ditu, maiz ikusi ere, ulerrizketan ongi dabilzanan jardunak. Jarduerok erakusten dute osoki eta globalki ulerrizketa bere dinamikan eta osagaien arteko erlazio bizi eta aberatsean. Hemendik espero dugu jarduleek ulerrizketaren irudi intuitiboa eskuratzea.

Bigarrenik, ariketa analitikoak izango dira formazioaren hurrengo osagaia. Ariketa analitikoek arreta emango diete trebetasun edo osagai sinpleei, eta, gehienetan, aldiko alderdi bakar bati. Ariketa analitikoak interesgarriak dira alderdi zehatzak hobetzeko. Ariketa analitikoak jarduera globalen artean tartekatuko ditugu.

Formatu hau lau ordukoa da, bi orduko bi saio desberdinetan banatuta. Ulertzaile bat eta mintzaitzaile bat edo bi elkartzen dira trebatzaile baten gidaritzapean.

<b>AURREZ AURREKO LEHEN SAIOA (BI ORDU)</b>			
<b>DENB.</b>	<b>ATALA</b>	<b>MATERIALA</b>	<b>JARDUERA</b>
<b>10´</b>	Aurkezpenak eta ulertzailearen ulermen maila egiaztatu.		<b>1</b>
<b>50´</b>	Ukertzaileak ulertu duena egiaztatzeko estrategiak landu. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulerrizketa eredu errealak ikusi</li> <li>- Bideoen azterketa</li> <li>- Praktika ulertzailearen eta trebatzailearen artean</li> <li>- Hausnarketa</li> </ul>	Bideoa Albiste laburrak Txartelak	<b>2, 3, 4, 5, 6</b>
<b>56´</b>	Hizkuntza-zailtasunak agertzerakoan (lexiko, sintaxi eta abiadura mailakoak), ulertzaileak ulertu ez duena argitzeko estrategiak landu. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulerrizketa eredu errealak ikusi</li> <li>- Bideoen azterketa</li> <li>- Praktika ulertzailearen eta trebatzailearen artean</li> <li>- Hausnarketa</li> </ul>	Bideoa Albiste laburrak Txartelak	<b>7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14</b>
<b>4´</b>	Laburpena: ulertzailearen hiru estrategia (komentario egokiak egin, konprobatu eta argitu) eta arrisku bat (orokor ibili)	Laburpen ilustratua Txartelak	<b>15</b>

**AURREZ AURREKO BIGARREN SAIOA (BI ORDU)**

DENB.	ATALA	MATERIALA	JARDUERA
30´	Ulertzailearen eta mintzatzailearen arteko hizkuntza-sintonizazioa, “euskara ulergarria erabili” eta “eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko” estrategien inguruan.	Bideoa Txartelak	16, 17, 18
40´	Euskara ulergarria modu malguan erabiltzea “esaldia berregin” strategiaren inguruan. Hiru alderdi landuko dira: - Esaldi laburren kateamendua - Hitz “zailak” saihestea - Forma “zailak” saihestea	Txartelak	19, 20, 21, 22, 23
10´	Ulerrizketa saio orokorra: elkarrizketa		24
16´	“Galdetu besteari zer ulertu duen” strategiaren lanketa: Protokolo batzuk barneratzea	Albisteak Txartelak Protokoloak Kartak	25,26
10´	Ulerrizketa saio orokorra: - Aurrez aurreko elkarrizketa - Telefonozko elkarrizketa	Txartelak	27, 28
7´	Laburpena: mintzatzailearen estrategia nagusiak	Laburpen ilustratua Txartelak	29
7´	Antolaketa kontuak:  Esperientziarekin jarraitzeko hurrengo urratsak zehaztea		30

## 4.3.

### Ariketen azalpena eta materiala

#### JARDUERA ZKIA. 1

#### IZENA: AURKEZPENA

| IRAUPENA: 10´

#### HELBURUA:

Trebatzaileak egiaztatzea ulertzaileak zenbat ulertzen duen. Bide batez, ulertzaileak ulertutakoa egiaztatzean “laburrean esateko” lehen saioa egitea.

#### DESKRIBAPENA:

Trebatzaileak ikastaroaren aurkezpena egingo du ulerrizketaren estiloan eta ulertzaileari zuzenduta. Ulerrizketa estiloan egiteak esan nahi du: esaldi labur eta sinpleak egitea erritmo mantsoan eta ongi ahoskatuta, batetik, eta esaldi bat edo bi esan ostean isildu eta ulertzaileari ulertutakoa egiaztatzeko eskatzea, bestetik.

Gaur bi ordu egongo gara lanean guk denok, orain hasi eta 12:00ak arte.

(Ukertzaileari galdetu zer ulertu duen)

Lehendabizi bideo batzuk ikusiko ditugu, zuek jakiteko nola funtzionatzen duen ulerrizketak

(Ukertzaileari galdetu zer ulertu duen)

Gero ulerrizketa praktika batzuk egingo ditugu zuk (ulkertzaileari esanda) eta biok

(Ukertzaileari galdetu zer ulertu duen)

Hori egiten dugun bitartean, mintzatzaileak ikusi behar du nola egiten dugun, bereziki nik nola egiten dudan

(Ukertzaileari galdetu zer ulertu duen)

Hurrengo egunean beste bi ordu egingo ditugu

(Hemendik aurrera txartel bat erakutsiko dio trebatzaileak ulertzaileari: “Konprobatu zer ulertu duzun”. Ikus materialean: txartela (3))

Orduan praktika batzuk egingo dituzue ulertzaileak eta mintzatzaileak elkarrekin

(Erakutsi txartela)

Nik begiratuko dut nola egiten duzuen zuek eta esango dizuet zer dagoen ongi eta zer dagoen gaizki

(Erakutsi txartela)

Praktika hauek egin ondoren, jakingo duzue zer den ulerrizketa, eta erraza edo zaila iruditzen zaizuen

(Erakutsi txartela)

Orduan zuek pentsatu beharko duzue esperientzia praktikara eraman nahi duzuen ala ez

(Erakutsi txartela)

#### MATERIALA: Txartela (3)

**JARDUERA ZKIA. 2****IZENA: EREDU ERREALAK: “KOMENTARIO EGOKIAK EGIN”****ETA “KONPROBATU ZER ULERTU DUZUN” ESTRATEGIAK****| IRAUPENA: 15´****HELBURUA:**

Elkarrizketa errealak ikustea non ulertzaileak bi estrategia erabiltzen dituen: “komentario egokiak egin eta elkarrizketa jarraitu” eta “konprobatu zer ulertu duzun”. Bi estrategia horiek ikusi eta ongi identifikatzea, jarduera natural batean.

**DESKRIBAPENA:**

- Bideo bat ikusiko dute (bi minutukoa)
- Berriz bideoa ikusi.
- Azterketa laburra: Nola erantzun du ulertzaileak? Ze estiloko erantzunak eman ditu?
- Bi estrategia aurkezpena. Txartela (1) eta (3) erakutsi trebatzaileak eta haietako bakoitza azaldu, agian bideoko adibideak gogoratu.
- Bideoan ikusitako elkarrizketa baloratu: Naturala/behartua iruditu zaizue elkarrizketa hori? Erraza/zaila iruditu zaizue?

**MATERIALA: Bideoa (1)<sup>8</sup> / Txartela (1) / Txartela (3)****JARDUERA ZKIA. 3****IZENA: ELKARRIZKETA SAIOA (1)****| IRAUPENA: 10´****HELBURUA:**

Ulertzaileak “komentario egokiak egin eta elkarrizketa jarraitu” eta “konprobatu zer ulertu duzun” estrategiak praktikatzea benetako komunikazio saio batean.

**DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak elkarrizketa bat abiatuko du ulertzailearekin, azken honek asteburuan egindakoaz. Trebatzaileak funtsean galderak egingo ditu, eta ulertzaileak erantzunak emango. Baina trebatzaileak galderez gain hainbat iruzkin ere egin ditzake entzuten ari denari buruz. Bost minutu inguru iraun behar luke (tarte horretan gutxi gorabehera trebatzaileak 25 bat mintza-txanda egingo lituzke eta ulertzaileak beste hainbeste: 25 txanda)
- Trebatzaileak txartela (1) eta txartela (3) mahai gainean jarriko ditu, ulertzaileak etengabe ikusteko moduan.
- Ulertzaileak bere mintza-txandan estrategia horietako bat hartzen duenean, trebatzaileak seinalatuko du dagokion txartela, haren izena gogoan geldituz joan dadin. Ulertzaileak estrategia desegokia erabiltzen duenean (adibidez, isilik gelditu da, edo “bai”, “ez” silaba

8 Bideo hauek erabiltzeko, jo ezazue Soziolinguistika Klusterrak argitalpen honekin batera plazaratu dituen hiru bideoak ikustera. Haren web gunean daude eskuragai. Jarduera honi ongi egokitzen zaizkion pasarteak bilatu beharko ditu interesatuak hiru bideotatik entresaka eginda.

bakarrarekin erantzun du) orduan trebatzaileak txartelak erakutsita gonbitea egingo dio estrategia bat ala beste aplikatzeko.

- Saioa bukatzean, tarte bat hartuko du trebatzaileak ulertzaileari galdetzeko zer moduz sentitu den, ea kostatu zaion, eta antzekoez. Ondoren, mintzatzaileari galdetuko dio ea zer iruditu zaion saioa, ea zertaz konturatu den.

**MATERIALA:** Txartela (1) / Txartela (3)

#### **JARDUERA ZKIA. 4**

**IZENA:** ZALANTZAK UXATU

**| IRAUPENA:** 15´

#### **HELBURUA:**

Egiaztatzearen beharra ulertaraztea (zalantzak uxatu eta hizkuntza-konfiantza sortu). Aldi berean, egiaztatzearen zeregina errazten ez duten jokaerak identifikatzea. Zehazki, hiru jokaera hauek identifikatzea: “isilik gelditu”, “ulertu-itxurak egin, benetan ulertu gabe” eta “ulertu duzula esan, baina zer ulertu duzun esan gabe”. Hiru hauek “orokor ibili” kategorian ditugu kokatuak.

#### **DESKRIBAPENA:**

- Bideoa ikusi, non ulertzaileak ez duen inoiz ematen ulertutakoari buruzko informaziorik. Batzuetan, erabat isilik gelditzen da. Batzuetan, soinu edo hitz zehaztugabeen bidez ulertu-itxura egiten du. Eta batzuetan, “bai, ulertu dut” esaten du, baina ez du zehazten zer ulertu duen. Bideoaren iraupena: bi minutu.
- Eztabaida planteatuko du trebatzaileak hiru etapatan:
  - 1) Zuen ustez ulertu al du ulertzaileak esaten ziotena? Nola daki mintzatzaileak ulertzaileak ulertu diola?
  - 2) Zer sentazio nagusituko da: zalantza ala segurtasuna?
  - 3) Zalantza nagusitzen bada, jarraituko dute euskaraz hitz egiten?
- Bideoa berriz ikusi, eta ulertzailearen txanda bakoitza ikusi ondoren bideoa gelditu eta azalpen labur-labur batez lagunduta azalduko du trebatzaileak zergatik osatzen duten “orokor ibili” kategoria. Horrela bideo osoa ikusi arte. Denbora guztian begi bistan izango dute txartela (11)

**MATERIALA:** Bideoa (2)<sup>9</sup> / Txartela (11)

9 Bideo hauek erabiltzeko, jo ezazue Soziolinguistika Klusterrak argitalpen honekin batera plazaratu dituen hiru bideoak ikustera. Haren web gunean daude eskuragai. Jarduera honi ongi egokitzen zaizkion pasarteak bilatu beharko ditu interesatuak hiru bideotatik entresaka eginda.



**JARDUERA ZKIA. 5****IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (1)****| IRAUPENA: 5´****HELBURUA:**

Egiaztatzeko jokaera finkatzea, eta saihesti beharreko jokaerez ohartzea.

**DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak albiste bat kontatuko dio ulertzaileari. Erabateko ahalegina egin behar luke trebatzaileak hizkera egokitan hitz egiteko, ulertzaileak arazorik gabe ulertzeko moduan (fase honetan uler-jarioan ematen diren egoerak erakutsi nahi ditugulako bereziki, aurreragorako utzita uler-trabak dituzten saioak)
- Adibidez, honako modu honetara kontatuko du albistea (bi minutu inguru):

Informazio labur bat irakurri dut prentsan.

(Tartea eman ulertzaileari)

Gurean etxe zahar asko dago eta batzuk gaizki daude.

(Tartea eman ulertzaileari)

Orain normatiba berri bat egin dute hori konpontzeko.

(Tartea eman ulertzaileari)

Etxea zaharra denean, teknikari bat joango da eta ikusiko du etxea ongi ala gaizki dagoen.

(Tartea eman ulertzaileari)

Informe tekniko bat egingo du.

(Tartea eman ulertzaileari)

Gaizki dauden gauzak konpondu beharko dituzte etxeetako jabeek.

(Tartea eman ulertzaileari)

Kotxeek nola egiten duten ITV, ba modu berean egin beharko dute etxe zaharrek hemendik aurrera.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eusko Jaurlaritzak esan du hurrengo bi urteetan 70.000 etxe begiratuko dituztela.

(Tartea eman ulertzaileari)

Uste dute etxe askok obra asko egin beharko dituztela.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eta horrek lan handia ekarriko du igeltseroentzat, elektrizistentzat, eta beste langile askorentzat.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eusko Jaurlaritzak espero du horrek ekonomia mugituko duela.

(Tartea eman ulertzaileari)

Etxe-sektoreak aurrera egingo duela.

(Tartea eman ulertzaileari)

Sektore horrekin oso kezkatuta daude arduradun politikoeak.

(Tartea eman ulertzaileari)

Azken krisi ekonomikoarekin lanpostu asko galdu dira sektore horretan.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eta pentsatzen dute normatiba honek lagunduko diola sektore honi.

(Tartea eman ulertzaileari)

- Trebatzaileak mahai gainean, denon ikusgai, txartelak (txartela 1, 3, 11) zabalduko ditu. Horiek erabiliko ditu seinatzeko ulertzailearen interbentzio bakoitza zein strategiari dagokion. Seinatu besterik ez, ez du azalpenik emango. Era berean, estrategia desegokiak erabiltzen dituenean hari dagokion txartela erakutsiko du, eta ondoren estrategia egokiak eskatuko ditu txartelak seinatuz.

**MATERIALA:** Albiste laburra (1) / Txartela (1) / Txartela (3) / Txartela (11)

### JARDUERA ZKIA. 6

**IZENA:** ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (2)

| **IRAUPENA:** 5'

#### **HELBURUA:**

Egiaztatzeko jokaera finkatzea, eta saihesti beharreko jokaerez ohartzea.

#### **DESKRIBAPENA:**

Urrats eta prozedura guztiak 5. jardueran egindako berak dira. Albistearen edukia besterik ez da aldatzen. Albistea modu honetara eman daiteke:

Orain prentsan irakurri dudan beste albiste edo informazio bat.

(Tartea eman ulertzaileari)

SOS Arrazakeria taldeak kanpaina bat prestatu du edo antolatu du.

(Tartea eman ulertzaileari)

Kanpainaren izena da Bizilagunak.

(Tartea eman ulertzaileari)

Kanpaina aurten egingo dute, baina iaz ere egin zuten.

(Tartea eman ulertzaileari)

Saiatuko naiz esplikatzeko zer egin nahi duten kanpaina honekin.

(Tartea eman ulertzaileari)

Ba al dakizu zer esan nahi duen “bizilagun” hitzak?

(Tartea eman ulertzaileari)

Bizilagunak dira zurekin bizi diren pertsonak, zure ondoan bizi direnak, etxean, auzoan...

(Tartea eman ulertzaileari)

Normalean ongi konpontzen gara bizilagunekin.

(Tartea eman ulertzaileari)

Horregatik normala da haiekin bazkariak egitea.

(Tartea eman ulertzaileari)

Ba, kanpaina honetan 250 bazkari prestatu edo antolatu nahi dituzte.

(Tartea eman ulertzaileari)

Batzuk Araban, beste batzuk Bizkaian eta Gipuzkoan ere bai egingo dituzte.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eta bazkarietan bi jende mota elkartu nahi dituzte.

(Tartea eman ulertzaileari)

Hemengo familiak, batetik, eta kanpotik etorri diren familiak, bestetik.

(Tartea eman ulertzaileari)

Eta zergatik egiten ari dira kanpaina hau?

(Tartea eman ulertzaileari)

Nahi dutelako hemengoak eta kanpokoak elkarrekin egotea, hitz egitea eta ezagutzea.

(Tartea eman ulertzaileari)

Orduan harremana normala izango da, bizilagunen artean den bezala.

(Tartea eman ulertzaileari)

**MATERIALA:** Albiste laburra (2) / Txartela (1) / Txartela (3) / Txartela (11)

#### JARDUERA ZKIA. 7

**IZENA:** EREDU ERREALAK: “ARGITU ZER EZ DUZUN ULERTU” ESTRATEGIA | **IRAUPENA:** 10’

#### HELBURUA:

Uler-jarioan ibili ondoren, uler-trabaren eremuan sartuko gara jarduera honekin, eta hala jarraituko dugu hurrengo ordubeteen. Aurrena, “argitu” estrategia erabiliko dugu ulertzaileak den-dena ulertu ez arren, zerbait ulertu duenerako. “Argitzearen” bidez ulertu ez duena ulertzen saiatuko da. Jarduera honetan helburu dugu estrategia bera aurkeztea elkarriketa natural baten inguruan

#### DESKRIBAPENA:

- Bideoa ikusiko dute. Bertan bitan ikusten da nola ulertzaileak zerbait argitzeko galdetzen duen, eta ondoren egiaztatzen duen ongi ulertu dituen azalpenak. Hitz batez “argitu zer ez duzun ulertu (eta gero konprobatu)” strategiaren sekuentzia.
- Hausnarketa: antzeman al diozue ulertzaileari honetan estrategia berriren bat?
- Berriz ikusiko dute bideoa. Bi pasarte horiek agertzerakoan bideoa gelditu eta arreta hara bideratuko du trebatzaileak.
- Estrategiaren izena duen txartela (txartela 4) erakutsiko du trebatzaileak eta azalpen labur-laburrak emango ditu. Bereziki bi gauza adierazi behar ditu: 1) estrategia hau egokia dela den-dena ulertu ez duenerako, eta 2) argitzerakoan, ulertu ez duenari buruzko informazioa ematea komeni dela (“¿quién tiene que ir a por el paquete?”, “te he entendido que le pasó algo en el río, pero no he entendido bien qué le pasó”...)

**MATERIALA:** Bideoa (3)<sup>10</sup> / Txartela (4)

<sup>10</sup> Bideo hauek erabiltzeko, jo ezazue Soziolinguistika Klusterrak argitalpen honekin batera plazaratu dituen hiru bideoak ikustera. Haren web gunean daude eskuragai. Jarduera honi ongi egokitzen zaizkion pasarteak bilatu beharko ditu interesatuak hiru bideotatik entresaka eginda.

### JARDUERA ZKIA. 8

**IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (3): PROTOKOLOA**

**| IRAUPENA: 10´**

#### HELBURUA:

“Argitu zer ez duzun ulertu” estrategia praktikatzea. Bereziki, ulertzailea bultzatu nahi dugu ulertu ez duenari buruzko ahalik eta informaziorik gehiena ematera. Bada, saihetsi nahi ditugu “no te entiendo” bezalako orokorkeriak (suposatzen baitugu kasu honetan mezua nolabait ulertu duela, den-dena ez ulertu arren)

#### DESKRIBAPENA:

Albiste bat kontatuko dio trebatzaileak ulertzaileari. Baina esaldi bakoitzean ulertzeko tarte errazak eta zailak tartekatuko ditu. Honen modukoak:

(Letra etzanean ustez zailak diren pasarteak, eta letra zurrunean ustez errazak direnak)

Prentsan irakurri dut Santurtziko gizon bat Huescan *hilik suertatu zela*.

Lagun batekin zebilen Gallego ibaian, *arraun surfa* praktikatzen.

Santurtziko gizona galdu zen eta *lagunak susmoa zuen zerbait txarra gertatu zitzaiola*.

Orduan deitu zuen *larrialdi zerbitzuetara*.

Guardia Zibila eta Mendiko Erreskate Zerbitzuak bila joan ziren, eta *handik gutxira berreskuratu zuten gorpua*.

Ez da segurua nola hil den, baina esan dute *ibaiak emari handia zuela*.

Informazio unitate hauetako bakoitza eman ondoren, protokolo bat jarraituko du trebatzaileak:

- 1) Galdetuko dio ulertzaileari zenbat ulertu duen otik 10era.
- 2) Eskatuko dio laburrean esateko zer ulertu duen (Txartela (3) erakutsiko dio bide batez).
- 3) Eskatuko dio galderaren bat egiteko ulertu ez duenari buruz: “Zer ez duzu ulertu? Eman informazioa, mesedez” (Txartela (4) erakutsiko dio bide batez). Dena ulertua izango balu, orduan ez genioke hau eskatuko, eta bertan behera utziko genuke protokoloa, hurrengo esaldira pasatuz.
- 4) Trebatzaileak argituko dio zalantza esaldia berreginez (beste modu desberdin batez esanez).
- 5) Ulertzaileak egiaztatu beharko du ongi ulertu ote duen azken esaldi hori (Txartela (3) erakutsiko dio bide batez).
- 6) Trebatzaileak jarraituko du hurrengo informazio unitatearekin.

**MATERIALA: Albiste laburra (3) / Txartela (3) / Txartela (4)**

**JARDUERA ZKIA. 9****IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (4)****| IRAUPENA: 6´****HELBURUA:**

“Argitu zer ez duzun ulertu” estrategia praktikatzea. Ulertzailea ohitzea mezuari lotutako informazioa ematen argitze lanari ekiterakoan, eta bide batez orokorkeriak (“no he entendido” esan, nahiz eta zerbait ulertua izan) baztertzea.

**DESKRIBAPENA:**

Albiste bat kontatuko dio trebatzaileak ulertzaileari. Baina esaldi bakoitzean ulertzeko tarte errazak eta zailak tartekatuko ditu. Oraingo honetan ez da protokoloa 8. jardueran bezain zorrotz aplikatuko, baina bai eskatuko zaio ulertzaileari ulertutakoa egiaztatzeko edo argitzeko trebatzaileak esaldi bakoitza esan orduko. Txartelak (txartela 3 eta 4) erabiliko ditu trebatzaileak ulertzaileari, hartu beharreko estrategiak ilustratzeko.

Ulertzailea “orokor ibiliko” balitz, orduan trebatzaileak “galdetu besteari zer ulertu duen” estrategia erabiliko du (“*Zer ulertu duzu? Zer ez duzu ulertu? Ez duzu ezer ulertu?*”), eta jokaera horretaz ohartzeko eskatuko lioke mintzatzaileari.

Ulertzaileak hitz zehatz bati buruz galdetuko balu (“*Qué es lurperatu?*”), orduan trebatzaileak esaldia berregitera joko luke hitz zaila baztertuta, honela esaten duela: “ongi da, *beste modu batez esango dizut: .....*”. Horrela jokatzekoan, oharra helaraziko dio mintzatzaileari jokaera horretaz jabetzeko.

(Letra etzanean ustez zailak diren pasarteak, eta letra zurrunean ustez errazak direnak)

Jakingo duzu azken urte hauetan *Abiada Handiko Trena* egiten ari direla, ezta? Proiektu hori orain dela urte batzuk *hitzartu zuten* Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak.

Obrak aurrera doaz, baina oraindik badira arazo handi batzuk

Adibidez, ez dakite oso ongi nola egin trena *hiriburuetan* sartzeko.

Arazo hori konpontzeko, bilera bat egin dute Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuko teknikariek.

*Aukera guztiak aztertu ondoren*, irtenbide hauek proposatu dituzte.

Bilbon tren geltoki osoa *lurperatuko dute*.

Donostian geltokia *lotuta egongo da beste garraiobideekin*.

Eta Gasteizen trena *lurpean* sartuko dute, baina ez hiri osoan, *hiriaren erdialdean bakarrik* baizik.

**MATERIALA: Albiste laburra (4) / Txartela (3) / Txartela (4)**

**JARDUERA ZKIA. 10**

**IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (5)**

**| IRAUPENA: 6´**

**HELBURUA:**

“Argitu zer ez duzun ulertu” estrategia praktikatzea. Ulertzailea ohitzea mezuari lotutako informazioa ematen argitze lanari ekiterakoan, eta bide batez orokorkeriak (“no he entendido” esan, nahiz eta zerbait ulertua izan) baztertzea.

**DESKRIBAPENA:**

Albiste bat kontatuko dio trebatzaileak ulertzaileari. Baina esaldi bakoitzean ulertzeko tarte errazak eta zailak tartekatuko ditu. Oraingo honetan ez da protokoloa 8. jardueran bezain zorrotz aplikatuko, baina bai eskatuko zaio ulertzaileari ulertutakoa egiaztatzeko edo argitzeko trebatzaileak esaldi bakoitza esan orduko. Txartelak (txartela 3 eta 4) erabiliko ditu trebatzaileak ulertzaileari hartu beharreko estrategiak ilustratzeko.

Ulertzailea “orokor ibiliko” balitz, orduan trebatzaileak “galdetu besteari zer ulertu duen” estrategia erabiliko du (“*Zer ulertu duzu? Zer ez duzu ulertu? Ez duzu ezer ulertu?*”), eta jokaera horretaz ohartzeko eskatuko lioke mintzatzaileari.

Ulertzaileak hitz zehatz bati buruz galdetuko balu (“*Qué es lurperatu?*”), orduan trebatzaileak esaldia berregitera joko luke hitz zaila baztertuta, honela esaten duela: “ongi da, *beste modu batez esango dizut: .....*”. Horrela jokatzekoan, oharra helaraziko dio mintzatzaileari jokaera horretaz jabetzeko.

(Letra etzanean ustez zailak diren pasarteak, eta letra zurrunean ustez errazak direnak)

Aurten 40 urte beteko ditu Euskadiko *Filmategiak*.

Efemeride hori ospatzeko *hainbat emanaldi antolatu dituzte*.

Baina pelikula horien artean ez dago *bat bera ere emakumeek zuzendutakoa*.

Horregatik, oso *suminduta* daude zinema munduko emakume batzuk.

Eta *ekitaldi alternatiboa ondu dute* biharko Donostian.

Mirentxu Loiarteren *Euskal emakumeak* filma emango dute, Azpi Kultur elkartearen, 20:30etan.

Ulertzaileak hitz zehatz bati buruz galdetuko balu (“*Qué es emanaldia?*”), orduan trebatzaileak esaldia berregitera joko luke hitz zaila baztertuta, honela diola: “ongi da, *beste modu batez esango dizut: .....*”. Horrela jokatzekoan, oharra helaraziko dio mintzatzaileari jokaera horretaz jabetzeko.

**MATERIALA:** Albiste laburra (5) / Txartela (3) / Txartela (4)

**JARDUERA ZKIA. 11****IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (6)****| IRAUPENA: 6´****HELBURUA:**

“Argitu zer ez duzun ulertu” estrategia praktikatzea. Ulertzailea ohitzea mezuari lotutako informazioa ematen argitze lanari ekiterakoan, eta bide batez orokorkeriak (“no he entendido” esan, nahiz eta zerbait ulertua izan) baztertzea.

**DESKRIBAPENA:**

Albiste bat kontatuko dio trebatzaileak ulertzaileari. Baina esaldi bakoitzean ulertzeko tarte errazak eta zailak tartekatuko ditu. Oraingo honetan ez da protokoloa 8. jardueran bezain zorrotz aplikatuko, baina bai eskatuko zaio ulertzaileari ulertutakoa egiaztatze edo argitzeko trebatzaileak esaldi bakoitza esan orduko. Txartelak (txartela 3 eta 4) erabiliko ditu trebatzaileak ulertzaileari hartu beharreko estrategiak ilustratzeko.

Ulertzailea “orokor ibiliko” balitz, orduan trebatzaileak “galdetu besteari zer ulertu duen” estrategia erabiliko du (“*Zer ulertu duzu? Zer ez duzu ulertu? Ez duzu ezer ulertu?*”), eta jokaera horretaz ohartzeko eskatuko lioke mintzatzaileari.

Ulertzaileak hitz zehatz bati buruz galdetuko balu (“*Qué es lurperatu?*”), orduan trebatzaileak esaldia berregitera joko luke hitz zaila baztertuta, honela esaten duela: “ongi da, *beste modu batez esango dizut: .....*”. Horrela jokatzekoan, oharra helaraziko dio mintzatzaileari jokaera horretaz jabetzeko.

(Letra etzanean ustez zailak diren pasarteak, eta letra zurrunean ustez errazak direnak)

Arabako bi herrietan, Gaubean eta Añanan, *saio berezi bat* egingo dute maiatzean.

Bertan, *eskudirurik gabe* funtzionatzeko proba bat egingo dute.

Visa eta Kutxabank konpainiek *bultzatu dute saioa*.

Probak ia bi hilabete *iraungo du*.

Txanponik eta billeterik ez erabiltzeko *erraztasunak* emango dizkiete herritarrei.

*Beren eskura* jarriko dituzte aplikazioak mobilean erabiltzeko.

Baita ere *eskumuturreko bereziak* emango dizkiete.

Herriko denda eta tabernetan ere *baliabide* teknologikoak jarriko dituzte.

Horrela, herritar guztiek *egin ahal izango dituzte erosketak* txapon edo billeterik gabe.

Gaubea eta Añana herri txikiak dira, baina *etorkizuna aurreratzen ari dira*.

Ulertzaileak hitz zehatz bati buruz galdetuko balu (“*Qué es eskudirua?*”), orduan trebatzaileak esaldia berregitera joko luke hitz zaila baztertuta, honela esaten duela: “ongi da, *beste modu batez esango dizut: .....*”. Horrela jokatzekoan, oharra helaraziko dio mintzatzaileari jokaera horretaz jabetzeko.

**MATERIALA: Albiste laburra (6) / Txartela (3) / Txartela (4)**

**JARDUERA ZKIA. 12****IZENA: EREDU ERREALAK: ULERRIZKETA IA-IA OSOA****| IRAUPENA: 6´****HELBURUA:**

Hemendik aurrera ulerrizketaren funtzionamendu osoa berreskuratu nahi dugu, edo ia osoa hobe esanda (zeren sintonizazio funtzioa oraingoz kanpo uzten ari baikara. Funtzio horri aurrerago helduko diogu, ulertzailea eta mintzatzailea elkarrekin jarduteko eskatzen dugu-nean). Beraz oraingoz ulerrizketaren jardun naturala aurkeztuko dugu, non ulertzaileak era aktiboan parte hartzen duen “komentario egokiak eginez”, “zer ulertu duen konprobatuz”, eta “zer ez duen ulertu argituz”.

**DESKRIBAPENA:**

- Bideoa (4) bi aldiz ikusiko dugu.
- Lehenengo ikustaldian osoki eta jarraian ikusiko dugu.
- Bigarren ikustaldian, tarteka bideoa gelditu eta ulertzaileak erakutsitako jokaerari izena jarriko diogu txartelak erakutsiz (txartela 1, 3 eta 4)

**MATERIALA: Bideoa (4)<sup>11</sup> / Txartela (1) / Txartela (3) / Txartela (4)****JARDUERA ZKIA. 13****IZENA: ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (7)****| IRAUPENA: 6´****HELBURUA:**

Ulerrizketaren jardun naturala (eta ia osoa) praktikatzea, non ulertzaileak era aktiboan parte hartzen duen “komentario egokiak eginez”, “zer ulertu duen konprobatuz”, eta “zer ez duen ulertu argituz”.

**DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak albiste kontakutako du, eta esaldi bakoitzaren bukaeran isilduko egingo da ulertzaileari txanda emateko.
- Txanda emate horretan, hiru txartelak jarriko dizkio begi bistan (txartela 1, 3 eta 4), berak haietako bat aukera dezan, eta horren arabera joka dezan.

Honako esaldi hauek erabil ditzake trebatzaileak albiste ematerakoan:

Albiste honek hitz egiten du eutanasiari buruz

Jende asko eskatzen ari da gai hori normalizatzea

Baina oraindik ez dago ez legerik ez araurik

Atzo (2018-06-26) PSOEek lege proposamen bat aurkeztu zuen Espainiako Kongresuan eutanasia erregulatzeko

<sup>11</sup> Bideo hauek erabiltzeko, jo ezazue Soziolinguistika Klusterrak argitalpen honekin batera plazaratu dituen hiru bideoak ikustera. Haren web gunean daude eskuragai. Jarduera honi ongi egokitzen zaizkion pasarteak bilatu beharko ditu interesatuak hiru bideotatik entresaka eginda.



Talde parlamentario ia guztiek onartu zuten proposamena.

Bakarrik PP-k ez zuen babestu proposamena

Proposamenaren arabera, noiz aplikatuko da eutanasia? Eta nola?

- 1) Eutanasia aplikatzeko, gaixotasun larria eduki behar da.
- 2) Gaixoak idatziz eskatu behar du, eta hamabost egun pasa eta gero berriz eskatu behar du.
- 3) Medikuek talde batek hartuko du azken erabakia.
- 4) Medikuek kontzientzia objektiboa egiteko eskubidea daukate
- 5) Prozesua doakoa izango da gaixoentzat
- 6) Prozesua etxean edo zentro batean egin daiteke, eta beti egon behar du medikuren batek.

**MATERIALA:** Albiste laburra (7) / Txartela (1) / Txartela (3) / Txartela (4)

#### JARDUERA ZKIA. 14

**IZENA:** ALBISTE LABUR BATEN KONTAKETA (8)

**| IRAUPENA:** 6'

#### **HELBURUA:**

Ulerrizketaren jardun naturala (eta ia osoa) praktikatzea, non ulertzaileak era aktiboan parte hartzen duen “komentario egokiak eginez”, “zer ulertu duen konprobatuz”, eta “zer ez duen ulertu argituz”.

#### **DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak albistea kontatuko du, eta esaldi bakoitzaren bukaeran isilduko egingo da ulertzaileari txanda emateko.
- Txanda emate horretan, hiru txartelak jarriko dizkio begi bistan (txartela 1, 3 eta 4), berak haietako bat aukera dezan, eta horren arabera joka dezan.

Honako esaldi hauek erabil ditzake trebatzaileak albistea ematerakoan:

Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren artean.

Jakin nahi zuten nola erabiltzen ditugun komunikabideak.

Datuek informazio interesgarria ematen dute.

Adi bidez, jende askok telebista erabiltzen du albisteak ezagutzeko (%44).

Telebista ondoren, Internet dago baina urruti (%28).

Hirugarrena irratia dago (%17).

Eta azken postuan paperezko egunkariak daude(%10).

Ikerketan ere galdetu dute ea zenbat erabiltzen ditugun sare sozialak.

Eta datua da herritarren %44k ez dituztela Interneteko sare sozialak inoiz edo ia inoiz erabiltzen.

Datu horietan, gazteak, helduak eta zaharrak sartuta daude.

Baina bakarrik gazteak hartzen baditugu datuak asko aldatzen dira. Gazteen erdiak baino gehiagok Internet hartzen du albisteak jakiteko (%58). Eta ia denek (%92) egunero erabiltzen dituzte sare sozialak. Garbi dago alde handia dagoela gazteen eta besteen artean.

**MATERIALA:** Albiste laburra (8) / Txartela (1) /Txartela (3) / Txartela (4)

#### **JARDUERA ZKIA. 15**

**IZENA:** LABURPENA

**| IRAUPENA:** 4´

#### **HELBURUA:**

Gogoratzea orain artean landu ditugun hiru estrategia (komentatzea, konprobatzea eta argitzea) eta arriskua (orokor ibiltzea).

#### **DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak laburpen ilustratua (1) pasako die kide guztiei, irakur dezaten. Trebatzaileak lotura egingo du testuan esandakoaren eta jardueretan erabilitako txartelen artean.

**MATERIALA:** Laburpen ilustratuta (1) / Txartela (1) /Txartela (3) / Txartela (4)/ Txartela (11)

#### **JARDUERA ZKIA. 16**

**IZENA:** HIZKUNTZA-SINTONIZAZIOAREN AURKEZPENA

**| IRAUPENA:** 10´

#### **HELBURUA:**

“Eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko” eta “euskara ulergarria erabili” strategiak eta haien osagaiak (poliki, argi, labur, erraz eta simple aritzea) aurkeztea.

#### **DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak “eskatu” eta “egokitu” txartelak erakutsiko dizkie (txartela 2 eta 6, hurrenez hurren), eta labur azalduko du noiz diren erabiltzekoak.  
- Estrategia horien bost osagaiak (poliki, argi, labur, erraz eta simple aritzea) aipatuko ditu trebatzaileak, eta bakoitzeko adibide batzuk jarriko ditu berak bere ahotsarekin.

**MATERIALA:** Txartela (2) / Txartela (6)

**JARDUERA ZKIA. 17****IZENA: EREDU ERREALAK: “EUSKARA ULERGARRIA”****| IRAUPENA: 10´****HELBURUA:**

Euskara ulergarriaren eredu bat jasotzea, eta haien osagaiak identifikatzea

**DESKRIBAPENA:**

- Bideo bat ikusiko dute osoki (bideoa 1)
- Berriz bideoa ikusi mintzatzailearen jarduera aztertuz. Bideoa tarteka gelditu eta euskara ulergarriaren osagaiak identifikatu.
- Iritzi truke laburra: (Mintzatzaileari galdetuta bereziki) Gai ikusten duzu zeure burua euskara ulergarria egiteko?

**MATERIALA: Bideoa (1) <sup>12</sup>****JARDUERA ZKIA. 18****IZENA: ELKARRIZKETA: ELKARRENGANAKO SINTONIZAZIOA****| IRAUPENA: 10´****HELBURUA:**

Lehenengo hartu-eman da ulertzailearen eta mintzatzailearen artean. Beraz, hizkera egokitu behar dute elkar ulertuko badute. Bereziki, “eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko” eta “euskara ulergarria erabili” estrategiak ezagutu eta praktikatzea ulertzailearen aldetik, eta “euskara ulergarria erabili” mintzatzailearen aldetik.

**DESKRIBAPENA:**

- Elkarrizketa mintzatzailearen eta ulertzailearen artean. Gaia: asteburuan egindakoak.
- Ulertzaileari esango zaio: “erabili STOP txartela ez ulertzen hasten zarenean”.
- Trebatzaileak ere berekin izango du STOP txartel bat, eta erabil dezake komenigarri ikusten duenean (esaterako, mintzatzailea oso luze hitz egiten ari denean)
- STOP egiterakoan, ulertzaileari eskatuko zaio “konprobatu zer ulertu duzun” edo “eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko” estrategiak erabiltzeko. Trebatzaileak eskura izango ditu txartelak (txartela 3 eta 2, hurrenez hurren), estrategiak bisualki erakusteko ulertzaileari.

**MATERIALA: Txartela (2) / Txartela (3) / Txartela (6) / STOP txartela**

<sup>12</sup> Bideo hauek erabiltzeko, jo ezazue Soziolinguistika Klusterrak argitalpen honekin batera plazaratu dituen hiru bideoak ikustera. Haren web gunean daude eskuragai. Jarduera honi ongi egokitzen zaizkion pasarteak bilatu beharko ditu interesatuak hiru bideotatik entresaka eginda.

**JARDUERA ZKIA. 19**

**IZENA: ARIKETA: ESALDI LABURREN KATEAMENDUA**

**| IRAUPENA: 10´**

**HELBURUA:**

Idea konplexuak esaldi laburrak kateatuz adierazteko praktika egitea. “Esaldia berregin” estrategia praktikatzea, “euskara ulergarria erabili” strategiaren berezko jarraipen gisa.

**DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak adibide pare bat jarriko du “esaldi laburren kateamenduz”. Hona hemen:

(Hona esaldi luzea)

Pentsiodunen bozeramailearen arabera, aurten, mobilizazioen ondorioz lortutakoa ez da gauza handia izan, baina ez da gutxietsi behar.

(Hona esaldi laburren kateamendua)

- Pentsiodunek balorazioa egin dute beren mobilizaziori buruz.
- Aurten asko mobilizatu dira.
- Ez dute gauza asko lortu.
- Gutxi lortu dute baina garrantzitsua.
- Balorazio hori egin dute beraiek.

(Hona esaldi luzea)

Eta gaineratu dute pentsiodunen aldarrikapenak alderdi politikoen eta instituzioen agendan sartzea lortu dutela

(Hona esaldi laburren kateamendua)

- Gehiago esan dute.
- Pentsiodunek eskaera batzuk egin dituzte.
- Eta orain politikoei gai horri buruz hitz egiten dute.
- Eta instituzioei ere bai.
- Hori pentsiodunek lortu dute mobilizazioekin.

Esaldia luzea paper batean idatzita pasako dio trebatzaileak mintzatzaileari, eta gero berak esaldi laburren kateamendua egingo du trebatzailearekin jardunda.

Bi adibideak bukatzerakoan hausnarketa laburra egingo dugu, azpimarratzeko esaldi laburrak emanda informazioa gutxinaka prozesatzen dela, eta horrek ulermen prozesua errazten duela.

Ondoren, trebatzaileak mintzatzaileari lau esaldi luze emango dizkio paper batean idatzita, berak esaldi laburren kateamenduan emateko. Trebatzaileak berak egingo du ulertzailearen egitekoa.

(Esaldi luzeak)

(Informazioa nahita erdaraz emanda dago, zeren euskaraz emanez gero, oso litekeena da

mintzatzaileak testuaren hitzekin kateatuta gelditzea eta hitz horiek beraiek bere horretan eman nahian ibiltzea)

- 1) Una de las principales causas de avería de los móviles es precisamente el contacto con líquidos o que se encuentre en un entorno demasiado húmedo.
- 2) Cuando nos encontramos en una situación en la que se ha mojado nuestro móvil la primera medida de urgencia que debemos hacer es quitar la batería, siempre que haya acceso a ella.
- 3) A continuación lo que debemos hacer es secarlo a conciencia con un papel o con un paño absorbente, y minimizar los restos de agua de la superficie, sin mover mucho el teléfono
- 4) Después de haber realizado el secado de forma manual, procedemos durante al menos 24 horas a sumergirlo totalmente en un recipiente lleno de arroz, hasta que el teléfono quede seco.

**MATERIALA:** Txartela (6) / Txartela (8)

#### **JARDUERA ZKIA. 20**

**IZENA:** ALBISTE LABURRA: ESALDI LABURREN KATEAMENDUA

**| IRAUPENA:** 6´

#### **HELBURUA:**

Idea konplexuak esaldi laburrak kateatuz adierazteko praktika egitea. “Esaldia berregin” estrategia praktikatzea, “euskara ulergarria erabili” strategiaren berezko jarraipen gisa.

#### **DESKRIBAPENA:**

Lau esaldi luze emango dizkio trebatzaileak mintzatzaileari, aurrekoan bezala paper batean idatzita eta erdaraz. Saioa ulertzailearekin egingo du mintzatzaileak. Ulertzaileak bere estrategia guztiak erabil ditzake: “komentario egokiak egin”, “eskatu”, “konprobatu” edo “argitu”. Haiei dagozkien txartelak beti egongo dira eskura.

(Esaldi luzeak)

- 1) Una sentencia del Tribunal Supremo de los Estados Unidos ha prohibido la venta de foie gras a partir del 7 de enero del 2019.
- 2) La sentencia considera probado el maltrato animal en la producción de ese producto.
- 3) En Iparralde hay una gran tradición de producción de foie gras en pequeñas explotaciones familiares entre 50 y 100 patos.
- 4) En estas explotaciones familiares, los patos suelen estar en libertad durante cuatro meses, y a continuación son sobrealimentados a la fuerza durante 15 días con maíz para producirles la inflamación del hígado, de donde se extrae el foie-gras.

**MATERIALA:** Txartela (1) / Txartela (2) / Txartela (3) / Txartela (4) / Txartela (6) / Txartela (8)

**JARDUERA ZKIA. 21**

**IZENA: ARIKETA: ESALDI LABURREN KATEAMENDUA**

**| IRAUPENA: 10´**

**HELBURUA:**

Esaldi laburrak kateatuz adierazteko praktika egitea. “Esaldia berregin” estrategia praktikatzea, “euskara ulergarria erabili” strategiaren berezko jarraipen gisa.

**DESKRIBAPENA:**

Mintzatzaileari eskatuko zaio paper batean esaldi luze batzuk idazteko, berak eta ulertzaileak partekatzen duten gairen bati buruz. Ondoren, esaldiak banan bana hartuta informazio guztia adieraziko dute esaldi laburrak kateatuz.

Ulertzaileak bere lau estrategiekin jokatu du: “komentario egokiak egin”, “eskatu”, “konprobatu” edo “argitu”

**MATERIALA: Txartela (1) / Txartela (2) / Txartela (3) / Txartela (4) / Txartela (6) / Txartela (8)**

**JARDUERA ZKIA. 22**

**IZENA: ARIKETA: HITZ “DEBEKATUAK” SAIHESTEA**

**| IRAUPENA: 7´**

**HELBURUA:**

Hitz mailako zailtasunak saihestea bestelako hitzak bilatuz edo agian esaldia berreginez. “Esaldia berregin” izeneko estrategia lantzea. “Esaldia berregin” estrategia praktikatzea, “euskara ulergarria erabili” strategiaren berezko jarraipen gisa.

**DESKRIBAPENA:**

Trebatzaileak mintzatzaileari esaldi batzuk aurkeztuko dizkio paper batean idatzita. Haietan, hitz bat azpimarratuta egongo da. Hitz “debekatu” gisa funtzionatuko du horrek. Mintzatzaileak ideia aditzera eman behar du hitz “debekua” esan gabe.

(Hona hemen esaldi zerrenda, eta letra etzanean hitz debekatuak)

*Jakin minez nago nork irabaziko duen partidua*

*Asko handitu da CO2ren ekoizpena*

*Nola sentitzen zaren adierazi behar duzu*

*Ez dakizu zer amorrazioa sentitu nuen zuk hori esan zenuenean*

*Bazkaldu ostean logale handia izaten dut*

*Tsunami horrek kalte handiak sortu ditu Indonesian*

*Azken hamarkada honetan krisiak gogor jo du*

*Nik ez dizut zuri ezer leporatu*

*Hautatu behar duzu norekin joango zaren*

*Han ginen denok bilduta eta bat-batean hantxe agertu zen*

*Olaizola nagusitu zitzaion Bengoetxeari pilota partidan*

*Komeni zaizu lasai jardutea*

*Eskatuko diot kotxea nire aitari*

*Aspaldian ez nuen halakorik ikusten*

Ariketa egiten den bitartean, uneoro begi bistan txartela (8) edukiko du trebatzaileak, eta mintzatzailari esan hori lantzen ari direla.

**MATERIALA:** Txartela (6) / Txartela (8)

### JARDUERA ZKIA. 23

**IZENA: ARIKETA: FORMA “DEBEKATUAK” SAIHESTEA**

**| IRAUPENA: 7’**

#### **HELBURUA:**

Forma mailako zailtasunak saihestea bestelako formak bilatuz edo agian esaldia berreginez. “Esaldia berregin” izeneko estrategia lantzea.

#### **DESKRIBAPENA:**

Trebatzaileak mintzatzailari esaldi batzuk aurkeztuko dizkio paper batean idatzita. Haietan, formaren bat azpimarratuta egongo da. Forma “debekatu” gisa funtzionatuko du horrek. Mintzatzailak ideia aditzera eman behar du forma “debekua” esan gabe.

(Hona hemen esaldi zerrenda, eta letra etzanean forma debekatuak)

Nik ez daukat *zer ikusirik* kontu horrekin

Mendian *galdutako* mendizaleak 60 urte zituen

Haserre zegoen, inork ez *baitzion* ezer esan

Asko hitz egiten *badugu ere*, ez ditugu arazoak konpontzen

Azken operazio hori *bestetik* ez zaigu falta lana bukatzeko

*Elkarrengana* hurbiltzea komeni zaigu

*Bere buruari* esan zion lan hori lortu behar zuela

Azken inkesten *arabera*, igo egin da langabetuen kopurua

Arazo *horrez gain* baditugu beste batzuk ere

Esan *omen* dute bihar elurra egingo duela

Telebistan ikusi dudan programa ez zait gustatu

Gaizki esango *balu*, esango nioke

Ariketa egiten den bitartean, uneoro begi bistan txartela (8) edukiko du trebatzaileak, eta mintzatzailari esan hori lantzen ari direla.

**MATERIALA:** Txartela (6) / Txartela (8)

**JARDUERA ZKIA. 24**

**IZENA: ELKARRIZKETA**

**| IRAUPENA: 10´**

**HELBURUA:**

“Euskara ulergarria erabili” eta “konprobatu” funtsezko estrategiak nola gauzatzen dituzten ikustea.

**DESKRIBAPENA:**

Mintzatzailearen eta ulertzailearen arteko saioa. Gaia beraiek jartzeko esango diegu (beren lanari lotutakoa, edo beren harremanaren bueltan dagoen kontu bati buruzkoa). Gaia jartzea kostako balitzaie, honako hauek proposa daitezke:

- 1) Beren zaletasunei buruz (kirola, kultura, bidaiak, esku-lanak...)
- 2) Oporretarako asmoei buruz
- 3) Beren azturei buruz (asko/gutxi lo egiten duten, asko/gutxi afaltzekoak diren...)
- 4) Gaurkotasuneko gai eztabaidatsuren bat (eutanasia, taxilarien greba, datuen lapurreta Interneten...)

Beraiek aukeratutako gaia labur suertatuko balitz, orduan trebatzaileak beste gai bat jarriko lieke elkarrizketan jarrai dezaten.

Trebatzaileak saioa behatu eta STOP txartela erabiliko du, batez ere ulertzaileak “konprobatu” eta “eskatu” operazioak erabiltzen ez dituenean. Saioa gelditu eta ulertzaileari operazio bat ala bestea erabiltzeko eskatuko dio. Nolabait, une honetan nahi dugu mintzatzaileak egoki dezala bere hizkera ulertzailearen jokaera aktiboari esker.

**MATERIALA: Txartela (2) / Txartela (3) / STOP txartela**

**JARDUERA ZKIA. 25**

**IZENA: ARIKETA: PROTOKOLOA (1) ETA (2)**

**| IRAUPENA: 10´**

**HELBURUA:**

“Galdetu zer ulertu duen” estrategia aurkeztea, baina “berregin esaldia” estrategiarekin batera protokolo baten barruan.

**DESKRIBAPENA:**

Protokolo 1 eta 2 hartuko ditugu erreferentziatzat. Haietan agertzen diren laukiak karta independente bihurtuko ditugu. Beraz, ulertzailearentzat sei karta desberdin izango dira (karta urdinak), eta mintzatzailearentzat bost karta desberdin (karta berdeak).

Prozedura:

Mintzatzaileak ideia bat adieraziko du.

Ondoren ulertzaileak esku artean dituen kartetako bat aukeratuko du erantzun gisa.



Mintzatzaileak esku artean dituen kartetako bat aukeratu beharko luke ulertzailearen kartari erantzuteko.

Prozedura hainbatetan errepikatuko dugu, aukera desberdin guztiak agertu arte, eta parte hartzaileek ariketa automatiko samar egin arte.

Trebatzaileak prozesua zainduko du, parte hartzaileek nahas ez daitezen kartekin.

Bukaeran protokoloa (1) eta protokoloa (2) osoki erakutsiko ditu trebatzaileak, eta ohar batzuk partekatuko dituzte. Ongi legoke hitz egitea ea noiz erabili behar dituzten protokolo horiek. Esaterako, konprobatu beharra oso intentsua izan daiteke hasieran, hizkera sintonizatzen eta hizkuntza-konfiantza sortzen ari diren bitartean. Baina gero, estrategia horren presentzia jaitsi egiten da. Irizpide gisa, honako egoera hauek aipa daitezke konprobatzeko egokitzat:

- 1) Seguru egon nahi dudanean ongi ulertu dudala
- 2) Seguru egon nahi dudanean besteak ongi ulertu duela
- 3) Nahi dudanean bestea seguru egotea ulertu diodala

**MATERIALA:** Protokoloa (1) / Protokoloa (2) / Protokoloetako osagaiak kartetan

#### JARDUERA ZKIA. 26

**IZENA:** ANTZEZPENA: PROTOKOLOA (1) ETA (2)

| **IRAUPENA:** 6´

#### **HELBURUA:**

“Galdetu zer ulertu duen” estrategia aurkeztea, baina “berregin esaldia” estrategiarekin batera protokolo baten barruan.

#### **DESKRIBAPENA:**

Mintzatzaileak albiste laburra (9) hartu eta kontatuko dio trebatzaileari. Azken honek ulertzailearen egitekoa beteko du antzezpenean.

Trebatzaileak maiz moztuko du mintzatzailea eta bakoitzean protokoloetako osagai baten arabera jokatu du (isilik gelditu, “uhmm, oohhh”, “no entiendo”, “¿Qué significa “saioa?”...), eta mintzatzailearen erantzunaren zain geldituko da. Erantzun egokirik ematen ez badu, orduan trebatzaileak karta egokia erakutsiko dio eta horrela jokatzeko eskatu.

Saioa labur geldituko balitz, horra hor beste albiste bat (albistea 10) prozedura errepikatzeko.

**MATERIALA:** Albiste laburra (9) / Albiste laburra (10) / Protokoloetako osagaiak kartetan

**JARDUERA ZKIA. 27****IZENA: ELKARRIZKETA****| IRAUPENA: 5´****HELBURUA:**

Ulerrizketa bere osotasunean burutzea, une bakoitzari dagokion estrategia erabiliz.

**DESKRIBAPENA:**

Mintzatzailearen eta ulertzailearen arteko saioa. Gaia beraiek jartzeko esango diegu (beren lanari lotutakoa, edo beren harremanaren bueltan dagoen kontu bati buruzkoa). Gaia jartzea kostako balitzaie, honako hauek proposa daitezke:

- 1) Beren zaletasunei buruz (kirola, kultura, bidaiak, esku-lanak...)
- 2) Oporretarako asmoei buruz
- 3) Beren azturei buruz (asko/gutxi lo egiten duten, asko/gutxi afaltzekoak diren...)
- 4) Gaurkotasuneko gai eztabaidatsuren bat (eutanasia, taxilarien greba, datuen lapurreta Interneten...)

Beraiek aukeratutako gaia labur suertatuko balitz, orduan trebatzaileak beste gai bat jarriko lieke elkarrizketan jarrai dezaten.

**MATERIALA:****JARDUERA ZKIA. 28****IZENA: TELEFONozko ELKARRIZKETAK****| IRAUPENA: 5´****HELBURUA:**

Ulerrizketa bere osotasunean burutzea, une bakoitzari dagokion estrategia erabiliz.

**DESKRIBAPENA:**

Mintzatzaileari eskatuko diogu aldameneko gela batera joateko (edo behinik behin saioa egiten ari gareneko gelatik kanpora atera dadin), eta handik telefonozko deia egiteko ulertzaileari. Ulertzaileak boz-gailua piztuko du trebatzaileak ere elkarrizketa entzun ahal izateko.

Elkarrizketa labur suertatzen bada, beste deialdi bat egiteko eskatuko diegu, baina oraingoan alderantziz, ulertzaileak mintzatzaileari.

**MATERIALA:**

**JARDUERA ZKIA. 29**

**IZENA: LABURPENA**

**| IRAUPENA: 7'**

**HELBURUA:**

Mintzailearen estrategia nagusiak gogoraraztea.

**DESKRIBAPENA:**

- Trebatzaileak laburpen ilustratua (2) pasako die kide guztiei, irakur dezaten. Trebatzaileak lotura egingo du testuan esandakoaren eta jardueretan erabilitako txartelen artean.

**MATERIALA:** Laburpen ilustratuta (2) /Txartela (5) / Txartela (6) / Txartela (7) / Txartela (8)

**JARDUERA ZKIA. 30**

**IZENA: HURRENGO URRATSAK ZEHAZTEA**

**| IRAUPENA: 7'**

**HELBURUA:**

Antolaketa mailako kontuak argitzea, esperientziari hasiera emateko erabakiaz.

**DESKRIBAPENA:**

Ikusita zein den antolaketa tankera, bertan eskatuko zaie erabakia hartzeko (esperientzia abiatu ala ez), edo tarte bat emango zaie ikastaro ondoren beraiek beren kasa erabaki dezaten (gero erabakia antolatzaileei jakinarazita)

**MATERIALA:**

# 5.



## ULERRIZKETAREN ANTOLAKETA

### 5.1.

#### Eredu baten bila

2016. urtean hainbat lantokitan egin genituen lehenengo esperientziak. Haiei jarraiki esperientzia gehiago etorriko ziren 2017. eta 2018. urteetan ere. Ibiliaren ibiliz, ez da nolanhikoa izan hiru urteotan bildu dugun eskarmentua: 13 esperientzia abiatu dira orotara; haietako 10 hasi eta bukatu prozesu osoa egindakoak, eta 3 esperientzia hasi arren bertan behera gelditu zirenak. Guztira, 72 lagun aritu dira; haietako 13 lagun ulertzaile gisa eta 59 lagun mintzatzailearen egitekoan. Hona hemen, zein lantokitan garatu diren ulerrizketa esperientziak, urtez urte berezita:

#### *2016ko esperientziak*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorrak (Donostia)
2. Fagor Ederlan (Aretxabaleta)
3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko Ikuskaritzako Zuzendariorde (Donostia)
4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko Ikuskaritzako Unitatea (Donostia)
5. Eusko Jaurlaritzako Kontsumobide (Gasteiz)
6. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila (Erandio) (bertan behera)
7. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko Laguntza eta Barne Koordinazioa (Donostia) (bertan behera)

#### *2017ko esperientziak*

1. GKN Driveline (Zumaia)
2. Kide Kooperatiba Elkartea (Berriatua)
3. Apnabi Hezkuntza bereziko ikastetxea (Ortuella)

#### *2018ko esperientziak*

1. Hezi eta Ikasi kooperatiba (Erandio)
2. Fagor Arrasateko zuzendaritza taldea (Arrasate)
3. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza (Gasteiz) (bertan behera)

Hiru urteotan, sendo samar iraun du ulerrizketaren oinarriko ideiak. Gauzatzeko garaian, ordea, izan ditu aldaketak esperientziaz esperientzia. Gure jarduna ekintza-ikerkuntza paradigmaten barruan kokatu dugunez, etengabe ibili gara hobekuntzak erantsiz eta probak eginez. Hala, esku-hartzeari ikerketa-izaera erantsita, ikerketa-datuok balio izan digute hurrengo esku-hartzeak doitu, egokitu eta hobetzeko. Eredu kontrastatu baten bila asko aurreratu dugula iritzita ere, ez dugu uste auzia erabat itxita dagoenik. Egia esan, hain dira ugari eta askotarikoak gizarte-egoerak zaila baita egoera guzti-guztietara ongi egokitzen den eredu estandar bakarra taxutzea. Hala ere, beharrezkoa da eredu bat proposatzea. Lan honen irakurleari marko bat eskainiko diogu ulerrizketa esperientziak eratu, bideratu eta antolatu ahal izateko. Eraketari begira, antolatzaile batek gogoan hartu beharreko funtsezko atalak zeintzuk diren aletzen saiatuko gara. Eta horiek bideratzeko edo operatibo bihurtzeko gure orain arteko irizpideak ere eman egingo ditugu.

Egia da ulerrizketa metodologia lan munduari begira sortu zela, eta esperientziak lantokietan garatu ditugula. Horregatik, ondoren jorratuko ditugun gai eta proposamenei ezinbestean darie lan-munduaren kutsu eta lurrina. Ezin bestela izan. Hala ere, esanak esan, uste irmoa dugu ulerrizketa metodologiak lan-munduan ez ezik, bestelako gizarte-eremu naturaletan ere (elkartean, lagunartean, senitartean, eta antzekoetan, esaterako) bideragarri izateko ahalmen handia duela. Egoki ikusi dugu, horrenbestez, atal honetako hondarrean tarte berezi bat eskaintzea ulerrizketa metodologiak lan mundutik harago izan dezakeen garapenari. Ate berriak zabalduko lizkioke horrek ulerrizketaren ildoari.

Hasi, ordea, lan mundurako aplikazioarekin hasiko gara.

## 5.2.

### Eredu estandarraren hezurdura

Hona hemen, modu eskematikoan emanda, ulerrizketa esperientziak garatzeko eredu estandarren hezurdura:

#### 1.- Aurre-lanak

- 1.1.- Lantokietan pertsona eta egoera egokiak lokalizatu.
- 1.2.- Lantokiko arduradunei urratsak abiatzeko oniritzia eskatu.
- 1.3.- Kontaktu pertsonala egin balizko parte hartzaileekin.
- 1.4.- Bilera egin informazio zehatza emateko eta formazioari buruzko erabakia hartzeko.

#### 2.- Formazioa

- 2.1.- Bi orduko aurrez aurrekoa saio bat (ulertzailea-trebetzailea harremanean zentratua).
- 2.2.- Bi orduko aurrez aurrekoa saio bat (ulertzailea-mintzatzailea harremanean zentratua).
- 2.3.- Esperientzia ingurune naturalean abiatzeko erabakia hartu.

#### 3.- Esperientzia

- 3.1.- Ulerrizketa unitatea: ulertzaile bat eta bi mintzatzaile.
- 3.2.- Mintzatzaileen hizkuntza-araua:
  - Gehienbat euskaraz jardutea ulertzailearekin nahiz mintzatzaileekin.
  - Euskara ulergarria erabiltzea ulertzailearekin.
- 3.3.- Ulertzailearen hizkuntza-araua:
  - Bere esku dago erdaraz edo euskaraz jardutea.
  - Ulertzeko lanetan aktibo jardutea.
- 3.4.- Bi hilabeteko iraupena.
- 3.5.- Asteroko jarraipen sistema fitxa baten bidez.
- 3.6.- Datu bilketa sistema.

### 5.3.

## Aurre-lanak

Egin ditugun esperientzietan, beti erabili izan dugu antolaketa modu bertsua. Funtsean, honako ezaugarri hauek zituena: kanpoko erakunde aditu batek (Unibertsitateak, Soziolinguistika Klusterrak...) ikerketa proiektu batean txertaturiko esperientzia batean parte hartzeko eskaintza (gonbitea, proposamena...) egiten dio hizkuntza baldintza egokiak dituen langile multzo bati, euskara-aholkularitza enpresa baten edo euskara zerbitzu baten bitartekaritzaren bidez (enpresa eta zerbitzu horiek era berean ikerketa proiektuaren partaide dira). Horren ondorioz, esperientzia guztiak hizkuntza-plangintzak zeuzkaten enpresetan garatu dira. Nolabait, langileek ez zuten arrotz euskararen gaia, eta enpresa-arduradunek aldeko jarrera zuten esperientziak onartzeko.

Esperientziak, horrenbestez, euskararen aldeko giro batean kokatu dira, bai behetik eta bai goitik begiratuta. Goiko arduradunen oniritzia beharrezkoa izan arren, benetako erabakia parte hartzaileen esku zegoen. Erabakia, gainera, abiatzeko ez ezik jarraitzeko ere berretsi behar izaten zuten prozesuan zehar une desberdinetan. Parte hartzaileei ez genien galdetzen, esperientziari heltzeko gogoia adierazten zutenean, zergatik parte hartu nahi zuten, eta, atzekoz aurrera, gogoia galtzen zutenean ere, ez genien itauntzen zergatik ez zuten jarraitu nahi. Ezetzaren aurrean ez zegoen gure aldetik presiorik, ez zuzenik ez zeharkakorik: beren erabakia naturaltasunez onartzen genuen, "hoztasun" puntu batekin, inplikazio emozionalik gabe, beraiek zinez aske senti zitezten erabakia hartzeko orduan.

Eusle Metodologiaren berri daukatenez berehala antzemango diote antolaketa honek harekin duen antzekotasun handiari. Eta ez lirakeke oker uste horretan. Zeren, nahita hartutako erabakia izan baitzen bi metodologiei antolaketa marko ahalik eta antzekoena ematea. Finean, bi-biak enbor bereko adar bana izanik, batasun eta koherentzia zor baitzioten elkarri. Nahi izatera, orduan, ulerrizketaren eztabaida honetara ekar daitezke eusle metodologiaz hitz egindako gehienak, eta ulerrizketarako ere baliagarriak izango lirakeke haren alde emandako argudio eta azalpen gehienak.

Ordea, antzekotasunak antzekotasun, baditu Ulerrizketa Metodologiak bere-bereko ezaugarriak. Haiek aletzen saiatuko gara hurrengo orrialdeotan. Has gaitezen, bada, ulerrizketa esperientziak abiatzeko nolako urratsak eman behar diren zehazten.

#### **1) Lantokietan pertsona eta egoera egokiak lokalizatu.**

Alegia, ikusi ze aukera dauden lantokietan ulerrizketa esperientziak abiatzeko. Normalean eginkizun hau hizkuntza-aholkulariaren ardura izaten da, lankideen hizkuntza-gaitasunaren datuetan oinarrituta. Jakina, langile bakanak har ditzakegu gogoan lokalizazio lana egiterakoan, baina askoz ere interesgarriagoa da, ikuspuntu soziolinguistikoari erreparatuta, harreman sareak hartzea jomugan. Hala egiterakoan, esaterako, identifika daitezke lantokietako zein taldeetan euskararen erabilera murriztua den elebidun hartzaileekiko harremanaren kausaz. Halako

taldeetan ulerrizketa esperientziak egiteak balio soziolinguistiko handia izan lezake, lagunduko bailuke harreman sareok euskararentzat eremu trinko bihurtzen.

Bestalde, kideen hizkuntza-gaitasunari dagokionez, honako soslai hauek dituzten pertsonak bilatzen ari gara. Ulertzaileari dagokionez, BI mailako ulermen gaitasuna duena (ulermenekoa bakarrik; ez da beharrezkoa maila hori izatea beste hiru trebetasunetan). Eta mintzatzaileari dagokionez, euskaraz hitz egiteko erraztasuna duten pertsonak (CI mailaren pareko gaitasuna mintzamenari begira).

## **2) Lantokiko arduradunei urratsak abiatzeko oniritzia eskatu.**

Lantoki batean ulerrizketa esperientziak egiteko pertsonak eta egoera egokiak daudela jakinda, ezin da aurrerapauso gehiagorik egin, ezpada lantokiko arduradunen baimena eta oniritzia aurretik lortuta. Goitik datorren erabakia beharrezkoa da ekimenari zilegitasuna emateko. Lan eremutan ari gara, eta delako erakunde horiek egitura hierarkizatua izan ohi dute.

## **3) Kontaktu pertsonala egin balizko parte hartzaileekin.**

Goi-organoen oniritzia eskuan, protagonistengana zuzenean jotzeko ordua da. Modu askotan egin daiteke prozesu hau, baina gure estrategiarik kutunena ulertzailearengandik abiatzen da. Ulertzailea da ulerrizketa metodologian alderik “ahulena”, baina aldi berean funtsezkoena. Haren prestutasuna eskuratzek izan beharko luke, gure iritziz, aurreneko urratsa. Behin jakinez gero ulertzaileak aldeko jarrera duela, egiaztatu beharko litzateke bere ulermen gaitasuna. Hainbat kasutan, ulertzailea egiaztagiriren baten jabe izan daiteke, eta hori aski izan daiteke helbururako. Baina, gehienetan ulertzaileak ez du halakorik izaten, eta, orduan, beharrezkoa izango da ulermen frogaren bat eginaraztea, bere benetako ulermen maila egiaztatzeko. Ulermen gaitasuna jakiteko erreferentzia ona litzateke ere, teoriarik, ulertzailearen lankideei galdeztzea euskaraz zer moduz edo zenbateraino ulertzen duen. Baina praktikan, euskaraz “tarteko” ulermen maila duten lankideekin ingurukoek maiz erdaraz izaten dute harremana, eta beraz ez dute jakiten zenbateraino ulertzen duen euskaraz.

Ulerrizketarako ulermen gaitasun egokia duela ziurtatu ondoren, komeni da ulertzaileari berari galdetzea bere lankide elebidunen artean zeintzuk izan daitezkeen egoki mintzatzaile gisa aritzeko. Ulertzaileak inork baino hobeto seinala dezake zeintzuk diren berarengandik gertuen dituen eta konfiantza gehien eragiten dioten kideak. Alderdi afektibo hau gogoan hartzeak egundoko garrantzia du ulerrizketa esperientziaren arrakastan. Azkeneko urrats gisa, zuzenean jo behar genuke mintzatzaileengana (ulertzaileak aipatutako horiengana, hain zuzen ere). Egiaztatu behar luke hizkuntza-aholkulariak mintzatzaileek printzipioz, eta besterik ezean, badutela prestutasuna ulertzailea laguntzeko ulerrizketa esperientzietan. Eta horrekin batera, badutela euskaraz hitz egiteko erraztasuna.

Laburtuta: 1) ulertzaileak aldeko jarrera duela egiaztatu; 2) ulertzailearen euskarazko ulermen egiaztatu frogaren bidez, egiaztagiririk ez dagoenean; 3) ulertzaileari galdetu balizko mintzatzaile egokiei buruz; 4) mintzatzaileek aldeko jarrera eta erraztasuna dutela egiaztatu.



Balizko ulertzaile eta mintzatzaileekin aurreneko hartu-emana egiterakoan, helburu nagusia ez da ulerrizketari buruzko informazio xehe-xehea ematea, horretarako bilera bat egingo baita gerora ikerketa-taldeko arduradunekin edo egitasmoaren antolatzaileekin. Baina, hala ere, haien irekitasuna edo aldeotasuna egiaztatzearen “zerbait” esan behar zaie, zeren bestela ez bailukete jakingo zer proposatzen ari zaien. Beraz, informazioa xehe-xehea izan gabe ere, zerbait esaterakoan, aski izan daiteke oinarritzko ideia orokorrak esatea. Gure aburuz, honako lau puntu hauetara ekar daitezke funtsezko ideiak:

- Testuinguruari dagokionez, esan liteke ulerrizketa esperientziak halako ikerketa, proiektu edo plangintzaren barruan txertatzen direla.
- Sustatzaileei dagokionez, komeniko litzateke argitzea ekimena nondik sortzen den, eta nortzuk diren erakunde sustatzaileak. Era berean, komeni ere adieraztea ekimenak baduela, izan, beren lan-erakundeko arduradunen oniritzia.
- Asmoari dagokionez, aipa daiteke ekimenak euskararen erabilera areagotzea helburu duela. Gehiago zehaztu nahi bada, esango genuke metodologia honi esker bidea zabaltzen dela euskaraz orain tarteko gaitasuna duen kideak gaitasun hori osatu eta euskaraz normal aritzera iristeko.
- Esperientziaren mamiari dagokionez, esan liteke “teknika” batzuk ikasi beharko lituzketela formazio labur baten bidez, gero aplikatzeko eguneroko lan harremanetan. Aplikazioa komunikazio estilo berezia izango litzateke, non mintzatzaileek gehienbat euskaraz egingo dioten ulertzaileari esperientziak irauten bitartean, eta ulertzaileak erdaraz edo euskaraz egingo duen bere gogo eta gaitasunaren arabera.

Azalpenok ahoz emanda, ulerrizketaren idatzizko bertsio laburtua (argitalpen honetan bertan 8.1 eranskinean agertzen den bertsioa, hain zuzen ere) eman dakieke kideei, patxadaz irakur dezaten.

#### **4) *Bilera egin informazio zehatza emateko eta formazioari buruzko erabakia hartzeko.***

Hizkuntza-aholkulariak bilera bat prestatuko du kanpo-sustatzaileak eta balizko parte hartzaileak elkartzeko. Nahi izatera, aurrekoek gain, lankideotako erakundeko ordezkariaren bat ere egon liteke, baina, egotekotan, ez da komeni kide bat baino gehiago izatea (gehiago izanez gero, desorekatzen baita protagonisten eta kanpoko ordezkarien presentzia, eta protagonistek handiegiztat har dezakete kanpoko presioaren sentsazioa). Sustatzaileek informazio zehatza emango dute bileran, eta balizko parte hartzaileen galderei eta zalantzei erantzungo diete. Ahozko azalpenek gain, ulerrizketa komunikazio estiloa irudikatzen duen bideoa ikusiko dute. Bukaeran, balizko parte hartzaileek erabakia hartu behar dute formazio saioan parte hartzeari buruz. Parte hartzeko prest badaude, orduantxe finkatuko dira formazioa egiteko datak. Parte hartzeko prest ez baleude, orduan horixe izango litzateke ibilbide motz honen azken geltokia, eta bertan behera utziko genuke ulerrizketa esperientzia abiatzeko aukera bera ere.

Hona hemen bileraren atalak urratsez urrats: 1) sustatzaileak eta egitasmoaren testuinguru orokorra aurkeztu; 2) ulerrizketa bideoa ikusi; 3) ulerrizketa esperientzien puntu nagusiak azpimarratu; 4) galderak egin eta argibideak emateko tartea izan; 5) formazioa saioan parte hartzeko erabakia hartu; 6) erabakia baiezkua izanez gero, formazio saiorako datak finkatu; eta ezezkoa izanez gero, eskerrak helarazi eta ibilbidea itxitzat eman.

Urrats hauen atzean, badira gogoan hartzeko moduko hainbat hausnarketa. Honako hauek:

**Aurrena**, ulerrizketa esperientziek ahalik handiena hartzen dute testuinguru esanguratsu baten barruan txertatuta daudenean. Metodologia hustzat baino gehiago, kanpaina, ikerketa edo egitasmo orokor baten tresna gisa ikusten dugu guk. Metodologia honi marko soziolinguistiko bat ematean, horrek esperientziari zentzia edo iparra atxikitzen dio, eta, hala, bere dohain eta indarguneak bizkortzen.

**Bigarrena**, barrua/kanpoa osagarritasuna zentzuz betekoa da hau bezalako egitasmoetan. Hizkuntza-ohituren kontuetan, “barnean” protagonistek inertziak gainditzeko ez duten kemen eta indarra, “kanpoko” alderdi batzuek egin dezakete sustatu, abiarazi eta iraurarazi. Kanpoko alderdien artean aipa daiteke, besteak beste, esperientziak egitasmo orokor eta indartsuetan kokatuta egotea, baina, baita ere, sustatzaileak jendearen aurrean izen on eta itzal handikoak izatea. “Unibertsitatea”, “erakunde publikoak”, “ikerketa erakundeak”, “aholkularitza enpresa” eta halako hainbat adigai esperientziei lotuta erabili ahal izateak erantsi ohi dio zer horri halako balio berezia, eta, ez gutxitan, jokaeraren suspergarri dela ere antzematen da. Kanpoko beste alderdi sustatzaile bat masibotasuna da; hots, era bereko esperientziak hemen eta han, guk eta besteak, aldi berean egiteak pizten du olatu nagusi baten partaide izateko gogoia. Gure esperientzietan ez gara azken honetaz baliatu, esperientzia guztiak era pilotuan egin ditugulako, baina metodologia zabaltze-aldi batean sartuko balitz oso osagai sustagarria izan liteke, zalantzarik gabe.

**Hirugarrena**, goiko eta beheko dinamiken arteko doitzeak ere trinkotasuna ematen dio jardunbideari. Behetik begiratuta, parte hartzaileek beraiek hartzen dute erabakia esperientziari heltzeko ala ez heltzeko. Beraiek dute azken hitza. Baina, aldi berean, goitik begiratuta, entitateko arduradunek halako esperientziak egiteko oniritzia ematen dute, eta, hori egitean, zilegitasun erabatekoa ematen diote jardunbideari. Honek, atzera, parte hartzaileei ziurtasuna edo lasaitasuna sorrarazten die.

**Laugarrena**, ulertzaileek eta mintzatzaileek erabaki behar dute esperientziak abiatu ala ez, eta abiatutakoan jarraitu ala ez. Hala eta guztiz ere, abiaburuan, arreta ulertzailearengan jartzeari (ez mintzatzaileengan) hobe da esperientzia sendo zurkaiztuko bada. Ulertzailea da esperientziaren punturik ahulena; berak ditu euskarazko komunikazioaren aurrean zailtasunik handienak (ulermena ez du guztiz ona; eta mintzamina, kamutsa); berak ditu sentsaziorik hauskorrenak. Bere aldekotasuna aurrean eskuratuta, egundoko urratsa egingo genuke ulerrizketa esperientzia iraunkorra izan dadin. Logika beretik abiatuta, hurrengo urratsa izan

liteke ulertzaileak berak adieraztea zeintzuk izan litezkeen bere bidaide egokiak (gertutasunagatik, harreman motagatik...) mintzatzaile gisa.

**Bosgarrena**, formazioa edo prestakuntza ulerrizketaren funtsezko osagaia da, eusle metodologian ez bezala. Ulerrizketak, izan, baduelako komunikazio-trebetasunei loturiko alderdi “tekniko” bat, ezinbestean aintzat hartu beharrekoa. Eta honek eragin zuzena du erabakitze-prozeduran. Aurre-lanetarako aldi honetan, parte hartzaileek, azken urrats gisa, formazio-saio batean parte hartzeko erabakia hartu behar dutela esan dugu. Eta berriz diogu, puntua argitzeak egundoko garrantzia duelako: erabakia ez da ulerrizketa esperientziak abiatzea, baizik eta ulerrizketa-trebetasunei buruzko formazio-saio bat jasotzea. Formazio-saioa jasotzerakoan, parte hartzaileak konturatuko dira zehatz-mehatz zein trebetasun, zein jarrera eta zein jokaera eskatzen dizkien ulerrizketaren estiloak. Jabetuko dira, era berean, modu sentikorrean eta ez modu kognitiboan soilik, gai ote diren eta gogoia ote duten delako eskakizun horiei heltzeko lankide zehatz horiekin eta testuinguru (giro, une...) zehatz horretan. Azkenik, ohar-tuko dira ulertzaileen eta mintzatzaileen artean doitze, uztartze edo “kimika” dagoen ulerrizketa estiloan luze aritzeko. Hari hauek mahai gainean edukita, parte hartzaileek har dezakete orduan, eta ez lehenago, benetako erabakia ulerrizketa esperientziari lotzeko ala ez. Beraz, ulerrizketa esperientziak abiatzeko erabakia ez da hartuko formazio-saioa burutu artean.

**Seigarrena**, gorago aipatu dugu ulertzailea dela metodologia honetan “punturik ahulena”, eta haren oniritzitik edo interesetik abiatzea komeni dela. Hori horrela izanik ere, ez dugu pentsatu behar beste aldea, mintzatzailearena, kasu guztietan erraz egiteko moduko zeregina denik. Euskaraz egiteko erraztasuna izanik ere, ez daude hiztun guztiak ohituta haien hizkera egokitzen; ezta ere, solaskideak zerbait euskaraz ulertzen ez dienean “beste modu batez” esatera (erdarara pasa gabe!), eta are gutxiago, ongi ezagutzen duen lankide batekin ele biko elkarrizketan aritzera. Gako batzuk eskuratu eta entrenamendu pixka batekin, hiztun asko moldatzen dira ongi horretan, bakoitza bere modura eta bere estiloan, baina ez da ahaztu behar batzuentzat ez dela batere ariketa erraza. Gorago aipaturiko “doitze” edo “uztartze” horrek, hala, bi aldeei eskatuko die ahalegin bat, batez ere lehen urratsetan.

## 5.4.

### Formazioa

Bilakaera aipagarria izan dugu alderdi honi dagokionez hasi ginetik gaurdaino. Hasieran ez genuen batere formaziorik ematen. Hitzez besterik ez genien azaltzen parte hartzaileei egin beharrekoa: hots, mintzatzaileari “euskara erraza erabiltzeko” eskatzen genion; eta ulertzaileari, “ulertutakoa konprobatzeko”. Ideia ustez ulertuta, beren esku uzten genuen hori aplikatzea egoera errealetan zeudenean. Berehala konturatu ginen motz gelditzen ari ginela, gaizki ulertzeak ugari zirela, bai eta aplikazioak ere maiz okerrak zirela. Nonbait, ez zen aski “ideia” modu orokorrean ulertzea. Praktikan ustekabe eta zailtasun asko agertu ziren, eta parte hartzaileek ez zeukaten hori gertatzean jokatzeko irizpide argirik eskura. Ez kasu guztietan, ordea, batzuek ongi gauzatzen baitzuten eskatutakoa. Labur esanda: bazuten gutxi batzuek ulerrizketarako berezko joera eta erraztasuna, baina gehien-gehieni zail eta arrotz suertatzen zitzaizkien ulerrizketa-trebetasunak.

Formazio edo prestakuntzaren beharra sortu zitzaigun orduan. Lehendabizi, aurkezpen saioetan beraietan txertatu genuen formazio ataltxo bat. Ordu erdiko-ordu beteko saio labur bat besterik ez zen, non mintzatzaileek albiste laburrak kontatu behar zizkioten ulertzaileari, trebatzailearen jardura eredugarria behatu ondoren. Saiook informazio esanguratsurik ematen zигun arduraduenoi. Bagenuen jakiterik zer nolako zailtasunak zeuzkaten parte hartzaileek. Argi antzematen genuen nortzuek zeukaten ulerrizketarako trebetasun handia, eta nortzuk tartekoa edo trebetasun txikia. Ulerrizketa esperientziaren arrakasta igartzeko adierazle oso ona zen, inondik ere. Saioen laburrak ez zuen aski aukerarik ematen parte hartzaileek trebetasunak barneratzeko, baina, behinik behin, informazio baliagarria helarazten zигun.

Urrats bat aurrerago ematea deliberatu genuen, eta 2018ko esperientzia guztietan bost orduko formazio saio bat (gehienetan bi zatitan emanda) erantsi genion oinarrizko diseinuari. Onura handiak ekarri zituen horrek. Onurak, batetik, alderdi didaktikoari zerizkion, parte hartzaileek ulerrizketa-trebetasunen zer-nolakoak hobeto ulertu eta barneratzen baitzituzten; baina, bestetik, erabakia hartzeko prozeduraren kalitateari ere lotzen zitzaizkion onurak, zeren parte hartzaileek esperientzia abiatzeko erabakia jabetuki eta irizpide osoz hartzen baitzuten.

Gauzak horrela, formazio-saioarena eredu estandarraren funtsezko osagai bihurtu zaigu. Doikuntza txikia eginda, hala ere: saioa bost ordutik lau ordutara pasa dugu. Ez dugu orain xehetasun handirik emango delako saio horien edukiaz, zeren berorri atal oso bat (4. atala) eskaini baitiogu. Baina, behinik behin, eraketari lotutako hainbat kontu gogoratuko ditugu.

Formazio-saioa bi orduko bi saiotan banatzen da. Saiotetan, batera dihardute ulertzaileak eta mintzatzaileak, trebatzaile baten gidaritzapean.

Lehen saioan (bi ordu), trebatzailea ulertzailearengan zentratzen da, mintzatzaileek bien arteko jarduna behatzen duten bitartean. Ulertzeko jokabide aktiboak banan bana ikusarazten dizkio trebatzaileak ulertzaileari. Trebatzaileak modu praktikokoan hezurramitzen du ulerrizketaren komunikazio estiloa ulertzailearekin jarduterakoan, eta ulertzaileak jokabide zuzenak barneratzen ditu trebatzailearen laguntzaz. Bide batez, hori guztia behatzerakoan, mintzatzaileek trebatzailearengandik eredu eta erreferentziak hartzen dituzte.

Bigarren saioan (bi ordu), trebatzailea mintzatzaileengan zentratzen da. Mintzatzaile batek behar dituen jokabideak urratsez urrats aletzen dizkio trebatzaileak. Jokabideok, gero, ulertzailearekin batera jardunez praktikatu behar ditu, trebatzailearen begirada didaktikoaren aurrean. Horrela jardunda, ulertzaileak eta mintzatzaileak aukera izaten dute beren arteko hizkuntza-sintonizazioa egiteko eremu babestu batean. Hizkuntza-sintonizazioak esan nahi du mintzatzaileek egiaztatzea ulertzaileak zenbat ulertzen duen, nola hitz egin behar zaion uler dezan, eta zein abiaduran hitz egin behar zaion. Era berean, hizkuntza-sintonizazioak esan nahi du ulertzaileek egiaztatzea zenbat ulertzen dien mintzatzaileei, eta eskatzea zer behar duen hobeto ulertzeko. Hizkuntza-sintonizazioa errazago egiten da hau bezalako eremu babestu batean laneko eremu errealean beren kasa eginda baino. Eremu babestu batean hobeto kudeatzen dira urduritasunak, arrotzasunak, atsekabeak, eta antzeko izari afektiboak.

Halako eremu babestuan, ulerrizketa-kideek aukera daukate bilakaera esanguratsu bat egiteko, zein baita komunikazio egoera arrotz batetik nolabaiteko konfiantza egoera batera igarotzea. Osagai asko dago hasieran ulerrizketa jarduera arrotz egiten dutenak: batetik, kide horiek seguru asko ez dute sekulan beren artean euskarazko elkarrizketarik izan; bestetik, ele biko elkarrizketetan jarduteak areagotzen du arrotzasuna; eta, azkenik, ulertzailearen komunikazio-gaitasun mugatuak moteltzen du elkarrizketaren erritmoa. Ordea, jardunaren jardunaz ohartzen direnean ulerrizketaren moduan arituta ere komunikazioa ongi gerta daitekeela, orduan hasierako arrotzasuna lausotu egiten da, eta jokaera berria egingarriago, eta eskuragarriago ikusten da. Konfiantza hasten da garatzen. Funtsezkoa da ulerrizketa esperientziak arrakasta-aukerarik izateko, arrotzasunetik konfiantzarako eraldaketa ezin garrantzitsuago hori trebatzaileak eraikitako eremu babestuan gertatzea. Izan ere, hala egin ezean, oso aldaketa eta jauzi handia ariko baikinen planteatzen kolpetik: laneko ohiko testuinguruan (presa, ardura, ziurtasun-premia eta abarrekin), lankide batekiko hizkuntza-ohitura urratzea (kasu askotan ez dute aurrez inoiz elkarrekin euskaraz egin), eta gainera komunikazio estilo berezi bat erabiliz (hizkera erraza, konprobazioa, beste modu batez esan, eta abar). Formazioaren testuinguru babestuak laguntzen du aldaketa multzo horrek hasiera “lagundu” bat izan dezan, nolabait.

Formazioa bukatzerakoan etorririko da egiazko erabakia. Ulerrizketa modua zer den, zer eskatzen duen, eta zer sentazio sorrarazten dizkien jakinda, une egokian daude erabakitzeko ulerrizketa esperientzia laneko espazio errealeran eraman nahi duten ala ez. Beraz, erabaki garrantzitsu hau hartzea izango da formazio-saioaren azken jarduna. Erabakia baiezkota izanez gero, trebatzaileak eta kideek zehaztuko dituzte hurrengo urratsak:

- Esperientzia noiz hasiko den
- Esperientzia noiz bukatuko den
- Jarraipen sistema nolakoa izango den
- Datu bilketa nolakoa izango den

Erabakia ezezkoa denean, aurrena eskerrak emango dizkiegu ordura arteko ibilbideagatik, eta, ondoren, galdeketa, azterketa edota nolabaiteko konbentzimendu-saio orori uko eginez, bertan behera utziko dugu prozesua eta bukatutzat emango.

Formazio-saioari ikusten dizkiogun onurak puntu hauen inguruan bil ditzakegu, laburrean esatearren:

- 1)** Ulerrizketa Metodologia ulertzeko tresna indartsua da, jarduera eta bizipenetan oinarritzen baita hitz hutsetan baino gehiago.
- 2)** Agerian uzten ditu parte hartzaileen alderdi ahulak eta indartsuak, modu argi eta errealistan.
- 3)** Errealismo horrek oinarri sendoa ematen du parte hartzeko erabakia ongi pentsatua izan dadin.
- 4)** Hitz, kontzeptu eta ideia partekatua sortzen ditu parte hartzaileen eta trebatzailearen artean, metodologiari buruzko komunikazioa sakonagoa izan dadin.
- 5)** Ulerrizketaren eredu errealak modu globalean jasotzeko aukera ezin hobea ematen du.
- 6)** Parte hartzaileen alderdi indartsuak are gehiago indartzeko tresnak eskaintzen ditu, eta alderdi ahulez ohartzeko bideak ematen ditu.
- 7)** Parte hartzaileek aukera dute hizkuntza jokaera arrotz bat praktikatzeko eremu babestu batean eta trebatzaile baten laguntzarekin, eta, hala, seguruenik errazago egingo zaie lehen urratsak ematea.

## 5.5.

**Esperientziaren ezaugarriak****1) Ulerrizketa unitatea: ulertzaile bat eta bi mintzatzaile**

Ulerrizketa unitate estandarra honako hau litzateke: “ulertzaile bat eta bi mintzatzaile”. Hirukotea, beraz. Salbuespen gisa, unitate txikiagoa ere onar daiteke: “ulertzaile bat eta mintzatzaile bat”.

Bikotea da ulerrizketa egin ahal izateko gutxieneko kopurua, eta ongi funtziona dezake kasu askotan. Baina, gure lehentasunezko aukera hiruko unitatea da. Hirukotea ez da talde handia, baina ez da bikotea bezain eremu txiki eta zurruna. Hirukoteak biko harremanen gertutasuna du, baina, orobat, badu talde handiagokoen joko sozialen aberastasunetik asko. Formazio saioretarako kopuru eramangarria da, eta saioren intentsitatea ziurtatzen du. Mintzatzaileak bi izanik, probabilitate gehiago dago mintzatzaileetako batek behintzat bere zeregina osoki eta jator betetzeko.

Ulerrizketa unitatean bi mintzatzaile egoteak, eta formazioa elkarrekin jasotzeak, beste bi onura hauek ere baditu: batetik, elkarrengandik ikasteko aukera. Aipatu dugun moduan, pertsona batzuk besteak baino errazago moldatzen dira hizkera egokitzeko zeregin horretan, eta formatu honek aukera ematen du horretan trebeagoak diren lankideengandik ikasteko. Bestalde, lantokian aldatketak gertatu eta bi mintzatzaileetako bat galtzen badugu (oporrak hartzen dituelako, baja bat duelako, lan-antolaketan aldatketak izan direlako...) besteak jarrai dezake abiatutako dinamikarekin.

**2) Mintzatzaileen hizkuntza-araua**

Mintzatzaileari jarritako hizkuntza-arauak honela dio:

*“**Lehenengo puntua:** Esperientziak iraun bitartean, ulerrizketa kide guztiekin, ulertzailea izan edo mintzatzailea izan, haiekin euskaraz egingo duzu lehenengo aukera gisa, joera moduan, ahalik eta gehienetan. Nagusitu behar zaizu, beraz, haiekin euskara erabiltzeko jokabidea, baina horrek ez du esan nahi beti eta etengabe egin behar duzunik euskaraz. Hainbat unetan, egoeraren larriak hala eskatzen duenean (esaterako, gaia oso konplexua denean, edo lantokian presa eta presio handia dagoenean, edo zerbait euskaraz errazean ulertarazteko gauza sentitzen ez zarenean, edo euskaraz ulertzen ez duen lankideren bat tarteko denean, eta abarretan) erdaraz egin dezakezu. Behin larrialdia baretuz gero, euskarazko jokamoldera itzuliko zara. Zure esku dago hizkuntzen arteko erregulazioa kudeatzea, baina beti ere euskararako joerari eutsita. Hizkuntza-arau hau bakarrik aplikatzen da ulerrizketako kideekin aurrez aurre zaudenean. Ez da aplikatzen ulerrizketa-unitatetik kanpoko gainerako lankideekin.*

**Bigarren puntua:** *Ulertzailearekin hitz egiterakoan, zure hizkera moldatzeko ahalegi-na egingo duzu. Ulertzaileak ulertzeko moduan ariko zara. Zerbait ulertzen ez dizunean, moldatuko zara beste modu ulergarriago baten bidez esateko.*”

Arau honekin bilatzen dugu ulerrizketa izan dadin, esperientziak iraun bitartean, beren arteko komunikazio estilo nagusia. Eta, beraz, ulerrizketa eramatea alderdi guztietara: informaletara zein formaletara, gai arinetara zein gai teknikoetara. Hizkuntza-arauak, bestalde, hizkuntza-erregulazioarako tartea eta aukera ematen ditu, erdaraz baliatzeari bide emanaz egoeraren larriak hala eskatzen duenean.

### 3) Ulertzailearen hizkuntza-araua

Ulertzaileari atxikitako hizkuntza-araua honako modu honetan zehazten da:

**Lehenengo puntua:** *Euskaraz egin ahal baduzu egizu, baina ezin baduzu erdaraz egi-zu lasai. Laneko komunikazioarekin jarraitu behar duzu modu efektiboan beti bezala. Zuk ikusi zein den zuretzat modu efektiboa une bakoitzean: euskaraz edota erdaraz.*

**Bigarren puntua:** *Mintzatzaileek euskaraz egiten dizutenean, ez gelditu isilik, eta eduki jarrera aktiboa. Mintzatzaileek beharrezko dute jakitea benetan ulertzen ari zaren ala ez, eta zure lana da beraiei erakustea ulertzen ari zarela (komentarioak eginez, laburpenak eginez...), edo ohar egitea zerbait ulertzen ez duzunean (galdetuz, argitzeko eskatuz...).*”

### 4) Bi hilabeteko iraupena

Ulerrizketa esperientziak bi hilabete iraungo du. Ahal dela, bi hilabeteak elkarren segidan. Ezin denean, kideen oporrak edo lanak eragindako bestelako etenak tarteko direla, bi zatitan egingo da, baina bi zatien artean hilabete baino gehiagoko tarterik utzi gabe.

Eusle Metodologian ere bi hilabeteko markoa erabiltzen dugu. Gogoko neurria dugu hori. Bi hilabete denbora asko eta denbora gutxi da aldi berean. Seguru asko, prozesua intentsua denean, bi hilabete asko da. Ohiko hizkuntza jokaera bat bazterrean utzi hizkuntza jokaera berri bati heltzeko, eta egunean horri ordu askotan eutsita, bi hilabete asko da. Ordea, hizkuntza-jokaera berria finkatu, barneratu, automatizatu eta natural bihurtzeko garaian bi hilabete gutxi da, batez ere euskarazko ohitura berria finkatzeko abiapunturik zailenak dituzten kideentzat (abiapuntu errazagoa dutenentzat, bi hilabeteko tartea nahiko izan daiteke).

Eusle Metodologiarekin bezala, Ulerrizketa Metodologiarekin ere gure asmoa ez da bi hilabete-ko epean prozesua bururaino eramatea. Aldaketa prozesuen osotasuna kudeatzea, seguru asko, hobeto egin liteke hizkuntza-plangintzaren ikuspegi orokor batetik. Gure helburua apalagoa da. Konforme gara esperientzia intentsu eta argigarriak biziarazteaz, ustez horrek aldaketa prozesu



sakonagoak abiatzeko laguntza ekar dezakeelakoan. Helburu honi begira, bi hilabeteko tartea formatu egokia da. Eta, beraz, formatu honi helduko diogu ulerrizketaren eredu estandarrean ere

### 5) Asteroko jarraipen sistema

Ulerrizketa Metodologia hizkuntza-plangintza baten aterpean edo ikerketa testuinguruan egiten dugunean, lagungarria izaten da –ikerketaren kasuan, ezinbestekoa– esperientziaren nolabaiteko jarraipena egitea. Izan ere, beharrezkoa izaten da metodologiaren gutxieneko baldintzak betetzen ari ote diren maiz monitorizatzea. Kontrol sistema gisa, baldintza egokiekiko gerta daitezkeen desbideratzeak berehala sumatu eta baldintza egokiak berreskuratzeko ekintzak burutu ahal izateko zeregina izan ohi du jarraipen sistema batek.

Bigarrenik, badu jarraipen sistema batek i egiteko “didaktikorik” ere. Hari esker, parte hartzaileek eusten diote arreta gorenean piztuta edukitzeari. Halakorik gabe, arrisku handia legoke parte hartzaileak ahanzturaren bidean murgiltzeko, ohiko inertziak eramanda.

Beraz, astez asteko jarraipen sistema bati heltzea proposatuko genuke ulerrizketaren eredu estandarrean txertatzeko.

Posta elektronikoko bidezko harremana ardatz hartuta, egitasmoaren arduradunek fitxa bana bidaliko diete parte hartzaileei, astero, astea bukatze aldera. Honako fitxa hau, hain zuzen ere:

#### JARRAIPEN FITXA:

Data: .....

Lantokia: .....

Izena: .....

1) Nola hitz egin duzu aste honetan zure ulerrizketa-kideekin?

Erabili eskala hau (zenbakiak jartzea nahikoa da)

- 1. Beti edo ia beti erdaraz
- 2. Erdaraz euskaraz baino gehiago
- 3. Bietan berdin
- 4. Euskaraz erdaraz baino gehiago
- 5. Beti edo ia beti euskaraz

Lankidearen izena idatzi	Nik berari	Berak niri
1. ....		
2. ....		

2) Jarraitu nahi duzu beste astebete gehiago?

- Bai
- Ez

Parte hartzaileek, atzera, fitxak beteta helaraziko dizkiete egitasmoaren arduradunei. Datuak aztertu ondoren, egitasmoaren arduradunek emaitzak ezagutaraziko dizkiete parte hartzaileei, email bat bidalita hurrengo astearen aurreneko egunean. Emaitzak era honetara emango dira:

- Hizkuntza-arauaren betetze maila: Ona /Erdikoa/Txarra
- Jarraitzeko gogo: ulertzailea (bai/ez), mintzatzailea 1 (bai/ez), mintzatzailea 2 (bai/ez)
- Esperientziak jarraitzen al du?: Bai / Ez (ezezko kasuan, ulerrizketako kideei horren arrazoiak eman, eta, behar izanez gero, bilera batera deitu)

Honako hauek izan daitezke esperientzia bertan behera uzteko arrazoiak:

1. Ulertzaileak esaten du ez duela jarraitzeko gogorik
2. Bi mintzatzaileek esaten dute ez dutela jarraitzeko gogorik
3. Parte hartzaile guztiek esaten dute ez dutela jarraitzeko gogorik
4. Egitasmoaren arduradunek esaten dute hizkuntza-arauaren betetze maila ez dela egokia

Azken puntuak ahala ematen dio egitasmoaren arduradunari ere esperientzia bertan behera uzteko. Erabaki hori hizkuntza-arauaren betetze mailari lotuta dago. Beharrezkoa da azaltzea, beraz, betetze maila nola kalkulatu den, eta zein irizpide erabiliko diren esperientzia bertan behera uzteko.

Hortaz, jarraipen fitxako lehen galdera erabiliko dute arduradunek hizkuntza-arauaren betetze maila kalkulatzeko. Zortzi datu erabiliko ditugu, eta lau baztertuko. Beheko tauletan berdez marrotuta nabarmendu ditugu zortzi datuok.

**Ukertzailearen fitxa:**

Lankidearen izena idatzi	Nik berari	Berak niri
A mintzatzailea		
B mintzatzailea		

**A mintzatzailearen fitxa:**

Lankidearen izena idatzi	Nik berari	Berak niri
Ukertzailea		
B mintzatzailea		

**B mintzatzailearen fitxa:**

Lankidearen izena idatzi	Nik berari	Berak niri
Ukertzailea		
A mintzatzailea		

Laukitxo bakoitzean zenbaki bat ageriko da (hizkuntza jokaeraren 1-5 eskalaren arabera). Zortzi laukitxoen batura eginda kalkulatuko dugu hizkuntza-arauaren betetze maila. Honako irizpide hauek erabiliko ditugu:

- Betetze txarra: 8tik 21 puntura bitartean.
- Betetze erdikoa: 22tik 28 puntura bitartean.
- Betetze ona: 29tik 40 puntura bitartean.

Betetze mailaren datuak aztertuta, arduradunek erabaki lezakete esperientzia bertan behera uztea. Erabakia honako irizpide hauen arabera arautuko litzateke:

- Betetze maila txarra denean, aski da behin gertatzea esperientzia geldiarazteko. Erabakia parte hartzaileei jakinaraziko zaie emailaz, baina beti ere ate bat zabalik utzita egoera irauli eta bere onera ekartzeko. Bilerak egiteko eskaintza edo aukera emango zaie. Bilerak balio beharko luke egoera aztertu eta irtenbiderik adosteko. Baina, *bilerak parte hartzaileek beraien eskatu beharko liekete egitasmoaren antolatzaileei, email baten bidez*. Halako eskaerarik jasotzen ez den bitartean, esperientzia bertan behera geldituko da behin-behingoan. Bi aste pasa eta oraindik bilerak egiteko eskaerarik jasotzen ez bada, orduan behin betikoz esperientzia bukatutzat emango dute arduradunek. Emailaz emango dute erabakiaren berri, beti ere beren lankidetzak eskertuz.
- Betetze maila ertainekoa denean, halako bi jarraian gertatuz gero esperientzia bertan behera geldituko da. Eta, ondoren, aurreko puntuan aipaturiko protokolo bera aplikatuko da oraingoan ere.
- Betetze maila ertainekoa denean, halako hiru tarteka gertatuz gero esperientzia bertan behera geldituko da. Eta, ondoren, aurreko puntuan aipaturiko protokolo bera aplikatuko da oraingoan ere.

### 6) Datu bilketa sistema

Ulerrizketa esperientziak aztertu, ikertu edo dokumentatu ere egin daitezke, eta hori askotan oso lagungarri izaten da. Datu bilketa sistematikoak lagundu egiten du esku-hartzea hobetzen, eta informazioak, orobat, ahalbidetzen du irizpideak doitzen eta egokitzen. Ikerketak, era berean, esperientziak datuen argitan ezagutarazteko bide ematen du, baina egia da, bestalde, ikerketa mailako jarraipen bat egiteak lan gehiago eskatzen duela, bai antolatzaileentzat eta bai partaideentzat. Orokorrean, beraz, halako esperientziei ikerketa izaera eranstearen aldeko gaituzue, baina berez, metodologiak ez du ikerketa ezinbesteko: kasu bakoitzean baloratu beharreko kontua da.

Egia da jarraipen sistemaren bidez oinarritzko datu batzuk honezkero biltzen direla (aurreko puntuan azaldurikoak). Datuok, gehienbat, prozesua erregulatzeko balio dute. Alabaina, erabili

ere egin daitezke ikerketa baten testuinguruan. Hala eta guztiz ere, bestelako datu gehiago jaso beharko genituzke ikerketa tankerara gehiago hurbiltzeko asmoa badugu. Guk honako datu hauek biltzea gomendatuko genuke:

- 1.** Esperientziari heldu aurretik, kideen arteko hizkuntza jokaeraren adierazleren bat jaso beharko genuke. Bi une egoki daude horretarako. Lehena, aurkezpena egiten denekoa da. Kideek formazio saioan parte hartzeari baietza eman ondoren, une egokia izan daiteke mintzagrama betetzeko (mintzagrama, jarraipen fitxan agertzen den lehenengo galdera bera da). Denborarekin estu ibiliz gero, beste une egoki bat izan daiteke aurreko aurreko formazio saioa egiten denean. Batean ala bestean egin, hortik lorturiko datuek adierazi beharko ligukete zein den kideen arteko hizkuntza jokaera esperientziari heldu aurretiko garaian.
- 2.** Esperientzian zeharreko adierazlea, jarraipen fitxatik bertatik eskuratu beharko genuke. Eta, hala, astez asteko hizkuntza jokabidearen batz bestekoa eginda, adierazle finko bat eskura genezake, esperientzian zehar izaniko hizkuntza jokabidearen adierazle gisa.
- 3.** Esperientzia bukatzerakoan, balantze kualitatibo bat egitea komeniko litzateke, parte hartzaile guztiak bilera batean bilduta. Aurrena, parte hartzaileei eskatuko genieke nork bere sententzioak idazteko kontakizun pertsonala eginda, eta, ondoren, elkarriketa libreari tartea emango genioke (ikus eranskinetako 8.8. puntuan balantze hau egiteko balia daitekeen dokumentua).
- 4.** Esperientzia bukatu eta hiru hilabetera<sup>13</sup>, berriz helaraziko genieke parte hartzaileei mintzagrama, une horretako beren arteko hizkuntza jokaeraren berri izateko, eta, hala, datuak aurreko bi neurketekin alderatu ahal izateko.

Ulerrizketa esperientziei ikerketaren formatua eransteak baditu bere onurak. Batetik, distira puntu bat dario ikerketa kontzeptuari jende askoren begietara, eta, hori, balizko parte hartzaileak motibatuzko beste tresna baten gisa erabil daiteke. Bestetik, metodologiaren emankortasunari buruzko hainbat datu ematen dizkigu ikerketak. Horri eskerrak, esku-hartzea hobetze dinamika etengabea murgil daiteke.

---

<sup>13</sup> Tarte hau bera erabiltzen dugu estilo bereko beste ikerketa batzuetan ere, oso bereziki Eusle Metodologiaren inguruko ikerketetan.

## 5.6.

**Lan mundutik kanpoko gizarte-eremuak**

Ulerrizketari loturiko ikerketak eta esku-hartzeak lan munduaren testuinguruan garatu ditugu orain arte, baina, gure ustez, haren aplikazio eremua edozein gizarte-esparrura zabal daiteke.

Laneko inguruetan badira osagai batzuk ulerrizketari presio edota herstura puntu bat dakartzkionak. Ulerrizketak, hasieran, ohi baino komunikazio erritmo motelagoa eskatzen du. Lan erritmoaren bizitasunak, askotan, ez dio tarterik uzten ulerrizketaren erritmoari. Baina bada besterik: lan munduaren ezaugarria da zehaztasuna eta kalitatea. Jarduera profesionalak exijentzi maila altua du berekin. Ulerrizketa estiloan aritu behar denean, ordea, ez dute kideek beti lortzen lehenengo kolpean mezuak ongi, zehatz eta segurtasunarekin komunikatzea eta ulertzea. Tarteka behar izaten dute esanahia negoziatu, argitu eta baieztatu komunikazio oso batera iristeko. Eta horrek guztiak denbora eskatzen du (agian ez denbora gehiegi ere, baina bai ohi baino denbora gehiago), eta denbora, alafede, lan munduan izaten da urrearen balioa duen osagai preziatua.

Pentsatzekoa da beste gizarte eremu batzuetan denboraren kudeaketa bestelakoa dela, eta es-tutasun giroa ere ez dela hainbestekoa. Gogoan ditugu, esaterako, hau bezalako eremu hauek: lagunarteak, kirol eta kultura taldeak, familiak, aisialdiko taldeak eta abarrekoak. Ez beti, jakina, baina printzipioz espero daiteke delako talde horietan ulerrizketaren komunikazio estiloak giro lasaiago eta askeagoa eduki dezakeela.

Lan munduko eremu formaletan bezala, eremu informal eta ez-formaletan ere ulerrizketa es-perimentziak bere osotasunean gara daitezke, printzipio metodologiko berberak aplikatuta, eta hemen aipaturiko antolakuntza irizpideak aintzat hartuta. Azken honi dagokionez, begi bistako moldaketa batzuk egin beharko liriateke. Bereziki, harreman hierarkikoak hainbestekoak ez diren eremuetan, ez baita beharrezkoa izaten, lan munduan beharrezkoa izan ohi den bezala, erakun-dearen goreneko arduradunen oniritzia jasotzea. Era berean, lokalizaziorako baliabideak ere des-berdinak izan daitezke eremu batean izan edo beste batean izan. Izan ere, eremu informaletan eta ez-formaletan hizkuntza-plangintzak ez dira ohikoak. Lan mundutik kanpoko erakundeek ez dute sarritan bere bazkideen edo kideen hizkuntza-gaitasunari buruzko informazio zehatzik, eta horrek, ondorioz, lokalizazio lanak beste modu batez egitera eramango gintuzke.

Hala eta guztiz ere, moldaketak moldaketa, ulerrizketa metodologiak (aipaturiko) eremu informal eta eremu ez-formaletan halako hizkuntza-ohituren aldaketa prozesuak arrakastaz egiteko aukera onak eskaintzen dituelakoan gaude.

# 6.



## AZKEN HAUSNARKETAK

---

Eredu estandar batera ekarri dugu urteotan pilatutako eskarmentua. Osagai guztiak frogatuak eta azertuak izan dira hainbat esperientzian. Orain, osagaiok egitura sistematiko baten bueltan aurkeztu ditugu. Sakontasunez landu ditugu ulerrizketarako behar diren trebetasunak, azalpenak, adibideak eta teknikak, irakurlearen esku utziz. Formazio-saioak antolatzeke ere lau orduko programazio zehatza ekarri dugu orrialdeotara.

Eredu estandarrean guztiz lotu ditugu formazio-saioak eta ulerrizketa esperientziak. Baina izan daitezke bestelako diseinuak, non pieza bietako bakoitzak bestetik autonomia duen. Eredu estandarrean, ulerrizketa esperientziak kontrolatuak dira jarraipen sistema baten bidez, ekintza eta ikerkuntza lotzen dituen paradigma baten arabera. Esperientzia kontrolatuak egin aurretik, ezinbestekotzat jo izan dugu parte hartzaileek formazio-saio bat jasotzea. Esan bezala, gurean bi piezak guztiz lotuta daude. Ordea, esku-hartze batean non ez den esperientzia kontrolaturik egingo, eta parte hartzaileek askatasuna izango duten ulerrizketa nahi duten eran aplikatzeko, orduan formazio-saioa izan daiteke pieza nagusia, jarraipen sistemarik gabe. Halako esku-hartze batean, aski izan daiteke interesatuei formazio-saioa ematea, eta, ondoren, beren esku uztea ikasitakoa aplikatuko duten, noiz aplikatuko duten eta norekin aplikatuko duten.

Ulerrizketak euskararen premia soziolinguistiko larri bati erantzuten dio, eta, beraz, badu izaera estrategikoa. Zailtasunak, ordea, ez dira txikiak.

Elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko hizkuntza-harremana ez da kontu txikia euskararen biziberritzean. Nola iritsi daitezke elebidun hartzaileak egun batean elebidun “orekatu” izatera, baldin eskolak ez badu horretarako aski indarririk, eta kalean elebidunek ez badiete euskaraz egiten? Arazoa, gainera, gero eta handiagoa izan daiteke, baldin erdal elebakarren multzo handiak euskalduntze prozesua inoiz abiatuko balu, zeren orduan, bai, elebidun hartzaileen kopurua ikaragarri altua izango bailitzateke. Egundak, ohituraz, inertziaz eta joeraz erdara da hizkuntza nagusia elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko harremanetan. Joera hori gelditu eta euskararen bueltan jartzea funtsezko erronka da, baina ez da erraza.

Ez da erraza, baina egin daiteke. Tresna eraginkorrak eskaini behar zaizkio jendeari hizkuntza jokaera iraultzeko. Ez da borondate hutsaren konturik, baliabide zehatzak behar dira. Tresna horietako bat da Ulerrizketa Metodologia.

Ulerrizketa Metodologia tresna indartsua da erronka soziolinguistiko handi bati aurre egiteko. Baina tresna batek bere horretan ez du aski indarrik halako erronka bati buru egiteko. Ulerrizketarako kompetentziak oso muturtuta daude egungo kultura soziolinguistiko nagusiarekin. Balio nagusi horiek iraultzeko behar den kemena ez da etorriko banaka eta isolaturik diharduten gizabanakoen jardueretatik. Etortzekotan, mugimendu sozial eta masiboetatik etorriko da. Ulerrizketa Metodologiak bere onena emango badu, “Ulerrizketa Mugimendu” baten testuinguruan beharko luke jardun. Elebidunen eta elebidun hartzaileen arteko harremanak euskararen bidean jartzeko erronkari heltzen dion mugimendu masibo baten testuinguruan, hain zuzen ere.

# 7.



## BIBLIOGRAFIA

- Apodaka, E. (2013). *Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait Psikologia Sozialetik*. Udaltop Jardunaldiak, 2013. Sarean eskura (<http://www.udaltop.eus/documents/192363/746802/Eduardo+Apodaka.+Txostena/45foce85-731d-4132-befo-d588abb8833a>)
- Bachman, L. F. (1990). *Fundamental Considerations in Language Testing*. Oxford: Oxford University Press.
- Bialystok, E. (1990). *Communication Strategies*. Oxford: Blackwell.
- Bourdieu, P. (2008). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal. Jatorrizkoa: (1982). *Ce Que Parler Veut Dire. L'économie des Échanges Linguistiques*.
- Brown, H. (2006). *Principles of Language Learning and Teaching*. New York: Pearson ESL.
- Bruner, J. (1990). *El habla del niño*. Barcelona: Paidós.
- Buller, D. B.; LePoire, B. A.; Aune, R. K. eta Eloy, S. V. (1992). Social perceptions as mediators of the effect of speech rate similarity on compliance. *Human Communication Research*, 19(2), 286-311.
- Canale, M. eta Swain, M. (1980). Theoretical bases of communicative approaches to second language: teaching and testing? *Applied Linguistics* 1: 1-47.
- Chaudron, C. (1979). Complexity of teacher speech and vocabulary explanation/elaboration. Ponentzia aurkeztua honako honetan: Thirteenth Annual TESOL Convention. Boston, Mass. Martxoak 2.
- Csikszentmihalyi, M. (1997). *Aprender a fluir*. Barcelona: Kairós.
- Doughty, C. J. (2000). La negociación del entorno lingüístico de la L2. In C. Muñoz (arg.): *Segundas lenguas: Adquisición en un contexto formal*. Barcelona: Ariel.
- Ellis, N. (2008). The psycholinguistics of the interaction hypothesis. In A. Mackey eta C. Polio (arg.): *Multiple Perspectives on Interaction in SLA: Second Language Research in Honor of Susan M. Gass*. London: Routledge.
- Ellis, R. (1997). *Second Language Acquisition*. Oxford: Oxford University Press.
- Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*.
- Færch, C. eta Kasper, G. (1983). *Strategies in Interlanguage Communication*. London: Longman.
- Ferguson, C. A. (1971). Absence of Copula and the Notion of Simplicity. A Study of Normal Speech, Baby Talk, Foreigner Talk and Pidgins. In D. Hymes (arg.): *Pidginization and Creolization of Languages*. Cambridge: Cambridge University Press.



- Ferguson, C. A. (1975). Toward a Characterization of English Foreigner Talk. *Anthropological Linguistics* 17: 1-14.
- Fishman, J.A. (1990). What is reversing language shift (RLS): and how can it succeed? *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 11: 5-36 or.
- Gaiek, S. J. (1977). The nature of linguistic input in formal second language learning: linguistic and communicative strategies in ESL teacher's classroom language. In H. D. Brown, C.A. Yorio eta R.H. Crymes (arg.): *On TESOL 77*. Washington, D.C.
- Gass, S.M. (2003). Input and interaction. In C. Doighty eta M. H. Long (arg.): *The Handbook of Second Language Acquisition*. Oxford: Oxford University Press.
- Gendlin, E. (2008). *Focusing: proceso y técnica del enfoque corporal*. Bilbao: Mensajero.
- Giles, H. eta Ogay, T. (2007). Communication Accommodation Theory. In B. B. Whaley eta W. Samter (arg.): *Explaining communication: Contemporary theories and exemplars* Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum.
- Gorter, D. (2001). Frisian Update of Reversing Language Shift. In J.A. Fishman (arg.): *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited : a 21st century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Gudykunst, W. B. (1993). Toward a theory of effective interpersonal and intergroup communication: An anxiety/uncertainty management (AUM) perspective. In R. L. Wiseman eta J. Koester (arg.): *Intercultural communication competence*. Sage: Thousand Oaks.
- Hatch, E. M. (1978). Discourse analysis and second language acquisition. In E. M. Hatch (arg.): *Second Language Acquisition: a Book of Readings*. Rowley, Mass: Newbury House.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2015). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza-ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2017). *Aldahitz Ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra
- Jonkman, R.J. (1999). Frisiera helduei irakastea eta curriculumaren berrikuntza. *Hizpi-de-Monografikoak* 3: 137-148 orr.
- Krashen, S. D. (1980). The input hypothesis. In J. E. Alatis (arg.): *Current Issues in Bilingual Education*. Washington. D. C.: Georgetown University.
- Krashen, S. D. (1981). *Second Language Acquisition and Second Language Learning*. New York: Pergamon.
- Krashen, S.D. (1985). *The Input Hypothesis: Issues and Implicacions*. London: Longman.
- Krashen, S.D. (2003). *Explorations in Language Acquisition and Use: The Taipei Lectures*. Portsmouth, NH.: Heinemann
- Long, M. H. (1983). Native speaker/non-native speaker conversation and the negotiation of comprehensible input. *Applied Linguistics*. 4(2): 126-141.
- Long, M. H. (1996). The role of the linguistic environment in second language acquisition. In W.C. Richtie eta T.K. Bathia (arg.). *Handbook of Second Language Acquisition*. New York: Academic Press.
- Mackey, A. (2007). *Conversational Interaction in SLA: A Collection of Empirical Studies*. New York: Oxford University Press.
- Maturana, H. eta Dávila, X. (2008). *Habitar humano, en seis ensayos de biología cultural*. Santiago de Chile: J.C. Sáez.
- Oliver, R. (2002). The patterns of negotiation for meaning in child interactions. *The Modern Language Journal* 86/I: 97-111.
- Pica, T. (1989). Classroom interaction, negotiation and comprehension: Redefining relationships. *Applied Linguistics*. 1(1): 7-35.

- Pica, T. (1994). Research on negotiation: what does it reveal about second language learning conditions, processes, and outcomes? *Language Learning*, 44, 493-527.
- Polat, N. (2016). *L2 Learning, Teaching and Assessment: A Comprehensible Input Perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
- Watzlawick, P.; Bavelas, J.B. eta Jackson, D.D. (2011). *Pragmatics of Human Communication: A Study of Interactional Patterns, Pathologies and Paradoxes*. New York: Norton.
- Roche, J. (1998). Variations in Xenolects (Foreigner Talk), *Sociolinguistica* 12: 117-139
- Rogers. C. (2011). *El proceso de convertirse en persona. Mi técnica terapéutica*. Barcelona: Paidós.
- Tarone, E. (1980). Communication Strategies, Foreigner talk and repair in interlanguage? *Language learning* 30: 417-413.
- Váradi, T. (1983). Strategies of target language learner communication. In C. Færch and G. Kasper (arg.): *Strategies in Interlanguage Communication*. London: Longman.
- Varonis. E. M. & S. M. Gass. (1985). Miscommunication in /nonnative conversation. *Language in Society* 14(3): 327-343.
- Vygotsky, L. (1962). *Thought and Language*. Cambridge, Mass: M.I.T. Press.

## 8.



## ERANSKINAK

### 8.1.

#### BERTSIO DIDAKTIKO LABURRA

*OHARRA: Bertsio honen jasotzaileak balizko ulertzaile eta mintzatzaileak dira. Ondo bi-dean, testua irakurrita ulerrizketari buruzko oinarritzko ideia bat egin beharko lukete. Aurkezpen gisa erabil daiteke. Testua ere bada ulerrizketa komunikazio estiloaren adibide praktiko bat. Saiatu gara euskara egokitua erabiltzen, ulertzaileak ulertzeko zailtasun handiegirik izan ez dezan. Hona hemen testua:*

Agian entzun duzue badagoela Ulerrizketa metodologia.

Agian esan dizute ea parte hartu nahi duzuen metodologia horretan.

Eta, agian, pentsatu duzue: Zer da Ulerrizketa? Zer esan nahi du hitz arraro horrek?

Denbora pixka bat badaukazue, esplikatuko dugu.

#### ULERRIZKETA

Ulertu eta Hizketa, hori da Ulerrizketa

Ulertzen badugu, posible da hizketa

Ulertzeko moduko hizketa

Hobeto ulertzera garamatzan hizketa

#### ULERRIZKETA

Bertso moduan atera zaigu esplikazioa.

Ulertu duzue? Oraindik ez?

Imajinatu bi pertsona: Mainer eta Udane.  
Mainerri *MINTZATZAILEA* esango diogu  
euskaraz ongi *mintzatzen* delako (ongi hitz egiten duelako).  
Udanei *ULERTZAILEA* esango diogu  
euskaraz nahiko *ulertzen* duelako,  
baina kostatzen zaio euskaraz hitz egitea.

Denbora asko pasatzen dute elkarrekin Mainerrek eta Udane.  
Erdaraz hitz egiten dute beren artean.

Eta orain galdera potoloak:

- Posible al da Mainerrek euskaraz hitz egin eta komunikazioa Udanearekin fluidoa izatea?
- Posible al da Mainerrek euskaraz egin eta Udane asko ulertzea?

Zer pentsatzen duzue zuek?

Ulerrizketa metodologiak pentsatzen du baietz, posible dela.

Baina, ez da milagroa.

Zein da sekretua, orduan?

**ULERTZEA** da sekretua

**ULER-hizketa**

Udane ulertzeko, modu errazean hitz egiten du Mainerrek.

Serio hartzen du lan hori.

Hitz errazak bilatzen ditu.

Esaldi motzak egiten ditu, sinpleak ere bai.

Ez du oso-oso azkar hitz egiten.

Denbora ematen dio Udane pentsatzeko.

Galdetzen dio batzuetan zer ulertu duen.

Udane ongi ulertu ez duenean, Mainerrek beste modu batez esaten dio.

Udane ere serio-serio hartzen du bere lana.

Ulertzeko lana esan nahi dugu.

Zerbait ulertu ez duenean, galdetu egiten dio Mainerri.

Zer ulertu duen ere konprobatzen du, seguru egoteko.

Ziur egon nahi du ongi ulertu duela.

Mainerrek oso azkar hitz egiten duenean, polikiago egiteko eskatzen dio.

Edo oso esaldi luzeak egiten dituen, errazago egiteko eskatzen dio.

Ez da isilik gelditzen.

Elkarrizketan parte hartzen du bizi-bizi.

Batzuetan zerbait euskaraz esaten du.

Euskaraz dakien guztia esaten du.

Baina gehienetan erdaraz hitz egiten du.  
Oraindik kostatzen zaiolako euskaraz hitz egitea.

Ulertzen duzue hobeto orain zer den ulerrizketa?  
Hala espero dugu.

Gai askori buruz hitz egiten dute euskaraz Mainerrek eta Udanek.  
Gai teknikoei buruz ere euskaraz hitz egiten dute ulerrizketa estiloan.  
Denbora asko pasatzen dute euskaraz hitz egiten.  
Mainerrek ohitura hartu du euskaraz egiteko.  
Udanek hobeto ulertzen du euskara orain,  
eta hitz egin ere gehiago egiten du.

ULERTZEA da sekretua.  
Ulertzeko lana egiten du batek.  
Eta ulertzeko moduan hitz egiten du besteak.

Mainerrek eta Udanek orain modu naturalean egiten dute ulerrizketa.  
Baina hasieran pixka bat kostatu zitzaien.  
Ohitura zahar batzuk kendu behar izan zituzten,  
eta teknika berri batzuk ikasi.

Zuek ere ulerrizketa estiloa ikas dezakezue.  
Baina lehendabizi formazio pixka bat jaso behar duzue.  
Lau orduko ikastaroa prestatu dugu horretarako.  
Zer ikasi edo praktikatu?  
Hemen duzue zerrenda:

#### **ULERTZAILEA**

**Komentario egokiak egin euskaraz edo erdaraz  
Konprobatu zer ulertu duzun  
Argitu zer ez duzun ulertu  
Eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko**

#### **MINTZATZAILEA**

**Euskaraz jardun nagusiki  
Euskara ulergarria erabili  
Galdetu besteari zer ulertu duen  
Esan beste modu desberdin batez esaldia**

Orain badakizue, gutxi gorabehera, zer den ulerrizketa  
Animatzen al zarete hori probatzera?

Ongi etorriak euskararen mundura.

8.2.

## **TXARTELAK**

TXARTELA (I)

# **KOMENTATU**

**Esan komentario  
egokiak eta  
elkarrizketa jarraitu**

TXARTELA (2)

# ESKATU

**Esan zer behar duzun  
hobeto ulertzeko:**

- polikiago hitz egin
- argiago ahoskatu
- hitz errazagoak erabili
- esaldi laburragoak egin
- sinpleago hitz egin

TXARTELA (3)

# KONPROBATU

**Esan zer ulertu duzun**







TXARTELA (4)




# ARGITU



**Esan zer ez duzun  
ulertu**



TXARTELA (5)



TXARTELA (6)

# EGOKITU

## Euskara ulergarria erabili

- polikiago hitz egin
- argiago ahoskatu
- hitz errazagoak erabili
- esaldi laburragoak egin

TXARTELA (7)

# **GALDETU**

**Galdetu besteari zer  
ulertu duen**



TXARTELA (8)

# BERREGIN

**Esan beste modu  
desberdin batez  
esaldia erdarara pasa  
gabe**

- hitz errazagoak erabili
- esaldi laburragoak egin
- sinpleago hitz egin

TXARTELA (9)



# **EZ HITZ EGIN LUZE ZUK BAKARRIK**



**Eta bestea luze isilik**

TXARTELA (10)



TXARTELA (II)

# **EZ IBILI OROKOR**

**Esan gabe zer ulertu  
duzun**

**Isilik gelditu  
Ah! / Uh!  
Bai / Ez  
He entendido  
No entiendo**



TXARTELA (12)



## STOP TXARTELA



## 8.3.

### ALBISTEAK

#### ALBISTE LABURRA (1)

---

**ERAIKUNTZA SUSPERTZEKO, ETXE ZAHARRETAN AZTERKETA TEKNIKOAK EGINGO DITUZTE**

Eusko Jaurlaritzak esan du 70.000 eraikin aztertu behar direla hurrengo bi urteetan. Hainbat be-rritze egin beharko dira, eta uste dute horrek eraikuntza sektorea suspertuko duela, nahiz eta ez den aurreikusten 2008ko egoerara iristea. (BERRIA, 2018-01-28)

#### ALBISTE LABURRA (2)

---

**AURTEN 250 BAZKARI ANTOLATU NAHI DITU SOS ARRAZAKERIAK**

Kanpotik etorritako eta bertako familiak bazkaltzen elkartuko ditu aurten ere SOS Arrazakeria-  
ren Bizilagunak egitasmoak. Azaroaren 19an izango dira hitzorduak, eta Araba, Bizkai eta Gipuz-  
koan 250 bazkari antolatzea espero dute sustatzaileek; iaz, 2.615 pertsonak (547 sendik) hartu  
zuten parte 235 bazkaritan. Gogoratu dute egitasmoa “tresna eraginkorra” dela “aurreiritziak  
desegiteko eta harreman sareak sortzeko”. (BERRIA, 2017-11-02)

#### ALBISTE LABURRA (3)

---

**SANTURTZIKO BIZILAGUN BAT HIL DA HUESCAKO IBAI BATEAN ARRAUN SURFA EGITEN ARI ZELA**

Santurtziko (Bizkaia) gizon bat hil zen herenegun Huescako Gallego ibaian (Aragoi, Espainia),  
lagun batekin arraun surfa egiten ari zela. Haren lagunak deitu zuen larrialdi zerbitzuetara, kidea  
ez baitzuen ikusi luzaz. Handik gutxira berreskuratu zuten gorpua Guardia Zibilak eta Mendiko  
Erreskate Zerbitzuek. Jakinarazi dute ibaiak emari handia zuela. (BERRIA, 2017-05-15)

#### ALBISTE LABURRA (4)

---

**“EUSKAL Y”-A HIRIBURUETARA NOLA SARTU, ITUN TEKNIKO BAT EGIN DUTE MADRILEKIN**

Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuako teknikariek bilera egin dute, eta adostu dute Bil-  
bon geltokia osorik lurperatzea, Donostian beste garraio bideekin lotzea, eta Gasteizen tren  
lurpean sartzea hiriaren erdialdean. (BERRIA, 2018-02-04)

## **ALBISTE LABURRA (5)**

---

**EMAKUMEEK EGITARAU ALTERNATIBOA ONDU DUTE BIHARKO, FILMATEGIAREN URTEMUGAN**

Euskadiko Filmategiak 40 urte beteko ditu aurten. Eta efemeride horrekin lotuta antolatu dituzten emanaldietan, ez dute emakumek zuzendutako lan bat bera ere programatu apirilean egin dituzten ekitaldietan. Hori dela eta, zinema munduko hainbat emakumek emanaldi alternatiboa prestatu dute biharko. Mirentxu Loiarteren *Euskal emakumeak* filma emango dute, Donostiako Azpi Kultur elkartean, 20:30etan. (BERRIA, 2018-04-26)

## **ALBISTE LABURRA (6)**

---

**ESKUDIRURIK GABE BIZITZEKO SAIO BAT EGINGO DUTE GAUBEAN ETA AÑANAN**

Txanponik eta billeterik gabeko gizartea urte gutxiko kontua omen da. Maiatzaren 7tik ekainaren 30era eskudirurik gabe funtzionatzeko saioa bat egingo dute Arabako Gaubea (996 biztanle) eta Añana (156) herrietan. Visa eta Kutxabank konpainiek bultzatu dute proba. Eskudirurik ez erabiltzeko erraztasunak emango dizkiete herritarrei. Sakelako telefonoen aplikazioen, *contactless* teknologia duten txartelen, eta ordainketa egiteko *sticker* eta eskumuturrekoen bidez egin ahal izango dituzte erosketak. Herrietako saltokietan ere teknologia hori erabiliz ordaintzea erraztuko dituzten baliabideak ezarriko dituzte. (BERRIA, 2018-04-18)

## **ALBISTE LABURRA (7)**

---

**TRAMITERAKO ONARTU DUTE EUTANASIA ERREGULATZEKO LEGE PROPOSAMENA**

Eutanasia arautzeko lege proposamena tramiterako onartu zuen atzo (2018-06-26) Espainiako Kongresuak. PSOEk aurkeztuta, talde parlamentario guztien babesa lortu, PPrena izan ezik. Honek eutanasia legeztatuko luke, baina arau zehatz batzuekin: 1) gaixotasun edo desgaitasun larriak dituzten herritarren kasuetan bakarrik egin ahal izango da, 2) medikuak ez daude laguntzera behartuak, 3) gaixoak idatziz egin beharko du eskaera, eta bigarren eskaera bat hamabost egun geroago, baina azken hitza mediku talde batek izango du, 4) doakoa eta unibertuala izango da, eta 5) etxean edo osasun zentro batean egin ahal izango da, betiere medikuaren presentziarekin. (BERRIA, 2018-06-27)

## **ALBISTE LABURRA (8)**

---

**TELEBISTA DA ORAINDIK ALBISTEEN BERRI IZATEKO HEDABIDERIK GOGOKOENA**

Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketa baten arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren %44k adierazi dute telebista dela eurentzat albisteak jasotzeko hedabiderik garrantzitsuenak. Telebista alde handia ateratzen die beste hedabideei. Herritarren %28k adierazi dute Internet dela eurentzat albisteen berri izateko hedabide nagusia. Herritarren %17 dira irratia gogokoan dutenak. Bestalde, soilik hamar lagunetik batek adierazi du paperezko egunkariak direla albisteak jasotzeko hedabide nagusia. Galdetuta sare sozialen erabilerari buruz, herritarren %44k esaten

dute ez dituztela Interneteko sare sozialak inoiz edo ia inoiz erabiltzen. Ehuneko hori Europako Batasuneko handienetakoa da. Datuak adinaren arabera aztertuz gero, joerak aldatu egiten dira. 18-25 urte artekoen artean %58k aukeratzen dute Internet albisteak jasotzeko, eta %92k egunero erabiltzen dituzte sare sozialak. (BERRIA, 2018-01-18)

### **ALBISTE LABURRA (9)**

---

#### **498 KAZETARI DAUDE LANGABEZIAN HEGO EUSKAL HERRIAN**

Madrilgo Hedabideen Elkarteak 2017ko Informazioaren Liburu Zuria aurkeztu du. Datuen artean, kazetarien langabeziarenak ematen dituzte: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %10,3 txikiagotu da kazetarien langabezia 2016tik 2017ra; Nafarroan, %17,8. Hego Euskal Herrian 498 kazetari daude langabezian, iaz baino 70 gutxiago. (BERRIA, 2017-10-10)

### **ALBISTE LABURRA (10)**

---

#### **LITERATURA SAIO BERRI BAT ARI PRESTATZEN ETB-N**

*Sautrela* literatura saioak utzitako lekua betetzeko asmoa du ETBk 2018an. Literaturarekin lotutako programa berri bat ari dira prestatzen egunotan, eta, okerrik ezean, urtarrilean edo otsailean estreinatuko lukete. ETBko zuzendaritzak eta programa berriko arduradunek ez dute xehetasunik eman nahi, oraingoz. *Sautrela*-k hamazazpi urte iraun zuen.

## 8.4.

# LABURPEN ILUSTRATUAK


## LABURPEN ILUSTRATUA (I)

### ULERTZAILEA

#### Komentario egokiak egin eta elkarrizketa jarraitu

Teknikariak deitu du, eta esan du bihar etorriko dela makina


¡Menos mal! Ya era hora que viniera



#### Konprobatu zer ulertu duzun

Teknikariak deitu du, eta esan du bihar etorriko dela makina


Que mañana viene el técnico, ¿no?



#### Argitu zer ez duzun ulertu (eta gero konprobatu)

Teknikariak deitu du, eta esan du bihar etorriko dela makina

¿Cuándo has dicho que va a venir?




#### Eskatu zer behar duzun hobeto ulertzeko (eta gero konprobatu)

- polikiago hitz egiteko
- argiago ahoskatzeko
- hitz errazagoak erabiltzeko
- esaldi laburragoak egiteko
- sinpleago esateko

Teknikariak deitu du, eta esan du bihar etorriko dela makina

¿Lo puedes decir un poco más despacio?



## LABURPEN ILUSTRATUA (2)

## MINTZATZAILEA

## Euskaraz jardun, besteak erdaraz egin arren

Teknikariak deitu du, eta esan du bihar etorriko dela makina

¡Menos mal!  
Ya era hora que viniera



Bera datorrenean, zu egongo zara berarekin?



## Euskara ulergarria erabili, besteak ulertzeko moduan

- polikiago hitz egin
- argiago ahoskatu
- hitz errazagoak erabili
- esaldi laburragoak egin
- sinpleago esan

Teknikariak deitu du. Esan du bihar etorriko dela. Ea makina konpontzen duen!

Que mañana viene el técnico, ¿no?



Bai, goizean etorriko da. Zu egongo zara berarekin?



## Berregin esaldia, beste modu desberdin batez esanda

Bezeroen zerrenda pasa behar didazu

Qué es zerrenda?



Itxoin, beste modu batez esango dizut: Apuntutako didazu paper batean



Deituko digute esateko zenbateko aurrekontua prestatu duten

Ahh!!!  
Kontxo!!!



Ulertu duzu?

Sí, sí...  
¿Qué tenemos que presentar un presupuesto, no?




Ez, guk ez. Beraiek egin behar dute, eta gero guri pasa

Ahh... que van a presentar ELLOS un presupuesto, vale


## 8.5.

### PROTOKOLOAK


#### PROTOKOLOA 1



#### PROTOKOLOA 2



#### PROTOKOLOA 3





8.6.

**KARTAK**

**ULERTZAILEARENTZAKO KARTAK**

Isiltasuna edo  
soinuak (ahhh,  
aiba...)

Sí, he entendido

Algo, pero no todo

No he entendido

No he entendido  
nada o casi nada

No he entendido  
esta (XXX) palabra

**MINTZATZAILEARENTZAKO KARTAK**

Ulertu al duzu?

Zer ulertu duzu?

Ez al duzu ezer  
ulertu?

Beste modu batez  
esango dizut

## 8.7.

### JARRAIPEN FITXA

#### JARRAIPEN FITXA:

Data: .....

Lantokia: .....

Izena: .....

1) Nola hitz egin duzu aste honetan zure ulerrizketa-kideekin?  
Erabili eskala hau (zenbakiak jartzea nahikoa da)

- 1. Beti edo ia beti erdaraz
- 2. Erdaraz euskaraz baino gehiago
- 3. Bietan berdin
- 4. Euskaraz erdaraz baino gehiago
- 5. Beti edo ia beti euskaraz

Lankidearen izena idatzi	Nik berari	Berak niri
1. ....		
2. ....		

2) Jarraitu nahi duzu beste astebete gehiago?

- Bai
- Ez

8.8.

**AZTERKETA KUALITATIBOA**

Izena: .....

Data: .....

Lantokia: .....

1.- Zein da zure balorazio pertsonala esperientziari buruz? Zein sentazioarekin gelditu zara?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

2.- Zein izan dira zailtasun handienak?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

3.- Zein izan dira gauzarik interesgarrienak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4.- Zer aldatu behar da metodologian zure ustez?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



**Aldahitz** IKERKETA  
ULERRIZKETA METODOLOGIA

---

*Gaitasun ertaina dutenekin euskaraz  
aritzeko bide bat*